

LAZKANO MENDIZABAL

Gizona

abere hutsa da

JAKIN
Arantzazu
Oinati, 1975

JAKINO MENDIABAI

Gizona

abertu hutsa da

JAKIN liburu sorta (17)
Zuzendari: Joseba Intxausti

Azala: X. Egaña

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

N.º de Registro 1.692

Depósito Legal: NA. 545 - 1975

ISBN 84 - 7240 - 083 - 2

Talleres gráficos: Editorial Verbo Divino, Estella (Navarra)

Arantzazu
Oñate, 1975

Aurkibidea

Argitaldariaren oharra	VII
Gizona abere bat da	1
0.1. Hirugarren Iraultza pasa da	1
0.2. Gizarte berri, esperantza berri, etorkizun berri ...	4
0.3. Gizona abere bat da	13
1. Kapitulumua	17
1.1. K. Lorenz: Nobel saria	17
1.2. Natura ala historia	24
1.3. Natura eta kultura	27
1.4. Barruko eta kanpoko determinazioak	34
1.5. Aldez aurretik programaturik ote gaude?	37
2. Kapitulumua	43
2.1. Dena metodu kontua da	43
2.2. Atzera gelditu den sozialismoa	47
2.3. Natur jakintzak eta sozialismoaren teoria	50
2.4. Gizona berez ona omen da	60
2.4.1. Mitoa	60
2.4.2. Mitoa gaur	62
2.4.3. Antimitoa	65
2.4.4. Aro Modernua	68
2.4.5. Modernutasuna hauzitan	77

3.	Kapitulua	87
3.1.	Tesia: gizona supergizona da	87
3.2.	Tesia: supergizona prestua da	90
3.3.	Antitesia: Hobbes	103
3.4.	Antitesia: Nietzsche	106
3.5.	Antitesia: Darwin	113
4.	Kapitulua	117
4.1.	Giza aberea	117
4.2.	Nortasunera bidean (edo, kostituzio irekia)	143

Agiararen oharra

Gizona abere bat da

0.1. Hitzaren tratuaren giza da

0.2. Giza da berriz, ez gizona berriz, ez gizona berriz

0.3. Gizona abere bat da

1. Kapituluak

1.1. K. Lorenz: Nobel saria

1.2. Natura eta historia

1.3. Natura eta kultura

1.4. Berrak eta kultura determinatzaileak

1.5. Aldeak aurkeztu programatik eta gaur

2. Kapituluak

2.1. Dena metodo kontua da

2.2. Aldeak gaur eta sozialismoa

2.3. Naturaren jatorria eta sozialismoaren teoria

2.4. Gizona abere bat omen da

2.4.1. Mitos

2.4.2. Mitos gaur

2.4.3. Antropologia

2.4.4. Aro Modernoa

2.4.5. Modernizazioaren jatorria

Argitaldariaren oharra

Liburu honen izenburua irakurtzean, Lamarck edo Darwin-en beranduko jarraitzaile sutsu baten aurrean gaudela pentsa liteke. Aspaldi honetan euskaldunok berandu eta desgaraiz ibiltzen ohiturik bait gaude. Gizona abere hutsa da ez da «materialista» fededun baten predikuen slogan bat. (Horrelako izkribuen atzetik bazenbiltzen, hobe zenuen eskutan dadukazun hau erosi ez bazenu).

Baina izenburu hori, komertzialtasunaren eskakizun soil bezala ere ezin daiteke uler. Liburu zehar hain sarri azaltzen delarik, egilearen asmotan badu esanahi bat.

Lazkano Mendizabalek uste duenez, egungo zenbait politik ekintza, ideologia, giza zientzia eta utopiaren oinarrian, porrot egin duen pentsakera bat dago. Guztioz zenbait puntutan elkarren kontra egonik ere, Weltanschauung berbera dadukate, giza ikuskera berdina. Oraintxe hiltzera doan Aro Modernuaren emariak dira.

Aro Modernuaren gizona, arrazoimena da bereziki. Beronen argiak kritika dezake, noski, giza natura horren kontrako egoera, erlijio eta tradizioen ustekizunak apur ditzake, eta gizona zoriontsu egingo duten gizarte eta politik egiturak asma. Arrazoimenak, Erdi Aroko Ilunbeetatik ateraz gero, gizona askatu egingo du. Marxismoa, psikologia, soziologia, eta kristautasun modernua ere, utopia honen bila dabilta.

Guzti hau onartzen eta sinesten zuen Aro Modernuak, eta zientziazat ematen. Eta guzti hau kraskatzen aspaldi samar hasia da, eta gaur txirtxilduta erortzen doan mundu eta gizon ikuskera bat da.

Aro Modernuak ahortzi duena zera da: Gizona «abere» bat dela. Beste abere guztienak bezala, gizonaren konportaerak, onak zein gaiztoak, barruko genetik determinazioekin zerikusirik baduela. Haren jokabideak ez direla kanpotiko heziketaren determinazio soilak. Gizona ez dela tabula rasa bat. Gizona, beste abereak bezalatsu, nolabait aurre-programaturik jaiotzen dela.

Azken urte hauetako biologoen, zoologoen, neurofisiologoen eta abarren idorokizunek ez dute Aro Modernuaren gizona zutik uzten. Honez gero, ez dago gizonaren etorkizuna asmatu eta programatzerik, jakintza hauek begiratu gabe. Amets ustel gertatuko den zerbaiten bila alferrik saiatzeko eskubiderik ez badugu behintzat. Gizona eta gizartea aldatu nahi dituen eta errealismoz jokatu nahi duena ezin daiteke zientzia hauen ezjakinean ibil.

Baina Lazkano Mendizabalek ez du honekin inola ere, susmo maleziati batek pozik ulertuko lukeen bezala, gizarte egituren alda ezina defendatu nahi. «Debekaturik gelditzen zaizkigunak, utopia merke eta gaiztoak dira; ez esperantzak» (Ikus 160 or.).

Hau da egileak psikologoei, pedagogoei, soziologoei, marxistei eta kristauei ere gogarazten diena, Gizona abere hutsa da oihukatzen duenean. Hau da egiaren garrantasuna jasan ezinik edo eta haren ondorioez izaturik, tristuraz batzutan, amorruez bestetan, gizona supergizon bihurtu nahi duten guztiei jotzen dien erronka.

Aro Modernu guztiarekin sartzan delarik, haren pentsakeran oinarritzen diren jakintza molde buztiek ukainen dute zer esanik franko liburu honen aurrean. Batzuek eta besteek leporatuko diote ez dela inguru-nearen (heziketaren, ekonomiaren, gizarte harremanen etab.) garrantziaz jabetu. Baina ezin ukatuko dute Lazkano Mendizabalek eskatzen duen jakintza bakoitzak bere ikuspegixotik mundu ikuskera bat eraikitzeko joera eta arriskua baztertu beharra, eta jakintza interdiplinarrien premia larria.

Lazkano Mendizabalen gogoeta hauek irakurrita, bere soinekoak urratzeko desira amorraturik sumatuko duen borondate oneko nahiz txarreko sasi-jakintsurik ere izango da.

Giza aberea, abere da Lazkano Mendizabalentzat. Abere apartekoa ordea, «abere izan nahi ez duen abere bakarra gizonak bait dirudi (...). Honek esan nahi du, beste abereetan ez den oinarriren bat badela gizona baitan, aberetasunari ezetz esaten enpeinatzeko» (14 or.).

Gizona, bere kodigo genetikoak aurre-programaturik dago. Baina programaketa hau ez da absolutua. Gi-

zonak konstituzio irekia du eta (ikus 143-164 or.). «Ezetz esaten duen aberea» izateak damaion irekitasun hori ez datorkio «izpiritutik» bakarrik. Gizona ez bait da «gorputz» eta «izpiritu». Bere aberetasunaren ezagugarri du izpirituzko, arrazoimendun, kultural izatea. Irekitasun hau haren geneen programaketa bereziak finkatua dago. Biologikoki aztertuta ere, gizartearen eta historiaren lana eskatzen du gizonak, bere osapenera iristeko. Gizarte ingurunearen eta honen aberastasun historikoen beharra eskakizun biologiko bat da. «Errekarrik gabeko surik ez dagoen bezalaxe, kulturarik gabeko gizonik ere ez dago; ez eta biologikoki ere» (145 or.).

Gizonaren batasuna azpimarkatzen du gogotik Lazkano Mendizabalek gogoeta hauekin. Ez da autorearen asmoa hor dagoen filosofiazko arazo latza argitzea eta konpontzea. Edozein askabide errealistak bereganatu gabe ezin utz ditzakeen biologiaren, zoologiaren eta etologiaren idorokundeak gogoratzen ditu liburu honek.

Gizona abere hutsa da, nahi baduzu; baina abere berezia. Eta «berezitasun» hori da filosofiaz ez-erik biologiaz ere osoa izan nahi lukeen antropologia batek argitu beharko lituzkeen gauzetako bat.

Baina gizona ez da abere hutsa, zuk hala nahi baduzu behintzat; hau da, abereari «irekitasun» hori gabeko zerbait baderizkiozu. Ezin dezakezu ahantz, ordea, aberea ere badenik.

Gizona abere hutsa den ala ez, aberetasunari zein zabalero ematen diogun da kontua. Baieztapenetan ados egoteko, kontzetuen konteniduetan iritzi berekoak behar genuke izan. Beraz bide laburragoa eta ziurragoa derizkiot konteniduetatik, zientziek atzeman dituzten datuetatik hasteari, ongi zehaztu gabeko kontzetu logomakia alferrikako batetan, geure ezpataren zorroztasuna haizearen kontra dantzatzeari baino.

Eztabaidak sortuko ditu liburu honek. Inoiz oso bi-ziak ere bai, noski. Batzuk nekez konformatuko dira Lazkano Mendizabalen tesia onartzera; alegia, Aro Modernuaren hil-kanpaiaren hotsa entzuten hasi garenik onartzera. Beste batzuk han eta hemengo zenbait simplifikazioen salaketan izkutatuko dute beren konformagaiztasuna, nahiz eta hauek egileak hautaturiko metodoaren saihestuezineko, baina liburuaren teslari axaleko zaizkion ondorio izan.

Izkutuko politik asmo konkretu batzuen bila abiatu eta aurkitu gabe itzuliko denik ere ez da faltako. Lazkano Mendizabalek esaten digunari jaramonik egingo ez badio ere.

Egia da Aro Modernuak aurreko mendei eginiko kritika, euskaldunok puntu batzutan oraindik geureganatu gabe dadukaguna. Eta eginkizun hori hor dago. Baina egun ezin genezake hori egin, Aro Modernuko pentsalarien ondotik, eta hauek kritikatzin eta amesten zuten munduaren atzetik, beste pentsalari eta beste mundu berri bat sortu zaizkiguna kontutan hartu gabe; gaurko zientziek eta filosofiek Aro Modernuari egiten dioten kritikaz jabetu gabe.

Aro Modernuaren galbahean pasa gabeko pentsakera eta sentikeratik biharko mundura, jaio berri den mundu horretara begira jartzeko laguntza bat izan nahi luke euskaldunontzat Lazkano Mendizabalen liburu honek.

Glizona abere bat da

0.1. Hirugarren Iraultza pasa da

Joan Mari Torrealday-ren *Iraultzaz* liburua irakurri dut (1). Gau batez eta Baionan. Hain gertu eta hain urruti, irakurle. Bide seinalkariiek egia badiote, Espainiara daraman karreteraren bazterreko etxe batetan irakurri dizut.

Bide bat: bide baten bila gabiltza. Biderik ez dago,

(1) J. M. TORREALDAY, *Iraultzaz*, Jakin 1973.

ordea, egiten ez bada. Gure bidegintzan lanaldi bikaina egin digu Torrealdayk. Eskerrik asko.

Aspaldian ez zitzaidan gauza irakurgarriagorik eskuetara erori. Ez bait da egunoro suerte ona izaten.

Haseratik azkeneraino, liburua hertsu eta askoz georagora arte, barne guztia dardaraz, mogimenduan darabilkizu, batera eta bestera zarabilzki, atsegirik eta pausa-lekurik inon eman gabe, taupadaka eta eupadaka, zitzadaka eta zartadaka, hoska eta hozka, ez du bakerik uzten. Eskerrik asko.

Torrealdayk ederki erakusten digu, iraultza modernutasunaren haurra dela. Moderniaren ideiak eta us-teek, eta zientzien bultzadak, bidera digutela iraultzaren burutapena. Premia hutsak ez baino premiaren kontzientziak bizten du iraultza. Eta Aro Modernuak ekarri du kontzientzia hori. Gizon modernuak natura menderatu nahi izan du eta, teknikaren bidez, baita —neurri handian— lortu ere. Erakunde zaharrak lurre-ra ditu, halaber, gizartea bere asmoen arabera antolatzeko. Bere burua askatu eta burutu nahi izan duelarik, ordea, ez *dakiela bere burua zer den*, ohartu da. Egitekoak egin ditu, baina ez du helbururik eskura.

Inork ezin bete ahal ukan ditu egindako promesak. Mundu berriztapen guztiek gizona lehen bezain zaharkote utzi dizute.

Eta modernutasunaz dudamudatzen hasi da. Modernutasuna hauzitan dago.

Iraultza, lehenik, asmo bat da. Proiektu bat. Proiektu bezala, ikuspegi eta ikuspide batzuk suposatzen ditu. Torrealdayk berak azaldu digu:

Iraultzarekin batera europear pentsaera modernuaren lerro nagusiak ikusi ditut. Progresoan sinesmena, zientziaren guzi-ahaltasuna, gizonaren nagusitasuna, arrazoimenaren garaitzapena, etc. etc. ardatz gisa dituen kultura gurea da, Europakoa. Iraultzaren pentsamendua ere hortxe dago (2).

(2) Z. Argia, 554. zenb.

Eta bertanbehera:

Pentsamolde hau, neurri haundi batetan, ondo dakigunez, XVIII-XIX mendeetan eratu zen. Eta komentziturik nago ni gauza askotan eta askotan mende horien jarraitzaile hutsak garela. Horrek harritu nau. Esta horrexegatik esan dut liburuan, etorkizunaren guraso baino gehiago lehenaren seme garela.

Hori egia da. Eta hori kalamidade bat ere bada.

Horra, ba, problema. XIX. mendeak zenbait kondizio eta girotan bixi-bixirik irauten du. Baina beste askotan pasata bait dago. Iraultzari eragiten zion pentsamoldea, mentalidadea, progreso-sinesmen eta beste ezaugarri horiekin, ia birrinduta bait dago. Aipatu, sekula baino gehiago aipatzen da gaur iraultza. Eta, halere, gaurko mentalidade barnean apenas leku garbirik duen *iraultza* hitzak. Anakronismo bat. Aurreko mendeotan, Astronomiatik hasi eta politikaraino, zientzietan nahiz mentalidade korrientean, denak iraultza zirudien. Nonahi «iraultzak» ikusten eta aipatzen ziren. Egun nonahi «estrukturak» ikusten dira, ordea. Mentalidadea aldatu da.

Arras diferentea da zientzien eta mentalidadearen gaurko orientazioa. Eta kaleraino astiro-astiro eta xeheki-emeki bakarrik ailegutzen bada ere, zientzion eragipena, piskana-piskana, *modernua* zeritzan mentalidadea hauspean tapatzen eta estaltzen ari da.

Mentalidade aldakuntza hori sortzen duen beste kausa politiko eta ekonomiko asko ere badago. Baina utz ditzagun horiek orain.

Horra ezker berri suhar hanitzen trageria. Ongi da gazteren batzuek Marxen, Bakuninen, Trotskiren, Maoren, Proudhonen ideiak amorratio berriz berbiztu badizkigute. Halere, guztiz aldatu den mundu etsitu batetan behinolako «progresismoa kontserbatzen» ari dira. Baina hori ahal da etorkizunaren bidea? XX. mendearen etorkizuna XIX. edo XVIII. mendeak ote dira?

Problema da, ea beti betiko problemekin ibili behar ote dugun. Gauzak zeuden bezala, 1770ean demokrata izan beharra zegoen, 1890ean sozialista izan beharra zegoen, 1920an komunista izan beharra zegoen... Handik jotzen zuen haizeak, aldagoiaren gogortasunez jo ere.

Eta gaur zer?

0.2. Gizarte berri, esperantza berri, etorkizun berri

Krisiaren gaitzaz ohartu beharra dago. Lehenik, iraultzazaleen helburu klasikoetan fedea galdu da: Internazionalismoan eta bake unibertsean, batik bat. Hots, anaitasun orokorrean. Demokrazia direktoan, gero. Gizartearen transparentzian, halaber. Batez ere, teknika gero eta zailagoek, lan zatiketa gero eta kaskarra-goak eta ezagumendu mugatuago eta zehatzagoak eskatzen dituzte. Espezialistak lanean nahiz jakitatean. Gizarte txirbildua eta adituen kastak, «teknokraziak». Berdintasunak, hortakoz, gure zibilizazio tankerak uzten ez duen helburua dirudi. Ezinezkoa dirudi gizabakoitzaren eta gizartearen, agintarien eta agindutakoen, zuzendutakoen, esku-lanaren eta buru-lanaren, premia-
ren eta oliguraren, nasaitasunaren eta enpeinuaren bikoiztasunak erremediatzea, gure zibilizazio guztia arriskuan jarri gabe. Askatasunean bertan ere duda egiten da. Denbora librearen eta askatasunaren beldurrez jende asko edonolako klub, ideologia, sekta, dogma edo «dibertsiotan» anparatzen da. Bere buruarekin bakarrik, nor bere aurrez aurre, egoteko beldur da agian gizona.

Gero, helburuotan amets egitera zeraman mentalidadea epel-epeldu eta hoztu egin da. Mentalidadea. Arrazoizkotasunean ez da gaur XVIII. edo XIX. mende-

etan bezain kartsuki sinesten. Hain unibertsaiki ere ez: izatekotan ere «arrazoimen instrumentalean» sinesten bait da. Ez eta zientziaren guztiahaltasunean ere. Eta progresoan ere ez. Funtsean, gaurko gizonak *ez du bere buruan* atzokoak bezain osoki eta lainoki *sinesten*.

Gizona eskeptiko bilakatu da bai bere buruaz eta bai sortu duen zibilizazioaz.

Beraz, iraultzazaleen proposamenduak berak, xede bezala, ez dira inorentzat larregizko problemarik: autojestioa, demokrazia direktoa, klaserik (eta inolako nagusikeriarik eta hierarkiarik) gabeko gizartea, etabar, edozeini iruditzen zaizkio asmo ederrak. Ederrak bai. Baina guzti hortan guti sinesten da. Zergatik?

Nik uste, berrehun edo hirurehun urtetako optimismoak gizona nekatu egin duela. Egungo gizona optimismoaz nekatur dagoela.

Izan ere, xede guzti horiek hiritar guztien eta ba-koitzaren izugarritzko enpeina eskatzen dute. Enpeina. Eta, zailago dirudiena, gizon guztien mugarik gabeko zintzotasuna. Gizatasun garbi orbangabekoa. Egitamuen erabateko aldakuntzak gizonaren beraren aldakuntza radikala eskatzen du. «Konbertsioa», nola bait. Eta halaxe da: benetan iraultzarik nahi dutenen esalege eta eskabide nagusi, gizonaren aldakuntza, kontzientzi aldakuntza, kultur iraultza, bihurtu da. Egitamuen berritasunak, gizon berririk gabe, ez duela asko balio ikusi bait da.

Haatik ere, «gizon berrian» sinestea ez da erraza.

Kontsumo zibilizazioaren martxak, asetasuna eta erosotasuna eskaini arren, eta —adibidez— parajeak eta bizitzaren ingurualdeak oro pozoindez, ez du gizona kontentatzen. Egia nabarmena da hori. Ez bait dut pentsarazi nahi, gaurko gizona bere egoerarekin gustora dagoenik.

Disgustora bizi da. Deskontent. Itxuraz behintzat, iraultzari ekiteko eta gizarteari zilipurdika eragiteko arrazoiak sobera lituzke. Eta, halere, bere egoerari

atxikirik dago, zibilizazioaren martxa hura arriskuan jartzeko gogorik ez du, esperimentu arriskutsuegirik ez du probatu nahi, ez da fidatzen gauzak hankaz gora jarri ondoren etor daitekeenaz, segurantzia galtzeko beldur da. Ez dago pozik zibilizazioaren martxarekin, baina ez luke inola martxa hura galdu nahi.

Egunotan ezker klasikoak, *ordenuaren eta progresearen* Alderdi itxurak jantzirik, tradizioaren kontserbadore leial ager litezke, exitorako bide errazenari loturik. Ongi hauteman dute jendeterietako Alderdi, masa Alderdi, bilakatzeko aukera hori. Prestijioa hortixe irabazi nahirik dabilta. Eta *egungo egunari egokitzen* saiatzen dira. Hots, etsipenari akomodatu zaizkio. Ezker klasikoek eskaintzen duten guztia, horregatik, gizarte hau bera hobeto antolatzea eta gidatzea da. Baina gizarte hauxe bera, beti ere. Aginpidearen plazerak gozatzeko bidean abiatu dira, eta «zuhurtasun» horrek aurki emango die bere pagamendu aberatsa, nik uste. Alabaina, ezker klasikoen aginpide eskuratzeko hau, egunetik egunera probableago dirudien hau, iraultzarik izango ote da?

Gazteriak behintzat beste radikaltasun bat nahi luke, eta *iraultza* hitza gazteriaren ahotan entzuten da gogorkienik eta sarrienik, eta seriozkienik esanda ere.

Honek ez du esan nahi gazteontzat ezker klasikoak eta edozein Alderdi liberal berdin denik. Baina bai, gazteen ustez guzti haiek *sistimaren barruan* mogitzen direla. Ez dutela *sistema aldatzeko* asmorik eta ez gaitasunik.

«Sistema aldatzea» slogan bat da. Esalege bat. Eta «iraultzaren guztizkotasuna», dena erabat aldatzea, «antikultura» bat sortzea, zibilizazio arras berri bat bururatzea, etc. adierazi nahi omen du.

Ikusten denez, ezker berri gazteok iraultza aurreko izpiritu sutsua agiri dute. Beste bezperako animazioa. Ezker klasikoen iraultza, aldiz, Iraultza Sobietarra izan bait da, ezkerrok dagoeneko Thermidoreko izpiritu apal

eta errealistak menderatu ditu. Festa ondoko izpirituak, biharamonak. Torrealdayren mintzaeraz mintzo naiz.

Egun iraultza aldarrikatuz dabilen gaztea ez da iraultza sobietarraz ari. Beste zerbait nahi du. Ezker klasikoak eredu sobietarrari atxikiegirik daudela, salatzen du. Produzioaren antolamendua aldatzea bakarrik pentsatzen dutelako, akusatzen ditu. Ezkertiar gazte onek, zenbait puntu interesgarri aurkitzen du klasikoen programetan: baina iraultza totalaren xedea falta dela akusatzen du. Horregatik, ezker klasiko guztiak erreformista iruditzen zaizkio: erreforma onuragarri batzuk egin ditzaketenak, baina iraultza totalik (hots, iraultzarik) ez. Gazteon ustez, erreforma batzuk egitea ez da nahikoa.

Zeharoko berritasuna behar omen da. Mundu guztiz berri bat.

Postura honekin, ezker berriok klasikoak baino askoz radikalagoak dira beren xede eta helburuen proposamenduetan. Radikalagoak eta zabalagoak, orobat, beren ahaleginak. Langileriaren Alderdi agertzea da klasikoon asmoa. Hor jokatzeko dute beren prestijioa. Noizean behin iraultza orokorraren proklamazioren batzuk egitea ere ez dute ahazten. Biltzarre Orokorrak ospatzen dituztenean eta. Baina horien ekintzak ongi erakusten du non jarri duten orpoa.

Beraz, ezker berri gazteen ustez, klasikoon baitan iraultzaren helburuak biziki murrizturik daude. Hain murrizturik, zeren bide hortatik iraultzarik ez bait omen da posible. Sobiet Batasuneko esperentziak erakutsi omen duen bezala. Helburuetako puntu bakandu batzuk bakarrik gordetzen ei dituzte. Punturen batzuetara mugatu gabe (eta puntu horien inportantziarik ez da ukatzen), ezker berriek iraultzaren helburuak beren osotasunean sostengatu nahi lituzkete.

Helburuen osotasunak kritikaren osotasuna eskatzen du. Adibide pare bat aipatzeko: ezkertiar klasiko guti ikusiko duzu, baina ezker berriko edozein gazte,

sexual hertsaduraz, emakumearen emanzipazioaz, haurren eskolatzen autoritarioaz, e.a. kezkatuak eta penaturik. Hirugarren Mundua, beltzak, eskualdeen abandonoa, minoria zapalduak, larderiako familia, kontsumo gizartea, erakunde makineria, kultura errepresibua, manaiaketa edo manipulazioa, e.a. sarriago aipatzen dira ezker berrien artean, ezen ez klasikoen ahotan. Ezker berrietan ere ez dira denak berdinak (batzuk ez dira ezker klasikoak bernizadura batzuen distirarekin besterik), baina, arrunki, ezker berri gazteok prest daude edozein gaitz salatzeko. Ez daude, ezker klasikoak bezala, gaitz partikular batzuetan «espezializaturik».

Ezker klasikoak esito politikoak lehenbailehen eskuratzera beharturik eta presaturik daude, guztiz gainbehera sartuko ez badira. Ez dago dudarik, premiak sarerrarazi dituela berehalaxeko esitoen bidetik, eta bide hortatik gero eta aguroago joango direla. Beti ezin irtenda zegoen ezker klasikoen goiz-eguzki harek, azkenean libre daduka zerua, «karrera egiteko».

Baina utz diezaiozun orain ezker klasikoari baktan. Haren kritika funtsean eginik dago, egindakoari jarraitzea askitsu da. Kritikak, bestalde, ez du haren goratzapena galeraziko.

Ezker berriak helburu radikalak eta erabateko kritika darabilzkiela, esan dut. Haatik ere, iraultzaren posibilidadea zinez agertarazteko ez da jadanik aski, langileen zapalketa, hirigintzaren desastrea, ekologiaren hondamendia, herri pobreak eta aberatsen kontradizioak, progreso teknikoaren burugabekeria, langile emigratioak (Algeria eta Marokotik nahiz Hegoaldeko Europatik Iparraldera), eta beste zernahi kalamidade salatzeko. Ez eta helburu dirdaitsuak proposatzeko ere.

Alde bateko kritika haien eta beste helburu haien artean lotura falta da, zeharoko hutsunea dago. Batetik besterako pausoa ez da ikusten, promesa hutsa da. Eta promesa horren errealismoa ilun dago. Dudarik gabe, hutsune hori ekintzak betetzeko da, ez

bestek. Ez inongo determinismok, eta ez inolako legek.

Ekintzari gogotik lotzeko, ordea, ez da aski helburu haiek eder izatea eta gustatzea. Haietan irmoki sinestu behar da. Eta nik ez dut uste gaur Israelen hainbeste fede dagoenik. Gaurko gizona, helburu haietan pentsatzen duelarik, eskeptiko gelditzen da. Lehengoko (XVIII. eta XIX. mendeetako) gizonak uste zuen, gogotik ekinez gero, asmo haiek eta helburu haiek obra eta eskura zitezkeela. Gaurkoak, ekin arren, helburu haiek eskuratzerik ez dagoela uste du.

Helburuetan dudatzen baldin bada, berriz, presupostuetan (arrazoizkotasunean, zientzien ahaltasuntan, gizonaren partean, e.a.) dudatzen delako da. Atzo arte guzti hori zegoen, hau da, mentalidade bat zegoen, hutsune haren gainean zubia egiteko: gizonak nor bere buruan, progresoan eta arrazoimenean sinesten zuen. Orain, ordea, ez. Gaitza da. Baina ez.

Ezker berriek ez dute erreformismoan gelditu nahi. Ederki. Beraz, galdutako optimismoa berbizten saiatzen dira. Oso ederki. Gizarte berriari iraultza berria zor zaiola, pentsatu dute. Eta iraultza berriak esperantza berria behar duela. Historian sekula egon diren utopia guztiak berbiztu dituela ezker berriak, esango nuke. Bloch batek filosofia guzti bat egin digu, *esperantzaz*, e.a.

Gure gizarte hau esperantza gutiko gizartea baldin bada, iraultzailearen bidea eta jokabidea ezin izan daiteke, iraultzari esperantza tipi horren neurri tipia ematea. Iraultzatxo batekin konformatzea.

Baina esperantza indartzea hain garrantzizkoa bada, zorakeria litzateke puntu hori benetan seriozki ez pentsatzea. Hemen ezker berrien etorkizuna jokoan jartzen duen puntu bat dago. Eta ez dut uste puntu hori, Euskal Herrian behintzat, nahiko serio hartzen denik. Egia esateko, «ezker berri» izeneko mogimendua- ren ahuleziarik txarrena hor nonbait dagoela iruditzen zait.

Ezker berriak darabilzkien giza-irudia, mundu ikus-
kera, gizonarekiko optimismo radikala (gizatasunari
nahiz gizonaren ahalmenei buruz) guztiz klasikoak di-
ra Ilustrazioaz gero. Baina honez gero bidezko ahal
irudipen eta optimismo haiekin segitzea?

Bide hortatik agian gazteria erraz samar irabaz dai-
teke. «Arrazoi biologikoa» deritzan hori ez bait da
funts gabekoa. Baina bide hortatik beti ere R. Aron
naiz Brexniev bezalakoen «errealismoarekin» mutur jo
beharko da. Agian horixe da inportantziarik gutien due-
na: «errealismoaren» alde eta kontra gauza asko esan
liteke. Alabaina, azken finean, gaurko mentalidade
guztiarekin eta zientzien gaurko orientazioarekin mu-
tur joka ibili behar bada, hori gaitzagoa da.

Ez du ezer balio, mentalidade hau desengainuak eta
etsipenak azpian harrapaturik dagoela esateak. Kon-
sumismoak alfertuta dagoela. Zientziak «pesimismo
burgesak» jota daudela, e.a. Agian, gure denbora ho-
nek, itxaropen zoro batzuk abandonatu dituelako ba-
karrik, dirudi etsitua. Esperantza ere ez bait da es-
perantza izateagatik bakarrik eta besterik gabe txalo-
garri. Marxez eta Freudez gero, gutien-gutienez, jakin
behar litzateke hori. Gure mendeak baino esperantza
handiagoak eta gehiago ukan dituzten garaiak ezagu-
tu izan badira, hori ez da derrigor gure denboraren
kontrako arrazoa. Zorakeriaren esperantzak ere ba-
daude.

Oker ez banago, iraultza (esperantza) krisian jar-
tzen duena, iraultzaren «problema teknikoa» da. Zer
itxaron genezake eta nola eskura genezake itxaron-
dakoa?, galdetzen da. Konforme, iraultzaren proieko-
toan lehen eperako xedeak (1) eta luzarorako helbu-
ruak (2) beti bereizi izan dira. Baina bigarrenontzat
errealismoaren galderarik ez zegoen, gaur dagoen be-
zala. Gaur, aldiz, errealismo falta horrek barka ezina
dirudi. Gero eta zailago da «guztiz» hitzegitea: iraul-
tza totalaz eta zeharoko berritasunaz, alegia. Arrazoi-
men absolutu batetan sinesten zenean, hori egin zite-

keen. Baina ez gaur. Izan ere, gaur ezertan sinesten bada «arrazoimen instrumentalean» sinesten da. Gure denborak arrazoizkotasunean fedea galdu duela, esan dut gorago. Esaldi horri zehazpen batzuk zor litzazkioke, eta hauxe lehen-lehenik: sinestu, lehenago bezalaxe sinesten dela gaur ere, baina arrazoimen instrumentalean gaur, eta arrazoimen absolutuan atzo.

Aro Modernuaren zenbait burutazio optimista errazkoi pikutara doala ematen du. Hala balitz, Aro Modernua pasa dela esan beharko litzateke ausaz. Beraz, Aro Modernuaren iraultzak ere bai. Hurrengo orrietan problema txit konplikatu honen aldetxo bat meditatzen da. Meditazioa hasten da. Etorriko dira, meditazio honi jarraitzapena emango diotenak, eta beste gai batzuetara hedatuko dutenak. Ez dio inporta, orrion kontra egiten badute.

Iraultzaren bide eta posibilitade guztiz errealista bat proposatu beharra dagoela iruditzen zait, jendeak oraindio iraultzen itxaropenik izango eta sinestuko badu.

Errealismoa aipatuz ez dut programa xehe-zehatzik edo iraultzaren horariorik eskatu nahi. Gaurko mentalidadeari eta zientziei egoki dakiela, esan nahi dut. Problema da, ea horrelako iraultza iraultzarik izan ote litekeen. Agian iraultzaren hasera besterik ez litzateke izango. Baina gauzak haseratik hasten dira, eta, uste dudanez, hasera berri baten premia dago.

Ez naiz ari esperantza berri baten inportantzia ukatzen. Guztiz alderantziz. Esperantza orain arte sostengatu zuen mentalidadea hil dela, edo hiltzera doala, uste dut. XX. mende guzti hau orain arte ez da agonia luze bat besterik izan. Lehenagoko —eta, ausaz, betidaniko— helburuak aldarrikatuz segitzen dugu. Baina denboren diferentzia ahazterik ez dadukagu. Helburu horiek momentu batetan besterik gabe eskuragarri ziruditen, mentalidade jakin bati eskerrak: baina mentalidade hura kaskailduta badago, zer? «Eztago ilhargia bethi bere betean». Ez dago noiznahi edozein es-

perantza edukitzerik. Ezin ahantz bait da egunotan, eta esperentziak eraginda, giza-irudi modernuaren anbiguidadea, larrugorrian agertu dela: izaki perfektoa batetik (arrazoimenaren jabe guttizko), baina bestetik erabateko iraultzaren bidez arras aldatu beharrezkoa.

Jakina, honez gero gutako edozeintsuk irribarre egiten du «hippismoa» iraultzagiletzat agertu nahi digutenean. Iraultzagileak haragi jaterik ez dadukala eta bejetariano izan behar duela entzuteak, barre eragiten digu. Gutako edozeintsuk irribarre egiten du, akordatzen denean, nola 20. urte sobietarretan guttiz seriozki proposatzen ziren familiaren behin betiko disoluzioa, eskola ororen desegipena, poesiaren eta filosofiaren bukaera, sentimendu indibidualen nahiz lan banakuntza ororen desagerpena, eta beste zorionak. Agian mundu guztiarentzat gobernu bat proklamatzeko duen ezkertiar berririk ez dago egun. Ez eta industria porrokatu eta mundu guztia atzera laborantza hutsera itzularazi nahi lukeenik ere. Estaduaren gobernu edozein etxekoandrek egin lezakeen gauza sinplea izango dela, agintzen zuen Leninek. Beharbada gaur ez genuke hainbeste optimismorik. Puntu horietan guztietan askoz «modernuago» pentsatzen da gaur. Baina problemaren muina ez dago hor. Puntu konkreturen batzutan. Mentalidade guztian dago. Ilustrazioari eragiten zion eta honek atzera bermatzen zuen mentalidadean.

Honela ikusita, ezker berriak bere barneenean kontserbadore dirudi. Honekin ez da ukatzen, oraingoz leku askotan eginkizun aurreragile eta aurrera arazle bat bete lezakeenik. Baina gizatasunaren eta munduaren irudipen anakroniko batzuetaz baliatzen den heinean, batez ere XVIII. eta XIX. mendeetako giza irudiarri eta historiaren filosofiari atxeki eta haiek derrigor salbatu nahi dituen neurrian, desfasaturik dago. Arago, pentsakera benetan modernu bat sortzeko eragozpen bat ere bada. Beren buruak progresistatzat hartzen dituzten gazteen eta «profeten» anakronismo tipikoa

besterik ez bada ere, seriotan hartu behar dela uste dut.

Bistan dago: ikuskera hau hartzen bada, kontserbadoreekin koinziditzen dela ematen du. Halere, ondorengo orrietako meditazioak erakus lezakeenez, arrisku hori geure gain hartu beste erremediorik ez dago. Bestela, kontserbadoreekin ez koinziditzeagatik, besterik ez eta iragandako mendeen kontserbadore hutsak izango ginateke.

Ezker berriak, XXI. mendean pentsatzen ari delarik, ez daduka XIX. mendeko mentalidadeaz baliatzerik. Ezker berriaren zeregina, benetan berri izateko, mentalidade berri baten osapena da. XIX. mendearen azpitik libratzea.

Hemen meditatuko dena puntu arin bat da: gizona izaki arrazoimendun omen delako postuladua ilustrazioko mendeek nola bururatzen zuten eta bururapen haiekin gaur zer pasatzen den. Gizona, nik uste, ez da arrazoimen bat gizonez edo gizadiz jantzita. Gizona, onenean ere, abere kultural bat besterik ez da. Lehen-lehenik, halere, abere bat, animalia bat.

Beste batzuentzat utziko dugu meditazio sakona goak egitea.

0.3.1. *Gizona abere bat da*

... baina ez du hori aitortu nahi:

Abere asko dabil lurraren gainean. Eta horietako bat gizona da: aberea eta abere-kumea bera.

Gizona ez da abere, haren aita eta ama «tximuak» zirelako bakarrik. Beti ere, gurasoei zaputuz egin eta gurasoak ahaztu arren, abere hutsetan gelditu da. Abere hutsa da, eta beste ezer ez.

Mitoak beti besterik sines arazi nahi izan dio gizonari. Besteak beste, iraultzaren mitoak ere bai. Eta erlijioak, filosofiak eta ideologiak eta, sarri, zientziak

ere, gizonak bere buruari besterik frogatzeko ahaleginak ziren. Beraz, gizona, abererik ez dela sinetsi nahi lukeen abere bat da.

Jakingarria da hori: zeren eta *abere izan nahi ez duen abere bakarra* gizonak bait dirudi. Ez dio asko inporta, gero, asmo horrekin, gezurrik eta ipuinik xelebreenak asmatzen baditu. Honek esan nahi du, beste abereetan ez den oinarriren bat badela gizona baitan, aberetasunari ezetz esaten enpeinatzeko. Eta agian horixe duzu abere honen lehenengo ezagugarria: ezetz esaten duen aberea izatea.

Hau da: bere naturari berari ezetz esan dion aberea izatea.

Dirudienez, ba, gizonari ez zaio aski, den aberea izatea. Eta, halere, den aberea besterik ez da: abere hutsa.

0.3.2. *Gizona abere bat da*

... eta batzutan aitortzen du hori:

Batzutan aitortzen du gizonak, aberea dela. Hots: besteei ohi deritzaie abere, ez nork berari. Gehiengotan aberetasuna negatibutzat joz. Askotan gizonak, elkar iraintzeko, abere gisa izendatzen dute bata bestea: zakur, asto, zerri, oilo, ziraun, otso, azeri, zozo, ontz mozolo, mando eta gainontzekoak aurpegiratzen dira gizonon artean. Ia beti jokabide moralen batzuen gaitzerizteko. Baina hizkuntza bakoitzeko abereen usadioa diferentea da. Herri bakoitzaren abereekiko sentiera diferentea nabari da hor, agian.

Esanahi «positibuan» ere sinbolizatzen dira gizonen batzu abere gisa, eta, hain zuzen, gizon aparten batzu: leoi eta arrano ohi deritzaien gizon bakanen batzuk badira, Napoleon eta bezalakoren batzuk alegia. Nazio bakoitzak bere Abere Handiak ditu. Ia Estadu guztiek abereren bat hartu dute harmarrian sinbolu na-

gusi antzean ere. Beharbada hortxe ikusten da, Estaduok ez direla ongi samar antolaturiko parke zoologi-koak besterik. Sinbolu abereon azterketa bat egin behar litzateke.

Aparteko gizonel abere ohi deritzaie, beraz: neurritik kanporakoak, gehienak baino hobeak nahiz txarragoak, abere izendatzen ditugu, beharbada besteok baino abereagotzat daduzkagulako.

Dirudienez, ba, gizonari ez zaio aski, den aberea izatea. Eta, halere, dena beste abererik ez da: eta abere aski da, — edozein ere.

0.3.3. *Gizona abere bat da*

... Gizona abere bat baldin bada, hola moduzko problemak sortzen zaizkigu, gonparazio baterako:

Tigre batek, denok uste dugunez, tigre batek bezala konportatu behar du. Eta gatu bat bezala konportatzen den tigrea lotsagarrikeria bat iruditzen zaigu. Tigrea tigre.

Baina tigreak, tigre bezala konportatzeko, tigre bitzaren kondizioetan bizi behar du. Parke zoologikoe-tako tigre horiek, ez ehizera joaterik dute, ez dute ezkontidea konkistatzerik, eta ez banbu artean jostatzerik. Kaiolako tigrea, Rilkek poesia hunkigarri bat eskainirik ere, penagarrikeria bat da. Tigre distigretua, alienatua.

Baina otzandu, eskuperatu, hezi, erakutsi eta gaituz eta trebatuz gero, supertigre bat lor daiteke. Zirkoan ikusten ditugun horietako tigre bat. Arte eta maina izugarriekin. Bizitza kondizio egokitan, heziketa zuzenez, ikusleak txundiarazten dituen supertigre bat lorzen da. Rubén Daríoren Bengalakoa baino askoz supertigreagoa.

Baina supertigrea, tigre baino piska bat gutiago eta piska bat gehiago den supertigre hori, azken fi-

nean tigre da: badaezpadare ez hatzamarrik muturrean sar, mantsoa delakoan. Tigrea beti ere tigre.

Eta gizona ere gizon. Kaiolan badago, gizon desgiondua. Zu eta ni bezala. Kondizio aproposetan, ongi hezirik, supergizon bat lor daitekeela uste da. Eta psikologia, pedagogia, soziologia nahiz politika, gizona hezi eta supergizontzeko ahaleginetan ari zaizkigu. Txalogarria horixe.

Baina gizona ere beti gizon: nahi badugu eta ez badugu, gizona abere bat da.

1. Kapituluia

1.1. Lorenz: Nobel saria

Haiek barreak egin genituenak, Konrad Lorenz austriarrari aurtengo midizina Nobel Saria eman ziotela irriatiak zabaldu zuenean! Egun batzuk lehenago, psikologi estudiante «ezkertiar» batzuekin elkarrizketan ari ginela, batek kasi irain bat bezala «lorenziano» deitzen zigun. Eskeptikoak ginelako, harek psikologiarena bezala agertzen zuen giza-kontzeptuari buruz. Lorenz genetista omen da, determinista. Pasea omen dago hori. Skinner da egiaren maisua.

Gure eztabaidak ulertzeko, eta Lorenzen esanahia eta Nobel Saria konprenitzeko batez ere, presupostu batzuk gogoan hartu beharra dago. Giza-jakintza modernu guztietan metoduaren problema oraindik aidean dagoela, batez ere, kontutan hartu beharra dago.

Ez dio inporta irakurleak oraindik Lorenz ezagutzen ez badu. Beharbada orain haren lanak gaztelarara itzuliko dira, balioagatik itzultzen ez den gauza asko itzultzen bait da sariagatik. Sariak komertzializatzen du jakitea. Eta irakurleak Autoreara bera (Konrad Lorenz) ezagutu ahal izango du. Nire partetik, inola ahal bada, K. Lorenz irakurri gabe ez uzteko gomendatuko nioke. Austriar zientifiko hau, jakintsuz beste, aparteko idazle xarmangarria eta apaina da. Eta irakurterraza da, natur-zientifikoak gutitan izaten diren bezala. Haren lumak Vienako grazia eta argia du.

K. Lorenzen zientzia zera da: animalien ohiturak estudiatzea. Orain franko modan dago hori, modak eskatzen dituen sinplifikazioekin zabaltzen bada ere. Telebistan bertan ere *show* antzean ematen dira horrelako ikuskizunak (intentzio politiko ilunen batzuen araberako atonduta, gainera). Espainolez *konduktismoa* esaten diotela, uste dut. Nik, noizpait, *portaera-teoria* esan izan dut.

Etologia esan dakiok, nahiago bada. Beste batzuek zoopsikologia esaten diote. Lorenzek zakurren, arrainen, eta batez ere antzarren ohiturak estudiatu ditu. Berrogei urte pazientziatsu eskaini dizkio estudio honi. Animalien gauzak beti dira guztiz interesgarri eta jakingarri, eta irakurleak K. Lorenzen izkribuetan mila bitxitasun eta edertasun aurkituko du, mila historia zoragarri eta maitagarri. Denbora-pasa irakurtzeko ere, nekez aurki daiteke irakurgai atseginagorik. Animaliak maite dituenak, ordu zoragarriak pasako ditu. Eta maite ez dituenak, haiek maitatzen ikasiko du. Eta animaliak maite ez dituen gizonak ez du gizona maite.

Alabaina, Lorenzek ez du Nobel Saria bere liburu politengatik irabazi. Haren estudioek giza-midizinara¹

ko duten inportantziak oinarritzen zuela Sari-ohorape-na, jakinerazi zuen Akademia sari-emaileak.

Lorenzek merezimendu handiak izango ditu midizi-nan, psikologian, eta nahi den beste guztitan ere. Bai-na niri momentu honetan beste alde batetatik irudi-tzen zait batez ere gogoangarri: giza-zientzietan izan dezakeen eta jadanik baduen eragipenagatik. Azal de-zadan hau. Bi zatitan egingo dut.

Hona lehenengoa: zientziek gero eta espezializazio gehiago eskatzen dute. Espezializazioak horizonte ge-ro eta hestuagotan hersten du, eta aislatzen, bere ere-mua. Gero eta metodu eskusibuagoak lantzen ditu. Eta, zientzia diren aldetik, beren eremuko gaiei *espli-kazio total* edo osoa ematen saiatzen dira espezializa-zio guztiak eta bakoitza. Ondorioa zera da: fenomenu bat eta berak *esplikazio total* guztiz diferenteak aur-kitzen dituela. Sentimendu bizitza azterkatzen dutela-rik, esate baterako, soziologoa, psikoanalitikoa, eto-logoa, genetista, neurofisiologoa, etab. *esplikazio total* (totalidade partzialeko) guztiz ezberdinetara ailega-tzen zaizkigu. Eta espezialistak, bere ikusgunea alder-dikorra eta partziala dela jakinda ere, bere ikusgunea-ren poderioan juzgatu ohi du. Espezialidade bakoitzak gizonaren kontzetu bati obeditzen dio, eta gizonaren kontzetu bat sortzen du. Gizona gauza diferente hanitz da, hortakoz.

Adaska batetako espezialistari askotan beste adas-karen baten emaitzak hutsalak iruditzen zaizkio. Eta jendeari adaska batzuk besteak baino inportanteago iruditzen zaizkio. Subnormalak estudiatu nahiko bage-nitu, esaterako, lehen-lehenengo bururatuko litzaigu-keena, seguru asko, azterketa soziologiko bat egitea izango litzateke. Orain dena soziologikoki ikusi beha-rra modan bait dago. Eta gure artean soziologiak go-zatzen duen prestijioarekin, dudarik gabe dena espli-katurik gelditzen dela irudituko litzaiguke, kondizio-namendu sozial triste samarrak konstatatu ahal izan orduko. Ez litzaiguke burutik pasa ere egingo, kondi-

ziamendu horien eta subnormalidadearen arteko lotura erakutsi egin behar dela, ez suposatu bakarrik. Eta kondizionamendu batzuk aipatuz oraindik ez dela loturarik eta kausarik inon erakutsi. (Honelakoxe literatur-soziologia egiten da gure artean, halaber). Rof Carballo-ren *Biología y Psicoanálisis* liburu guztiz irakurgarrian, halere, beste eritzi hau ematen da:

En un plano social, el estudio minucioso de las familias de enfermos psicóticos sólo descubre cosas triviales: hogares rotos, madres sobreprotectoras o muy dominantes, en parte débiles, en parte pasivas.

Cosas triviales, beraz. Honek psikotikoetatik kanpora ere berdintsu balio lezake.

Gizonaren kontzetu guztiz desberdinak darabilzkite espezializazio diferenteek. Gizonaren kontzetu zinez oso eta bateratu samarrik lortzekotan, ba, premiazkoa da diziplinen arteko elkarlana: inbestigazio interdiziplinarioa. Zorakeria da, soziologiarekin, edo psikologiarekin, edo ez dakit zerekin, mundu guztia definitibuki esplikatuta edukitzea.

Lorenzek, abereen estudioaz, diziplinarik diferenteenak lotu ditu azterketa konkretu batetan. Eta diziplinarik diferenteenei interesatzen zaizkien emariak eta hipotesiak lortu ditu. Hori da lehenengoa. Beste pundua honekin batera dago.

* * *

Lorenzen lanetan ohargarria iruditzen zaidan bigarren puntua azaltzeko, esplikazio abstraktu samar batzuk aurretik bidali beharra dago. Baina ez kuidadurik ukan: azkeneko egunoroko problemetara ailegatuko gara. Pazientzia piska bat bakarrik eskatzen dizut. Funtsean hauxe da: gizonok animalia hutsak garela.

Baina gauza guztiz simple hori konprenitzeko zientzia asko batera ezezik, zientzia berriak behar ditugula.

Lorenzen abere estudioetan diziplina edo espezialidade ezberdinak elkarlan interdiziplinarioan ari direla esaten bada, ez da pentsatu behar, diziplinok berez aparte eta bakoitza beti bere aldetik ari direnik: gaian koinzidituz, gai bat-bera ikusgune eta ikuspide diferentez atzemanek. Arte-kritiko batek eta arte-tratante batek ikuspegi guztiz ezberdinez pintura bat bera juzgatuko balute bezala. Gauza bera, baina bakoitzak arras bere modura ikuskatuz, eta besteari jaramonik egin gabe.

Ez: hori baino gehiago ere bada. Espezialidade berriren batzuk, lehenagoko espezializazioen batzuk elkar-jotzen zuten muga-tarteetan sortu dira. Izan ere, problemen batzuk espezializazio diferenteen arteko mugetan daude. Espezializazio haien konbinazio edo *hibridazio* bezala sortu dira espezialidade berriok, hain zuzen (Piaget: *branches nouvelles de nature essentiellement interdisciplinaires*): halakoak ditugu, adibidez, psikolinguistika, soziolinguistika, sozial-psikologia, etabar. Berdin biokimia eta beste. Horrelako zerbait zen W. Reichen *freudo marxismoa ere*: Freuden eta Marxen baterapena.

Eta halakoxe jardupide batetan oinarritzen dira Lorenzen abere azterketak ere.

Gaur egun dio Piaget-ek (3)— etologia edo zoopsikologia psikologoek eskutan aina eta gehiago zoologista profesionalen eskutan dago, eta ez dago dudarik, biologia aberasten duela (batez ere selekzio teoriar, aberak bere inguramena nola hautatzen eta moldatzen duen eta honek animalia bera nola kondizionatzen duen erakutsiz), eta eraberean psikologiari ekarri paregabeko eta premiazkoak dakarkiola, ezagupide-funtzioen

(3) *Epistémologie des sciences de l'homme*, 1970.

azterketaren aldetik batez ere (instinto edo senak, ikaspena eta adimena).

Lorenzek animalietan estudiatzen duenak ez du inportantzia gutiago soziologiarentzat edo pedagogiarentzat. Eta guzti honek, lehenengotik zientifikoen gorabehera hutsa badirudi ere, badu inportantziarik «kalerako» eta erizpide praktikoetarako.

Izan ere, gure burutapide gehienak, pedagogian eta asmo politikoetan beretan ere, dualismo faltso baten ikuspidean oinarritzen dira. Hona nola:

Garai batetan garbi-garbi eta zehatz bereizten ziren natur-jakintzak eta giza-jakintzak. Jeneralean bi sailok elkarrekin zerikusirik gabekotzat hartzen ziren. Eta elkarri kontrajartzen ziren. Zientifikotasunaren edo zehaztasun garbiaren eredu, beti ere, natur-jakintzek ziruditen. Eta giza-jakintzak haiei imitatzen saiatzen ziren.

Zientzia garbia Le Verrier-en idorokundeak errebelatzen zuen, metodu zientifiko garbiaren bila zebiltzenen ustetan. Le Verrier-ek, izan ere, karkuru hutsten bidez, Neptuno planetak esistitu beharra zedukala erakutsi zuen, eta Neptunok non egon behar zuen karkuratu zuen, oraindik Neptuno inork ezagutzen ez zuen garaian. Eta urte batzuk geroago, Le Verrier-ek igarri bezalaxe, Neptuno aurkitu zen. *Hau da metodu zehaztun zientzia bat!*, esaten zen.

Baina gizonaren etorkizuna hain seguru karkuratzerik ez bait dago, gizonarentzat halako metodurik ezin egon litekeela pentsatzen zen. Eta, nolana ere, natura eta gizona bi eremu arras diferentetzat jotzen ziren. Bi eremuok azterkatzeko metodu arras desberdinez baliatu beharra zegoela, uste zen, beraz.

Geroago, eta joera berdinean, giza-jakintzetan ere metodu zehatz eta enpirikoak erabil zitezkeela ikusi zenean, gizonaren estudioa giza-jakintzetan eta gizarte-jakintzetan berezi zen. Giza-jakintzek natura bezala estudiatzen zuten gizona; gizarte-jakintzek izaki sozial

bezala. Beti ere bi eremuak zorrozki ebakiz eta bereztuz.

Eta oraindik ere alde batetik *giza natura* unibertsa-la gizon guztientzat eta edozein aro historikotan berdina, eta bestetik inguramen sozialak moldaturiko izaki berezia, elkarrengandik aparte kontsideratzen dira. Biologo batek, oraindik harriaroan bizi den gizon primitibu baten artean eta New Yorken bizi den gizon superzibilizatu baten artean, ia ez du diferentziarik aurkitzen. Eta soziologo batek, ia ez du antzik batere ikusten haietxen bien artean.

Gizona bi maila guztiz ezberdin hauetan bereztea: natura eta kulturatan ebakitzea, bururik gehienetan oraindik superatu ez den ikuskera bait da. Alde batetik irudimena, adimena, nahimena, gizonaren ekintza; bestetik natura, determinismoa, heredentzia, *kostituzioa*. Alde batetik finkaturik dagoen abere-espezie bat, gizona, aldatzen ez dena; bestetik etengabe aldatuz doan historia, beti berdina dagoen gizonak eginda.

Baina ez da egia, gizonaren kostituzioak historiarekin zerikusirik ez duenik. Ez eta historiak gizonaren kostituzioarekin zerikusirik ez duenik ere. Ezin esan liteke, bion batasuna argiturik dagoenik. Baina bai, honetaz eduki izan diren irudipen dualistak lurreratu direla.

Irakurleak igarriko zion bezala, zera esan nahi dut. Alde batetik *naturalistak* daduzkagu: gizona beti gizon izan da, esaten digute, beti berdina, eta ez da aldatuko. Alproja bat da gizona, erkina, petral, zimur, lukur, bekaizti, alfer, doilor, zirtzil, larderikoi, liskarti, narratsa. *Gizon berriaren* predikuak zorakeriak dira. Gizonaren *natura* aldatzerik ez dago. Eta beste aldetik *izpiritualistak* dabilzkigu: diren eta ez diren gaitz guztiak kultur moldeetan, klase banakuntzan, familiako errepresioan, tabuetan, erlijioan, aurkitzen dituztenak. Horiek guztiak naturalak ez baina, zuzen-zuzen antinaturalak balira bezala, eta kasualidade hutsez sortuak balira bezala, tratatzen dituztenak. Eta horiek supera-

tuz gero, gizarte-egitura eta kultura berriak eraikiz gero gizonaren zorigaitz guztiak bat-batean erremediaturik baleude bezala. Gizonaren *natura* eraskin *anti-natural* orotatik garbituz gero izpiritu garbi eta noblea balitz bezala.

Eta guztiz bitxiki, bere buruak materialista aitortu ohi dituztexenak dira hain zuzen *izpiritualistak*, eta kultur tradizio guztiak onartzeko pronto daudenak dira *naturalistenak*! Ez batzuk eta ez besteak oinarritzen bait dira zientzietan, eta bai mito zaharretan.

1.2. Natura ala historia?

Esate baterako, pedagogo batzuek egiten duten inpresioa zera da: haurrak berek eskatzen duten moduan heziz gero, gizakume arras diferente eta berriak lortu ahal izango liratekeela. Berdin kultur-teorikoren batzuen teoriak ikusiz: kultura guztiz berri bat sortzeko eragozpen bakarrak orain arteko kulturen bertan daudela dirudi, eta bat bakarrik ere ez gure baitan eta geure eskasietan. Kultura hori klasista delako, edo zernahi delako. Gizonak, beste kondizio sozial batzutan, zeharo bestelako kultura sor lezakeela, ematen du. Iraultzagile batzuei entzunez ere, badirudi, haien asmoak konplutuz gero sortuko litzatekeen gizonak oraingo gizonaren antzik ere ez lukeela izango. Sekulako dohainak izango litzuzke, dirudienez, *gizon berri* harek, eta inolako ajerik ez!

Beraz, horiei sinestekotan, gizonaren esku dagoela, ematen du, bere buruaren kreaioa.

Iraultzagileak ez dira uste honetako bakarrak. Behin berriro ere, bi bidetatik mogitzen dira gizon berriaren utopiok: utopia *naturalistek*, gure gustoko gizon berri hura laboratorioan sortzen dute, teknika bidezko programazio genetiko baten bidez, hala Huxley. Utopia

izpiritualistek edo sozialek, gizonaren ekintzatik, *iraultzatik*, itxaron dute berrikuntza radikal hura. Hemen ere nabari dago giza-jakintzen eta gizarte-jakintzen arteko diferentzia, eta biotatik sortzen diren irudipenen ezberdintasuna.

Sozial-iraultzagile modernuak, esan bezala, joera *izpiritualistakoak* ditugu. Marxek uste zuenez, adibidez, gizona oraindik ez da gizon izatera ailegatu, eta historia ere oraindik ez da egiazko historiarik. Prehistorian bakarrik gaude. Espezie zoologiko bezala, bistan dago, gizona kostituiturik dagoela. Astoak eta zeriak bezalaxe. Baina izpirituaren aldetik oraindik norbera izateratu gabe dagoela esaten bada, *gizonaren izpiritu* bezala animalia humano haren gaurkoa ez bezalako izpirituren bat bururatzen delako da. Trotzki-ren amets utopikoa ezaguna da: iraultza mundialaren ondoren edozein gizonek Aristoteleren, Goetheren edo Marxen adimena izango omen du.

Izpiritua eta materia, historia eta natura, nolabait bateratzen, joera biak saiatzen dira. (Baina biak hain aparte jarriz hasten dira, ze gero oso bitxiki baiziki ezin bait dituzte elkartu). Hain zuzen baterapen horixe bilatzen dute batak zein besteak. Alabaina, utopia naturalistek uste dutenez, aski litzateke naturaren gain eragitea, natura izpiritua (historia, kultura) arras aldarazteko. Eta izpiritualistek uste dutenez, izpiritua libre eta bere buruaren jabe bihurtuz gero, honen ekintzak natura bera ere berarekin batera aldaraziko luke.

Trotzki-ren ustez, iraultza osteko gizonaren gorpuzkera gurea baino egokiagoa eta neurrizkoagoa izanen da, haren mogimenduak gozagoak, haren abotsa ozenagoa eta eztiagoa, haren eite guztia gogorragoa, zaluagoa eta askoz ere finagoa. Kirillov proletkulturalistaren ustez, iraultza ostean edozein neska Miloko Venus baino ederragoa izanen da. Fourier-en ustez, iraultza ondoko bake unibertsean, abereen artean bertan ere ez da inolako etsaigorik egongo, beraz abere haragi-jalerik ezin egongo da, eta denak belar-jaleak iza-

nen dira; eta, beraz, barruti zoologikoa zeharo berri-tuko da, sortuko diren abere mota berriekin.

Ahaztu egin nahi da, nonbait, animaliak garela. Eta ezin ahaztu bada, errazena animaliak idealizatzea eta ederrestea da.

Imajinazio konkretu hauek gaur irribarre eragiten digute. Eta ez dira irudipen konkretu horiek berak interesik gehiena merezi dutenak: orduko eritziekin agian horrek denak ez zirudien *science-fiction* guztiz itxuragabea. Gaur zerbait gehiago dakigu ezpezieen eboluzioaz eta eboluzionatu ezinaz. Eta, beraz, erraza bezain alferrikakoa litzateke, utopia horiek errefuta-tzen ibiltzea.

Benetan interesgarria, alderantziz, zera litzateke: irudipen horien barnean sumatzen den naturaren eta historiaren arteko loturak bururatzeko modua. Hemen, gizonaren nahimenak eta ekintzak, ondorio bezala, natura aldarazten dute. Izadia haien mendean dago, norbere gorpuzkera bera ere. Organismoak edo ontogene-siak, animalien ume izateak, gizonaren nahimena eta adimena nolabait mugatzen, lotzen, taxutzen, kondizio-natzen, ez ote dituen galdetu ere ez da egiten.

Eta egiazki bitxi-bitxia da, nolatan materialista ko-mentzituok hain zuzen materia, azken finean, zeharo izpituaren eskutan jartzen duten...

Nola gertatu da bihurrera hori, gero? Garbi dago: boluntarismoa izugarri eta itsu-itsu aldebakarki azpi-markatuz. Ekintzaren premia guztiaren gainetik mar-katuz, ekintzara bultzatu nahiz, ekintza etengabe pre-dikatuz, ekintzaren balioa eta inportantzia puztuz eta hanpatuz, azkenerako ekintza edozeren eta denaren iturburu eta esplikazio bihurtu da. Ekintzaren ahalta-sunek mugarik ez zutela sinestarazi da. Objektibu eta zientifiko izan nahi zuen pentsaera, sujetibismorik ga-lantenean erori da. Konprenitzen da, ba, Althusser-ek marxismoa *praksi-filosofia* bihurtzearen aurka irten badu: *Le marxisme n'est pas une nouvelle philosophie de la praxis!*

Halere, uste dut ez dagoela sarri esaten aritu beharrik, gure artean ezker iraultzazaleari oraindik bere burua ikusmolde boluntarista horietatik askatzeko asko falta zaiola ikusteko. Merezki luke, boluntarismo horren azterketa zehatzagoa egiteak. Baina ez naiz hortan sartuko. Halere, gure ezkerren gaurko gaitzik kaltegarrienetako iruditzen zaidala ez dut ukatuko.

1.3. Natura eta kultura

Aitzinateak bi ikuspideak zituen: alde batetik, goitik zintzilik ikusten zen gizona. Lurrean bizi zen, baina hari batetatik zintzilik zebilen, Moiraren ala Probidentziaren eskutan. Gizonaren «egiazko bizitza» naturatik kanpora gertatzen zen. Beste aldetik, naturaren zati bezala ere ikusten zen gizona (Estoan batez ere). Herrialde diferenteetan alde bata ala bestea lantzenago eta azpimarkatzenago zen.

Erdi Aroak bere sintesia lortu zuen: gizonok, garen bezalakoak bagara, Jainkoak hala nahirik naturak halakoxeak egin gaituelako da. Gizarte egiturak, hierarkiak, Erregeak, morroinak eta esklabuak, naturak egin ditu. Uste zenez, gizonaren naturari zegokion errebelazioaren premia, salbazio beharra, Elizaren gidaritza, estatu sozialak, etab.

XVII. mendeak arrazoina deklaratu du egiazko argi natural. Arrazoimenak gobernatzen du natura, eta giza naturaren definizioan erdigunea arrazoimena da: natura arrazoizkoa da, eta gizonaren natura arrazoizko izatea da.

Alabaina Pop-ek *Essay on man* (1773) gogoetetan adierazten duenez: «Two principles in human nature reign / Self-love to urge and reason to restrain». Alegia, arrazoimen kontenplatibua, matematikoa, krisian sartu da. (XVII.a zientzia matematikoen mendea da;

XVIII.a, aldiz, experimentalena). Rousseau-k *Discours sur l'origine* izkribuan dioenez:

Naturak osasuntsu izateko egin baldin bagaitu, gogoe-tan jardutea antinaturala dela, esango nuke ia-ia («un état contre nature») eta meditazioan aritzen den gizona abere endakatu bat dela («un animal dépravé»).

Hots, jadanik naturaren izenean arrazoimena ukatzen dela dirudi. Torrealdayk, ordea, *Iraultzaz* liburu paregabean (or. 110), «Argien mendea Arrazoimenaren mendea da», esaten digu. Eta: «Arrazoimenari, eta berari bakarrik, eskatuko zaio zibilizazio berriaren zimentarri definitibuak ezartzea». Zertan gara, ba? Guztiz zuzen dabil Torrealday. Diderot-en *Rêve de d'Alembert*-en Rousseau-ren ideiak berraurkitzen dira:

Ez dago gauza naturaren kontrarioagorik, idazten du Diderot-ek, ohiturazko meditazioa eta jakintsuaren bizimoldea baino. Gizon naturala, guti pentsatzeko eta asko aritzeko (ekiteko) egina da. Zientziak, aldiz, asko pentsatzen du eta guti mogitzen.

Argi dago: guti mogitzen den arrazoimen konten-platibua ezesten da; ekintza, praktsia, baitesten delarik, arrazoimenaren (arrazoimen naturalaren) bururazio dinamiko bat hobesten da. Hau da, ekintzale politikoaren ideala «naturalizatzen» da, hau zientifikoaren kontrastean ezarriz.

Ilustrazioak burutzen duen naturaren eta kulturaren arteko sintesiak egunotara arte agintzen du. Beraz, puntu honetara berriro itzuli beharko dugu. Oraingoan, Piaget-en pasarte bat aldatuko dut, engainurik alferrik sor ez dadin: Rousseau-k — «Imagine le "bon sauvage" comme un individu antérieur à toute société mais en lui prêtant, sans s'en rendre compte, tous les caractères de moralité, de rationalité, et même de dé-

duction juridique que la sociologie nous apprend être les produits de la vie collective. Ce bon sauvage est même le produit d'une imagination si peu décentrée qu'il ressemble étonnamment à J.-J. Rousseau lui-même, inventant le *Contrat social*» (4).

Jarrai dezagun:

— Rousseau aurretik hau zen funtsean pentsaera nagusia: gauzak *ondo* daude dauden bezala, naturak (edo Jainkoak) halakoxeak egin bait ditu (edo gaitu).

— Rousseau-z gero, aldiz, eredu diferenteak aurkitzen dira:

A) 1. gauzak *gaizki* daude dauden bezala, naturak bestelakoak nahi bait gaitu.

2. Hondatzen gaituena *kultura* da, eta jabegoa da gaitz guztien iturturea (Rousseau).

B) 1. (Berdin gelditzen da).

2. Hondatzen gaituena *klaseak* dira, eta produzio tresneriaren jabegoa da gaitz guztien iturburua (Marx).

D) 1. (Berdin gelditzen da).

2. Hondatzen gaituena *sexualidade erreprimatua* da (Freud).

Hau ohargarria da: bigarren puntua desarroilatuz, osatuz, xehatuz eta zehatzuz doan artean, lehenengo puntuko postuladuak tinko irauten duela, inork hauziperatu gabe. Aro Modernuaren postuladu arrunt eta dudatu gabekoa da.

Gaur, aldiz, honez gero postuladu huraxe dago haizipean. Aro Modernuaren oinarrizko oinarri bat krisian erori da. Izan ere: zergatik demonio egon behar dute, dauden gauzok, gaizki?

* * *

Zer da *natural*? Bistan dago, Aro bakoitzak bere erara entenitu dituela naturaltasuna eta antinaturaltasuna. Kasi gizon bakoitzak egiten du hori: nork bere ohiturak eta prejuizioak *naturaltzat* hartzen ditu, besteak bitxitzat edo *antinaturaltzat*. Borobil-borobilki konplitzen da esaera: «buru hainbat aburu», hau da, buru hainbat natura. Batzuen monogamia iruditzen zaie gauza *natural* bakarra, eta besteren batzuen amodio librea.

Hori ohartu dugularik, laster bilatu diegu geure buruoi anparoa. Zer den natural definitu beharrik ez ukaiteko, dena kultural deklaratu dugu: gizonaren munduan ez dago ezer naturalik, dena kultural da.

Eta bistan dago, aurrerapen bat zela, naturaltasunaren arloa baztertze hau. Izan ere, bestela, bakoitzak nork berea naturaltzat zuen artean, besteak diskriminatuz bukatzen zen. Europarrok sarri hartu ditugu geure buruok natural bakartzat. Eta ongi da, azkenean besterik konprenitu badugu.

Zientziak —etnologiak batez ere— asko lagundu zuen ikuspide aldakuntza honetarako. Ruth Benedict-en *patterns of Culture* liburu klasiko bat bilakatu da: kulturaren arabera *natura* guztiz ezberdinak daudela onartu behar izan dugu. Poligamia *antinaturala* denik esaten nekez ausartuko litzateke gaur poligamiaren kontrariorik gogorrena ere. Herriren batzuetan emakumeek goldatzen dute soroa, emakumeek bakarrik «bitzita sort eta haziaraz» omen bait lezaketek. Herriren batzuetan *naturak* zaharrak agintari izatea eskatzen du. Herriren batzuetako ahaidetasun *naturak* haurrak amaren ahaide egiten ditu, baina ez aitarenak: aita beraren bi ama ezberdinetatik ume bi ez dira senide. Eta sexuen arteko diferentzia *naturala* gehien-gehienbat diferentzia kultural hutsa dela, pentsatzen da Margaret Mead-en *Sex an Temperament* beste liburu klasikoaz gero.

Baina ez da hori bakarrik. *Naturaren* ikuskera zahar harek, European batik bat, aspaldi hartu zuen buelta.

Ez da egia, gauzei *naturaltasunaren* neurria hartzea baztertu duguna. Zientzietan halaxe da apika (ez beti!) baina ez mentalidade korrientean:

Zehazki begizatzen badugu, laster hautemango dugu, gaur, bere burua ezertan dadukanak, Europako kultura funtsean *antinaturaltzat* dadukala. Amazonetako, New Gineako edo ez dakit nongo primitibuen erromanizismo ergel bat garai dago: haiek bai direla *natural*, haiek!

Eta honek esan nahi du, *naturalismo* erromantiko berri baten aurrean gaudela. Beraz, berriz ere Nietzsche edo Rousseau-ren altura bajuan gabiltzela. Izan ere, naturaren bururapen hori mitoak dakarkiguna bait da, eta ez zientziak bururazten duena.

Naturalismo berri honek inspiratu ditu mende honetako mogimendu sozial-kritiko denak. *Emanzipazioak* batez ere. Ibsen hasi zen, ezkontza dudan jarriz. Gero, emakumeen emanzipazio-mogimendua etorri da, etab. Ezkontza, emakumearen lekua gizartean, etab. komenzio *antinatural* juzgatzen dira. Honez gero, inork ez daki zenbat gauza emanzipatu beharra dagoen: haurretatik amona eta aitonenganaino. Puntu honetara berriz itzuliko gara Dretxo Naturalaz mintzatzerakoan.

Gutziz bitxiki, *naturalismo* berri hau txit eragikorra da protesta-mogimenduetan; baina ia eragipenik batre ez du gobernukera berrien edo gizarte antolaketa politiko berrien bururapenetan... Naturaltasun horren posibilitade errealistetan ez da, agian, gehiegi sinesen.

Haatik ere, egiazko problemak berriz ere aidean gelditzen dira: zer da, gero, *natural*? Orain artean behintzat naturaltasunaren kontzeptua ez zen (aldian aldiko gusto eta asmoen) proiektio kultural bat besterik. Ez bait zegoen lagun zezakeen zientziarik. Gaur, aldiz, zientzia hori badago. Eta, areago: zergatik postulatzen da, inolako zalantzarik gabe, maitasunak, etab. —gizonon bizitzak eta gure arteko harremanak, arrun-ki— *natural* izan behar dutela? Funtsezko argitasun

falta honek edozein aldetarako desarroiloak permititzen ditu. Azken finean *prejudizio humanista* batzuen kontua da: zientzian oinarritu ez baino zientziak beren asmoetarako aprobe txatu egiten dituzten *prejudizio* batzuen hain zuzen.

Joera «antezientifiko» nagusi bi sumatzen ditugu. Biek daduzkate beren *zientziak*, hauzilariek beren abogaduak izaten dituzten bezala.

* * *

Ez da harritzekoa, zientziekin batera, gizartearekiko ikuspideak ere bi joera kontrariotatik desarroilatu badira. Edo eta, agian hobeki: ikuspideak zientzietan beren gonfirmazioa bilatzen badute.

Alde batetik, Darwinez gero, gizona abere dela berraurkitu dugu, eta abere bezala ikusten ikasi dugu. Eta gizonaren zientzia naturalei eskerrak, gero eta gehiago ikasten dugu. Gizonaren aberetasuna berraurkitzen ari gara. Hierarkia soziala, autoridadea, lurralde baten jabegoa, bizitza sozialerako arauak, harraren eta emearen portaera sozial ezberdinak, etabar, gizonaren historiako datu kulturalak ez-ezik, animalien erreinuan ere kausitzen diren fenomenuak direla, aurkitu da. Joera honetatik batzuek gizonaren berezitasuna, kultura, abereen bizimodutik doi-doi bereizteraino ailegatu dira.

Beste aldetik, soziologiak, etnologiak etabar, kulturaren sorreran kondizionamendu sozialek eta ekonomikoek duten eskuarte argitu digute. Eta, batzuk, *gizonaren naturarik* ez balego bezala mintzo ohi zaizkigu. Kulturaren egiazko kausa eta iturburu bakarrak kondizio sozial haiek bakarrik balira bezala. Eta beste ezer haintzakotzat hartu beharrik ez balego bezala. Eta bide honetatik ere zientziek zenbat idorokunde egin duten gogoan hartuz, ez da batere mirestekoa joera honen indarra. Ez eta batzuk, beren bururapenetan, *natu-*

raz doi-doi akordatzea ere, dena sozialki eta historikoki esplikatzen dutelarik.

Izan ere, egunoro ikusten dugunez, gizonari natura gero eta urrutiago gelditzen zaio. Ez inguruneko natura bakarrik. Bere baitakoa ere bai. Zereginik *naturale-nak* berak gizona baitan nola agiri zaizkigun ikusi besterik ez dago: gizona jantzi egiten da, ez dabil biluzik; etxe eta hirietan bizi da; lanabesez baliatzen da lanerako; ohean egiten du lo; jateko, labana eta tene-dorea behar ditu; basoa, edateko; akto sexuala egiteko postura natural batik ere ez daduka, edozein animaliak dadukan bezala. (Hori ere kulturarekin batera aldatzen da, eta kultura batetan *antinatural* zirudiena beste batetan zeharo *natural* agertzen da); maternidadean jaiotzen da eta botikaz enpatxatuta hiltzen da. Gizonaren eta gizartearen bizitza azterkatzen dugularik, hortakoz, *naturak* zerikusirik ez duela ematen du. Denak eta edozerk produkto kultural, kondizionatu eta aldakor hutsa dirudi.

Honela, zientziak berak bi mentalidade kontrario alimentatzen eta indartzen ari dira.

Esplikabide sozialak arrakasta gehiago du oraindik jendearen artean. Alde batetik, sinplifikatzeko errazagoa delako: sinplifikaziorik gabe ez bait dago zientzien zabalkunderik. Eta, bestetik, gizonaren ilusiorik sakenak errespetatzen dituelako: gizonarentzat eraman-garriago bait da, alienaturik dagoela onartzea, abere huts bat eta mekanismo organiko soil bat besterik ez dela onartzea baino. Eta gizona izaki triste bat bezala agiri bada, gustorago eta errazago sinesten dugu kondizio sozialek eta goikoen zapalketak bihurtu gaituztela horrelako, geurez horixe besterik ez garelako baino. Esplikabide sozialek, batez ere, ez digute hauzipean jartzen gure funtsezko askatasunaren, kreatibidadearen eta ahalmenen fedea. Eta gizonak fede hori galdu baino nahiago luke, bere burua engainatu: guztiaren gainetik, gizonak *izpiritu* deritza bere buruari, erizke-

ra honi oinarri *materialistak* ematen enplegatzen de-
nean ere.

Arrunki esateko, bai ezker klasikoak eta bai be-
rriak, esplikabide sozialaren aldetik dabilzela ikusten
da. Batez ere marxista deiturako ezkerak. Marxismoa
psikoanalasiaren garrantziaz beranduegi ohartu zen be-
zala, beranduegi ohartuko ote da beste zientzion ga-
rrantziaz ere? Badirudi, Engelsez gero, marxismoa gi-
zonaren zientziei atzetik segitu ezinda dabilela.

Halere, Marx gaztearen pasarte batek zientzia
haien axola gehiago eskatuko liguke:

bestalde, *nere gurariz determinatua, bortxatua* naizenez
gero, *gurari eta oldar* [impulso] *sorta den neure na-*
tura horixe da behartzen nauena, eta ez kanpoko ezer
[nire azpim.].

Soziologorik gehienak eta gainontzeko asko, ordea,
gizona erabat kanpotik eta kanpotik bakarrik determi-
naturik balego bezala dabilzkigu ia beti.

1.4. Barruko eta kanpoko determinazioak

Umeak jostatzen ari dira eta begira gaude. Bat-ba-
tean lñaki guztiz haserretu da, eta izugarrizko jipoia
ematen dio Xabierri. Zergatik jo du lñakik Xabier:
umea berez bortxatiarra delako, haserrekorra, adarka-
ria, oldartzailea, eta ume denak hori, — ala lñaki gaiz-
ki hezitako ume bat delako? Adibide hutsa duzu hau.

Pedagogogo batek esango luke, gaizki hezitako ume
bat dela. Eta arrazoiz.

Halere, gaurko zenbait etologo edo portaera-teo-
rikok pedagogiari, zientzia politikoei eta, batez ere,
soziologiari, kritika radikal horixe egiten die: oraindik
sensualismo zaharraren *tabula rasa* postulatu zeki-
gi.

tzen dutela. *Sensualismo* hitzak bat-batean bururazten duena Condillac da. Baina akusazioaren esanahiari begira, beharbada Locke-k inportantzia gehiago luke. Aspaldiko Autoreak ditugu, baina begira diezaiegun piska bat.

Zera da problema: nondik sortzen diren ideiak, jakitatea. Zein den ezagupidearen sorburua. Gizona ezagumenak gidatzen duelakoan bait gaude.

J. Locke, Bacon-en hildotik dator: gizonaren gogamena edo gogoa *tabula rasa* dela, orrialde zuri bat dela, esaten zuen. Eta kontzientziaren lehenengo konteniduak *esperentziaren* bidez ailegatzen direla kontzientziara. Sensazioarekin, zentzuen bidezko oharmenarekin, hasten da ezagupidea. Ez dago inolako *ideia innaturik* (Descartes-en aurka).

D. Hume-k, berez beharrezko eta bere baitatik ezinbesteko lege moral eternurik ez dagoela erakutsi zuen: legeok oro *esperentziak* emanak eta oinarrituak direla, eta legeon unibertsaltasuna ohiturak eta tradizioak oinarritua dela. Ez dute berezko beste *egiaren unibertsaltasunik*. Sujetibuak eta erlatibuak direla, hortakoz.

«Zentzuen oharpenak arimaren dohain oro bescaritzen du», esaten zuen *Condillac-ek*. Dena *kanpotik* sartzen da adimenera. Kontzientziaren forma oro (lege moral, Dretxo, etc.) zentzumenetatik sartua dugu azken finean. Zentzuak dira egiaren iturriak.

Lehenengotik arraroak eta urrutikoak badirudite ere, teoriok ez dira «teoria hutsak»: Erdi Haroko gizarteari eusten zioten egia *eternuak* kolpe batetik hankaz gora doaz. Jadanik has liteke gizartearen, moralaren, etab. jatorri bila: ezagupide teoria hau politikan eragikor berehalaxe bilakatzen da, Frantzian bereziki. Zerk oinarritzen ditu giza eta gizarte bizitzaren ordenamendu printzipioak? *Gizonak bere bizimoduak* kondizionalki *hartzten du* (5). Hots, 1) gizonak

(5) J. M. TORREALDAY, aip. lib., 96.

bere esperentzia gogoetaren abiaburu bihurtu du. Eta, 2), bere baitatik irten, eta gizona bere *kanpoa-reakin* dituen zerikusiak argitzen hasi da. Descartesen *Cogito* egozentriko hura bazterrean utzi da.

Gero, gai materialen begiratzetik gizarte azterketa itzuliko da ikuspide hau. Laster ikusiko da, erakundeak ez direla *Jainkoak halaxe nahitakoak*, ez dela nahitaezkoa batzuk agintariak eta besteak agindutakoak, batzuk aberats eta besteak pobre, izatea, etabar. Gizartearen antolaketa ez zela aldaezina eta sakratua, kondizionatua baizik. Baldintza historikoen, geografikoen, kondizionatua, hain zuzen. Beraz, gizonak eskuarterik baduela historia bere asmoen arabera taxutzeko.

Laster oharremango da, esperentzia ere gizonak influentzia lezakeen gauza dela, halaber: heziketaren arloak berebiziko inportantzia hartuko du.

Eta, honez gero, kanpotiko determinazioen arazoak XVII. mendetik XIX.era arte, ez politikan eta ez zientzian bakerik emango du gehiago.

Guzti honek zera adierazten du: kanpotiko eta barnetiko gizonaren determinazioak neurtzerakoan, Aro Modernuak ia kanpotikoei bakarrik begiratu izan die-la. Umea zinez *tabula rasa* baten antzera bururatzen zen. Eta haurra kondizio sozialek taxutu bezalakoxe gizona bilakatzen dela pentsatzen zen. Soziologiaren eta psikoanaliaren desarroilo modernuak pentsakera honen erakusbide nabarmenak ditugu.

Jadanik nekez jarrai genezake, halere, barnetiko determinazioak zabartuz, kanpotikoekin bakarrik, azkeneo hauen inportantzia ukatzeko asmorik inork ez badu ere. Genetika, biologia, haintzakotzat ez hartzea litzateke. Eta zientzia haintzakotzat ez hartzea berez mendekatzen da. Eta are mendekatzenago da natura hertsatzea.

Alabaina, gaurko problemarik larriena ez da eza-gupidea nondik datorkigun. Baizik nondik datorkigun portaera, gizabidea, ihardupidea eta egikera. Geure

barnetik sortzen ote zaigun ala kanpotik itsatsia ote dugun. Mila bider entzuna dugu, garen bezalakoak bagara, gizarteak horrelakoxeak egin gaituelako dela. Eta geuk ezagutzen ez dugun gure haurtzaroko makina bat esperentzia posible ere aipatu zaigu, hori esplikatzeko. Hori ote da dena?

1.5. Aldez aurretik programaturik ote gaude?

Pedagogiak eta soziologiak, gehien-gehienbat, gizabidea portaera, inguruak erantsia edo ikasia dela, egiten zuten kontu orain arte. Etologoek (eta berdin biologoek) ez diete barkatzen hori. Eta hori median-te eta komediante, egunotan joera burruka gogorren lekuko gara. Dilemaren bi poloek egun Skinner eta Lorenz-en izenak daramazkite.

Jaio orduko hilgo ginategi, argudiatzen dute etologoek, amaren bularretik edoskitzen *ikasi* egin behar-ko bagenu. Eskerrak, umeak hori ezer ikasten aritu gabe ere badakiela, jaiotzen denerako. Jaio aurretik. Berez daki eta.

Era berean, umeak ez daduka erortzera doanean zerbaiti heltzen ikasi beharrik: berezkoa du hortar-ko Moro-erreflesoa.

Itsu eta gor jaiotako haurren azterketek ere ongi erakutsi dute, gizonaren espresio-portaerak hein handi batetan mekanismo heredatu bati obeditzen diola, portaera hura sorkurazko «eredu» batzuetan finkatua dela.

Etabar.

Alderdi bakoitzak bere arrazoiak aipatzen ditu, eta arrazoi onik ez zaio biotako inori falta.

Bat ez da gaiotan aditua, eta ikusliar soil senti-tzen da. Badaude, problema honetan postura guztiz radikalak hartu dituztenak: gizabidea *ikasia* bakarrik

eta, beraz, gizona izaki kultural hutsa dela diotenak. Esperimentu harrigarriak lortu dituzte. Ikastearen inportantzia biziki argituko dute, besterik ez bada. Eta badira, bestalde, heziketari inportantzia kentzen diotenak: portaera funtsean jatorriak determinatua dela uste dutenak. (Ez dira arras nahastu behar, noski, ikastea eta hezitzea!). Baina gehientzat buruhaustea ez da dilema hori, dilema horren bi muturrak elkartzea baizik. Eta puntu honetan iluntasun eta korapilo asko gelditzen zaio oraindik zientziari. Zeregin honetan Piaget-ek aparteko merezimenduak irabazi ditu.

Izan ere, puntu honetan zer esanik duten zientziak asko dira: psikologia, soziologia, etologia, biologia, genetika, neurofisiologia eta beste logiak.

Arrunki eman izan zaiona baino inportantzia gehiago tokatuko zaio genetikari. Rof Carballo-k (6) honela diosku:

...Este problema radical, el de la relación del yo y el del primer desarrollo del sistema nervioso central no pueden resolverse satisfactoriamente sin tener en cuenta los avances de la Genética.

Nolanahi den, psikologia, pedagogia eta soziologia erdi-modernuentzat guzti honek ondorio larriak ukan ditzake. Hauk, elkar harturik, errazegi mintzo ohi ziren, haur jaioberriaren *ikasketez* eta ingurunearen *irakaspenez*. Egokitsu ziruditen hipotesiok, baina ezerk ez zituen oinarritzen, susmo arrunt batek izan ezik. Baina biologiak korrektura bati azpiratu dizkio baitespen gratuito haiek (hauen zatikazko zuzentasuna salbatuz):

El niño recién nacido no puede aprender por una razón obvia: *no dispone todavía de órgano de aprendizaje.*

(6) ROF CARBALLO, *Biología y Psicoanálisis*, 1972, 452.

Faltan todavía, en estructuras decisivas de su cerebro, un 70% de neuronas *que no se han desarrollado*. Y, a la vez, los necesarios sistemas enzimáticos, los soportes bioquímicos indispensables, etcétera.

Haur jaioberriari irakatsi ez baino eragin egiten zaio: *inguru* bat ematen zaio, eta inguru honi erantzutea da haurraren jarduna. Erantzunez desarroilatzen du bere burua. Erantzunaren tankera, berriz, umeak alde zuzenetik eta genetikoki *programaturik* dakar.

Portaera-teorikoei ezkertiarrek eragozpen bat egin ohi diete: erreazionarioa dela, emanzipazioaren eta askatasunaren aurkako teoria dela. Izan ere, gizonaren portaera guztia aberea gizon izateratu aurretik erabakirik ailegatzen bazaigu, hots, biologikoki determinaturik bagaude, badirudi ez dagoela zer eginik eta zer itxaronik. Elkar joka eta zapalka segituko dugu, elkar menderatuz eta obedituz, etc., gizonak hori dena jatorrizkoa eta berezkoa duenez gero. Hobbes-ek zioen moduan. Eta, beldurrak eraginda, elkar hartu eta guztion gaintetik autoridade gogorra eraiki behar duko dugu, nola-halako ordenuan bizitzeko, eta *bellum omnium contra omnes* hartan nolabait larrua salbatzeko. Ahaleginik galantenak ere ez dira zirujia estetiko piska batetatik pasako. Akabo iraultzaren helburuak, orduan!

Ez dago ukatzerik, batzuek horrelaxe eta hortarakoxe darabilzkitela gizonaren eta abereen ikarduere-tako analogiak. Erreazionario askok, psikologiak eta soziologiak tenaza artean harrapatuta aspaldion larri aurkitzen bait zen, haien kontra aprobetxatu nahi ukan du etologia. Eta ez dago ukatzerik, halaber, psikologia eta soziologia klasikoen korrektura eta kritikarik badakarrela etologiak. (Jadanik ia kritikatzeko bakkarik aipatzen da Freud!). Baina beren antsiak eta presak beraiek engainatu ez baditu, gu engainatu nahi gaituzte.

Zeren eta, oraingoz dakigunez, gizonak sorkuraz determinaturik dakarrena ez bait da portaera guztia, egikunea, ekitaldia (heziketaren esitoak ezin uka litezke!); joera bakarrik baizik, ekintzaren eskema. Isuria, sena, «istintoa», iharduteko moldea edo egitama (7).

Bereizkuntza honi asko falta zaio oraindik garbia izateko. Eta bereizkuntzaren iluntasunak ez du problemaren bihurritasuna eta iluntasuna besterik agertarazten. Gauza bera dago ilun, eta ilun egon behar hari zein izen eman.

* * *

Hots, ilun dago gizonaren «aberetasuna» zenbaterainokoa den. Noraino dagoen gizona programaturik esistentziara ailegatu orduko, eta programazio hori nola ernetzen den eta bizitzaren haseretan gizona baitan neurofisiologikoki nola finkatzen den.

Buru honetan ez dirudi egoki *istintoaz* arrunki mintzatzeak. Gizonak, esaterako, berezko istinto sexual bat du: gizonak kanpotik ikasi beharrik gabe eta kanpotiko eragipenik gabe dakarrena eta «berezko bizia» duena. Eta nahastura psikiko larriak sortzen dituena, asetzen ez bada. Funtzionamendu espontaneo du, berezkoa.

Baina nigar egitea edo barre egitea ere, haurrak inorengandik ikasi beharrik gabekoak dira eta, geureganikoak ditugun arren, ez dira espontaneoki eta berenkisa dihardutenak, kanpotik zerbaitek eragin gabe ere berez ari direnak, eta geure buruon kalterik gabe asetzeke utz ezin genitzakeenak. Sorkurazko jorkaerak dira, noski, beren egitamuaren arabera. Bai-

(7) *Praegung* esaten dute alemanek, *imprinting* ingelesek Frantsesek eta espainolek ingelesez edo alemanez esaten dute. Baina izenotan ere ez da oraindik batasunik lortu gauzaz beraz azkeneko argitasunik lortu ez den moduan.

na ez dira espontaneoki ari direnak. Egikaritzeko, egintza bihurtzeko, eragipena behar dute kanpotik. Egitekotan, badugu egitura: jatorriak emana dugu nola egin, baina egitura horrek sekula kontenidorik egintza batetan iristen ez badu ere ez dio inporta.

Gauza sinpleotan ez dago problema handirik. Problema, eta ez nolahikoak, beste puntu batzuetan sortzen dira.

Agresibidadearekin, esaterako. Azkeneko urteotan gehien eztabaidaturiko problemetakoa dugu hau. Jadanik bistan dago agresibidaderik ez litzatekeela posible haren basamendu fisiologikoa gabe, mekanismo neuronal batzuk gabe. (Esaterako, ezaguna da «radikalismoari» —politikan, etab.— esplikazio fisiologikoak bilatu zaizkiola. Era berean, abereetan esperimentuak egin dira, zerebroko eskualde batzuk tirritatuz agresibidadea biztuaraziz, etabar). Eta datu fisiologiko haiek interesik badutela, aitortu behar da, baten agresibidadea eta bestearen moteltasuna edo patxada, baten radikalismoa eta bestearen neurritasuna edo hoztasuna, esplikatzeko. Baina nigar egitea bezala ote da, azken finean, agresibidadea? Ala espontaneoki funtzionatzen duena? Alde batetik ez bada bestetik, molde batetan ez bada besteren batetan, baina beti ere nondibait leher egingo duena? Azpiratzen eta mendean edukitzen bada, ase gabe, *agresibidade perbersoak* sorarazten dituena, istintu sexualak bezala? Honelakorik ezin sinesgarriro demostratu ahal izan da. Baina tesi kontrariorik ere ez oraingoz. Eta Mitscherlich-ek, esate baterako, uste du kristautasunak, karidade unibertsala, mantsotasuna eta pazientzia predikatuz, eta gizonaren berezko irrikitasun bat globalki erreprimatuz, agresibidaderik gaiztoenak biztu besterik ez duela egin.

Eztabaida askotako beste problema bat gizonaren eta emakumearen arteko harremanena da: *sexu fuerte*-aren eta *debila*-ren kontua. Esan beharra dago, emakumearen emanzipazioaren apostoluentzat, jene-

ralean, Apokalipsian bertan baino errebelazio txarra-
goak egiten direla etologoen informeeetan... Baina adi-
biderik aski bada.

Beraz, gizonaren portaerak dituen joera eta dis-
posizio heredatuak ez dira denak berdinak. Aldez au-
rretik programatuta dagoen puntuetan ere programa-
zioa ez da beti berdin lotzen duena. Banan-banan ar-
gitu beharko da puntu bakoitzaren nolazkoa. Garbi da-
goena zera da: esaterako, jadanik ez dagoela hezike-
taz eta kultur eragipenez lor daitekeenaz arrunki, abs-
traktuki eta jeneralki mintzatzerik. Puntu bakoitzean
zehatz ikusi beharko da zer lor daitekeen, eta hezi-
ketak zer lortzera jo behar duen. Halako joera bat
menderatzera eta itzaltzera ala zuzen orientatzera eta
aprobetxatzera, adibidez. Emakumearen emanzipazioaz
zentzuz hitzegiteko, adibidez, andrearen sexualida-
dearen endokrinologia ezagutu beharra dago. Beste
guztia fantasmakeria hutsa da.

Horretaz gainera, zientziok irakasten dutena zera
da: ez dagoela alaikiagi *gizon berriaz* mintzatzerik.
Erabateko berdintasuna gozaten duen gizonaz, bes-
teei nagusitzen lehiatzen ez denaz, abantailarik bila-
tzen ez duenaz, guztiz altruista denaz, etabar. Eta
hori irakatsi, ez noski zientziek halako gizonaren in-
posibilitadea erakutsi digutelako; baizik, halako gi-
zonaren posibilitadeaz zientziazki mintzatu ahal iza-
teko oraindik, zenbat problema dagoen azaldu digu-
telako. Ilusio denak utzi eta aitortu beharra dago: gi-
zona abere besterik ez dela.

Gainerakoan ez dirudi etologiak —gizonari aplika-
tuta— batzuek nahi luketen eta besteek beldur duten
gure egunotako *ideologia kontserbadorea* izateko ba-
lio duenik. Zientziari gutitan bururatzen bait zaio de-
balde ezein Alderdi politikori arrazoi ematea.

Ongienik genetikan, biologian, ikusten da hori. Bai-
na eboluzionismoak berak bakarrik ere aski dirudi ho-
ri pentsarazteko, ongi esplikatzeke zehaztasun gehia-
go beharko bada ere.

2. Kapituluua

2.1. Dena metodu kontua da

Arrazionalismoari iruditzen zitzaion munduaren ordenamendu zuzen eta eternoa atzeman zezakeela: ordenamendu naturala, gauzen beren naturak berezkoa eta nahitaezkoa zuena. Arrazionalismoa, gertutik begiratuta, errebelazio laikoaren teoria besterik ez da: egiaren azkeneko irmotasuna absolutuki finkatzen duen teoria bat. Dretxo Naturalaren bururapenak—georago ikusiko dugu hau— horrelako zerbait badu: gizona naturaz berez libre dela, errespetagarri dela, etabar postulatzeko duenean.

Arrazionalismoak, adibidez, justiziaren eta mo-

raltasunaren printzipio eternoak hauteman zitzakeela pentsatzen zuen: gizonak lege haiek bete besterik ez zuen egin behar. Gizarte antolaketa perfektu bat lortzeko ere, lege haiek betearaztea aski zen. Ideia honek uste ohi den baino biziagorik segitzen du: askatasuna, berdintasuna, etab. gauzatuz gizarte-eredu ideala lortuko litzatekeela postulatu dutenen bururapenetan batik bat.

Historismoak laster erakutsi zuen halako *egia eternoak* eta gauzen nahiz gertaeren *betiko naturak* ilusio hutsa zirela: dena historiko da. Historia bilakadura da, prozesua. Eta dena denboraren eta kondizio historikoen baitan lekuratu behar da. Dena erlatibua da: erlaziotan, harremanetan, esistitzen da: nola gauzak berak hala haien gure adierazpenak. Ez dago ezer *be-rezkorik*. Dretxoa, nortasuna, moralitasuna, erlijioa, artea, eder nahiz ontasunaren idealak, dena desarroilo unibertsal baten parte da.

Desarroilo hori, halere, nola muga? Jeneralean «historiaren» mugetan gelditu ohi da. Gehienez ere sei bat mila urte inguruko desarroiloaz mintza gintezke, beraz. Epe honen barruan bilatu ohi dira giza eta gizarte erakundeen nahiz pentsaeren esplikazioak. Estadua zer den eta nondik datorren esplikatu nahi delarik, adibidez, aipatuko diren esplikazio guztiak denbora horren barruan aurkitzen dira. Autore ausartagoren batzuek prehistoriaraino hedatu dituzte beren esplikabideak. Eta, etnologiarik eskerrak, prehistoria hobeki ezagutu ahala, gero eta korrienteagoa da jokabide hau. Halere, ez da ahaztu behar, «historia» hobeki konprenitzeko laguntzen digun prehistoria hau berau (1) historiaren bitartez eta historiaren argitara ezagutzen eta interpretatzen dugula, — eta (2) bilaturiko material berriak ugaltu ahala, gero eta «historiako» bihur-

... tzen ari dela prehistoria. Eta, dena den, beti ere *kultur-historiaren* mugetan gelditu ohi gara. Estaduaren sorrera esplikatzen behar duelarik, nor oroitzen da «abere gizarteez»? Gehienez ere termitak aipatzen dira, baina gonbarazio moduan bakarrik hori ere.

Soziologiak, azkenik, giza gauzak gizartearen baitan situatzen ditu. Oteizaren edo Txillidaren irudi (ala «irudigabezia») baten aurrean, estetikoak artelan haren artea zertan datzan bilatuko du: eta objektuaren barruan bilatuko du, «formetan». Soziologoak artearen —ez dago zuzen esanda, baina barka bekit— kanpokaldea argitu nahiko du: artelanaren ingurunea, kondizionamendua.

Dagoeneko soziologia ez-zezik soziologismoa ere modan dago. Hau da: kultura guztian ez da beronen erlazio sozialak besterik ikusten. Azkenean, izpiritua-
ren ihardunak eta bizitzak gizartearen funtzio mordo bat besterik ez dirudi.

Mentalidade estatikoaren aldean, izugarritzko aurrerapena da mentalidade soziologiko historista. Dogmatismotik irteteko beste biderik ez dago. Egunotan, halere, dena «soziologizatze» moda sartu da. Literatura edo artea azterkatzen delarik, jadanik ez da «ederra» esplikatzen: zein mentalidade edo zein interes taldearen espresio den, nondik norako eragipenak sumatzen diren etabar galdetzen da. Problema psikologikoak ere azkenean inguramen soziologikoan bukatzen dira. Berdin da ideien batzuk, jolas batzuk, nahiz ohiturak azterka: hauen funtzio soziala jakiteak dirudi premiazoena.

Hilargian egon beharko litzateke, ikuspide soziologikoaren inportantzia ukatzeko edo gutiesteko.

Halere, aidean gelditzen den problema bat zera da: gauza bat zein sozial funtziotan dagoen argitzea beti erlatibua dela — alegia, funtzioen argitzeak berak kasu bakoitzean duen funtzioak erlatibaturik! Arago, gauza baten funtzioak ezagutzea ez dela nahitaez

gauza bera ezagutzea. Eta funtzio posibleok, guti gora-behera infinituak direla.

Eta hau beste bat: soziologoak —eta edozein zientziak— bere gaia «osotasunetik» ebaki eta apartatu egiten du. Baina hortan, azterketaren ondorioak determinatzen dituen aukera bat egiten da. Horren kontra ez dago ezer esaterik, soziologoak berak aukera baten gainean lanean ari dela ahazten ez duen artean behintzat. Baina aukera hura etengabe kontrolatzera beharturik gelditzen da, objetibidadearen amorez. Eta, batez ere, azterketa interdiziplinarioaren premia aitortzera.

Esan liteke, gaur gizonaren zientzia guztiak direla soziologikoak: «giza jakintzen» eta «gizarte jakintzen» berezpenak gero eta gutiago balio digu. Halaber, guztiak dira historikoak, eta guztiak dira psikologikoak: nahita ala nahi gabe. «Giza errealidade» osoaren sintesi soziologikoa, psikologikoa edo historikoa duten gizonak denok ezagutzen ditugu (oraindik ere sintesirik arruntena erlijiosoak dirudi, halere); agian, denok horixe egiten ohituta gaude: Zeinek zein alde gehiago estimatzen edo ezagutzen duen.

Bidezko da. Baina ia beti inpresio hau gelditzen da: alde batetik *gizona* eta bestetik *gizonaren animalia* estudiatzen direla. Kultura egiten duen gizon hori gauza bat aparte balitz bezala, animalia bat barruan ezkutaturik. Esate baterako, biologiak animalia hau estudiatuko luke. Soziologiak eta bestek *kultur-gizona*, animalia utzita.

Denek esaten dute, bereizkuntza hori faltsoa dela. Baina bereizkuntza hori gure tradizio guztien eta pentsatzeko olde eta molde guztien barne-barneraino sartua bait dago, benetan zaila da hura superatzea.

Aro Modernuan soziologiak, psikologiak eta etnologiak eragipen handia ukan dute, gizonaren kontzertua moldatzeko: gure gizonaren irudia zientzia haiek eratua da gehienbat. Eta biologia, —ez ote da haintzakotzat hartu behar?

2.2. Atzera gelditu den sozialismoa

Gizarte-jakintzetan domeinatzen duen, eta lamarckista esan geniezaiokeen joerak, inguramen sozialean bilatzen ditu gizonaren eta honen gorabehera guztien esplikazioak. Gizona bere inguramen sozialean ikusten du, eta haren bidez esplikatzen. Joera honek batez ere gizarte batetik bestera dauden diferentziak eta bakoitzaren berezitasunak atzematen eta argitzen ditu. Gonbarazio-metodua, horregatik, metodo guztiz erakarkorra da gizarte-jakintzetan. Eta Europak bere burua bakarrik ezagutzen eta haintzakotzat hartzen zuen denbora ez oso aspaldikoez gero, ordu-ra arte «naturaltzat» edukitako makina bat gauza, gure kulturaren berezitasunak besterik ez zela ikusi da. Gure ekonomia gobernatzen duten legeak «lege naturaltzat» edukitzen ziren, Marxek besterik erakutsi arte. Gure famili moldeak, europarrei familia naturalaren forma jatorra iruditzen zitzairen, eta kalamidade hutsak iruditzen zitzaizkien beste forma batzuk. Eta bar. Etnologiak, soziologiak, historiak, «naturaltasuna» ez dela uste zen aina gauzatara ailegatzen erakutsi dute. Bizitza sozialaren formak ez direla eternoak eta naturak ezarriak.

Halere, lehenago «naturaltasun» gehiegi ikusten bazen, XIX. mendean gero, «naturaltasunik» batere ez dagoela pentsatzeko joera bizia dago. Dena historiko dela eta, beraz, dena badaezpadakoa eta aldagarria dela pentsatzen da. Eta gizonak berak erabaki lezakeela, nolako familia edo gizarte formatan bizi, nolako lan kondizioak era, eta gainerako guztia. Horiek denak, eta zeharo, gizonaren eskutan daudela pentsatzen da; gizonak horiek guztiak berak nahi lukeen eran antolatzekeo libertade eta esku eta ahalmen duela. Uste honek eragiten dio izpiritu iraultzagileari.

— Baina soziologoak, historiadoreak edo etnologoak presa gehiegi edo zientifikoz bestelako interesak zerabilzkitenean, makina bat gatu erbitzat eta hamaika astakeria zientziatzat sartu da: familiaren kontuan bertan, esaterako. Gogora, bestela, berak azterketa etnologikorik sekula egin gabe eta etnologian aspaldi superatutakotzat ematen diren iturri batzuekin eta datu batzuekin Engelsek muntatu zuen familiaren jatorri-historiak nolako arrakasta zuen gure artean atzo bertan. Eta faltsifikazio batzuei eskerrak zientziarekin zerikusirik ez duten ondorioak eskuratzen ziren.

— Berdintsu, zientziek berez permititzen zutena baino jeneralizazio handiagoak egin izan direnean. Esaterako, «gainegituren» teoria guztiak tradizionalki egin izan dituenak, erlijioari nahiz arteari, aginpide politikoari nahiz familiari buruz. Berdin, agresibidade oro klase zapalketaren ondorioztat jo denean. Klaseak ukatu nahi zirelako, gizartean hierarkia oro eta autoridade oro klase zapalketa bezala esplikatu denean, halaber. Eta beste hamaika halako.

Lehenago instituzio sozial guztiek eternoak, naturak emanak, sakratuak, ezin ikutuak, baziruditen, orain aldrebes da. Artifizialkeria hutsa dirudi denak: eta, hain zuzen, giza-naturaren kontrako artifizialkeria hutsa. Gizarte-jakintzak, filosofiatik adaskatuak izaki, eta oraindik nahiko gazteak direlarik, ez dute oraindik *totalidadea hauteman nahia* guztiz ahaztu, eta maiz filosofia egitera pasatzen dira, egiten ari direlakoan. Oraindik presupostu ideologiko eta xede filosofiko gehiegitan nahasturik dabilta. (Beraz, Althusser-ek hori dena gogorki kritikatzan duelarik, oso-osorik onartu behar ditut haren kritikak: zientzia eta ideologia nahastearen kritikak).

Konprenigarria da hori, bestalde, Aro Modernuan gizarte-jakintzei gehien-gehiena eragin diena izpiritu kritikoa eta iraultzagilea zelarik. Arrazoi guztiaz esan zen, mundua esplikatu ez baino aldatu egin behar de-

la. Eta hori esan zenez gero, arrazoi horrek, askotan, mundua aldatzeko aitzakiarekin, munduaren esplikazio faltsoak emateko balio izan du. Edo zientzien martxari kasurik ez egiteko. Aldakuntzaren helburuak mitologietatik hartuak bait genituen, eta ez zientziak emanak. Makina bat aldiz behartu nahi izan dira zientziak, orduan, mitologiaren zerbitzuan ibiltzera.

Eta orain, bere burua tradizio iraultzagilearen baitan sentitzen duenak, ez daduka bere buruari galdera barkatzerik, iraultzaren helburu bakoitzaz: hortarako zein posibilitate dago? Demokrazia inmediateko, autojestiorako, familia libre edo familia handi edo amodio librerako, bake unibertsalerako, berdintasun osorako, etc. zein posibilitate arrazoizko eta zientifiko dago? Ez bait da aski hori dena ederra iruditzea, besterik gabe guzti hori elburu deklaratzeko. Ez, sozialismoak oraindik zientifikoa izan nahi badu behintzat. Eta ez amets moral eta utopiko soila.

Gizonen arteko burrukez ari garela, edo gaurko gizonari dagokion famili-organizazioaz ari garela, entzun beharra dadukagu problema horietaz biologiak, psikologiak, soziologiak, zoopsikologiak edo etologiak, eta bestek, esan liezaguketena.

Inbestigazio interdiziplinarioari entzun beharra dago. Argitu beharra dago, zer den historiko kultural, badaezpadako eta aldagarri, eta zer den gizonaren *programazio basikoak* berez eskatzen duena eta honetan ezinbestezkoa dena. Izan ere, askotan hitzegiten da, gizonak, saiatuz gero, erleen gizarte modua edo tximuen afektibidadea bereganatu ahal izango balitu bezala, *kondizio sozialak* hartarakotuz gero. Gizonaren zerebroa, ordea, ez tximuen bezalakoa eta ez erleena bezalakoa da (edo erlauntzarena bezalakoa: organismo osoa erle bakoitza ez baino erlauntza baldin bada). Gizonaren «kostitutuzioa», abereena ez bezala, irekia da. Baina, irekia izan arren, ezin irekitasun hori absolutiza liteke.

Zer da gizona? — galdetuz hasi beharra dago berriro, eta galdera horri erantzun interdiziplinario bat bilatzen benetan saiatu beharra dago.

Azkeneko ehun urte honetan zientziak arras aldatu dira. Baina propaganda sozialistak duela ehun urteko eskema berdin-berdinekin eta helburu eta mito berberak predikatuz segitzen du. Non gelditu da *sozialismo zientifikoa*?

2.3. Natur jakintzak eta sozialismoaren teoria

Gizon modernuak gizartearen antolamendu guztia kasualidadezko, apetazko bezala kontsideratzeko joera du. Gure sexual harremanetatik hasi eta gure organizazioraino Estadutan.

Erreazio bat da hori, noski. Guzti horiek lege eterno eta sakratuz esplikatzen zituen tradizioaren aurka erreazio bat. Batez ere Elizaren aurka.

E. Fromm-ek txit egoki esaten du: gizona paper zuri baten antzera imajinatzen dela eta, paperean bezala, kultura bakoitzak bere testua idazten duela gizaki bakoitzagan. Pedagogoen eta psikologoek zenbait sinplifikazio ikuskera hau bermatzera eta finkatzera etorri da: gizakia zeharo bere kanpotik taxutzen eta moldatzen eta konstituitzen dela pentsarazten bait du. Umea den paper zuri hortan nahi dena idatz litekeela: problema bakarra idazle ona izatea eta gauza zuzenak idaztea izango litzateke.

Guzti honek tradizio luzea eta sakona du: «sujetibitate kritikoaren» tradizioa, humanismoarekin eta burgesiarekin batera jeikitako ilustrazioaren tradizioa. Zehazkiago, historismoaren tradizioa.

Gizon humanistak, zientzia deskubritu zuen eta bere nortasunaz jabetu zen hiritar indibidualistari zegokion moduan, eta haren ondoko burges modernuak,

arrazoimena deskubritu zuen eta bere balioaren kontzientziaz beteta zegoen Aro Modernuaren semeari zegokion moduan, gauza guztiak beren obra bezala ikusten zituzten. Gizonaren gainetik gizona lotzen duen ezer ez dagoela aurkitu bait zuten, ez errebelaziorik eta ez naturaririk, gizonak libreki eta bere komenentzien arabera sortutakoa iruditzen zitzaien gizarte bizitza dena. Dena *historiko* huts. Eta historia, gizonak bere gogara munta ala desmunta zezakeen saipai baten antzekoa.

Gainontzekoan, gizon hari aski zitzaion errebelazioak lotzen ez zuela jakitea, mentalidade hori desarrolatzeko. Natura noraino lotzen zuen jakiterik ez bait zedukan oraindik: artean Darwin jaiotzeko urte asko falta zen. (Gogoan eduki behar da, gizona «tximuaren umea» dela jakin gabe bururatu zuela Marxek bere teoria soziala).

Ikusmolde honek elikatu ditu gehienbat izpiritu-jakintza modernuak, filosofiatik hasi eta soziologiaraino. Berdin izpiritu iraultzagilea. Ezaguna da hori (8)

Ezaguna, orobat, Althusser-en gaitzerizkoa guzti horren kontra: *Humanismoaren eta historizismoaren arteko batasuna da arriskurik handiena*.

Eta ezaguna da, halaber, Autorerik gehienen ustez behintzat, marxismoak (eta hain zuzen «Marxen marxismoak», ez geroztikoak bakarrik) batasun arriskutsu horixe egin duela. K. Popper-ek, esate baterako, historizista bezala kritikatzeko du marxismoa. Eta Popper-en eta Althusser-en pentsamenduek badute elkarrekin zirikusirik, Althusser-ek marxismoa kritikatu gabe historizismoa kritika dezakeela uste badu ere.

Munduaren ikuskera teozentrikotik antropozentrikora pasa zen gizon modernuak bere nahimenari eta adimenari, bere buruari, hots, *arrazoimenari*, ematen dion inportantziak, zera dakar ondorengo: gizonaren arrazoimena eta nahimena ekinean ari diren eremua

(8) Ikus daiteke J. M. TORREALDAY, aip. lib., 103 eta hur. or.

dela historia, eta gizonaren natura bera ere erabat historiak taxutuztat hartzen dela. Arrazoimenak eratu behar du mundua. Eta zerbait erlijioak, edo ignorantiak, edo beldurrak, edo tradizio hutsak, edo zernahi arrazoirik gabekok, eraturik agiri bazaio, arrazoimenak hura lurreratu eta egitura berri arrazoizko bat jaso behar du. Arrazoimenak egiten du, historia ez-zezik, gizonaren natura bera ere. Eta oraindik ere askotan entzun ahal izaten dira honelakoak: gizona ez da beti berdina, ez dago gizonaren natura fijoarik, beti aldatuz doa, etab. Gizarte komunistarako, adibidez, egoismorik, bekaizkeriarik, larderiarik, gorrotorik, etc. gabeko giza-natura itxaroten eta agintzen da.

Althusser-ek ederki deskribatu digu pentsakera hau, eta deskribizioa bera kritika bat da:

Horrez, gero, giza-natura hori historiak sorturikotzat hartuko da, eta historiarekin eboluzionatzen duenakotzat; eta gizakia, Argi Aroko filosofiak jakin nahi zuenez (hala esaten zuen, dagoeneko, Helvetiusek, Rousseauk ere bai, Dideroten aurka; eta Feuerbachek artikulo luzea egin zuen horretaz, eta, gaurregun, antropologo kulturalista askok horretan dihardu), historiako iraultzen indarrez eta bere barneneko ahalmenetan (ikusmenean, adimenduan, oroimenean, arrazoimenean, e.a.-etan) historia objetiboaren gizarte-produktoek ukitzen dutelarik, aldatzen dihoalakotzat. [Dionisio Amundarainen itzulpenaren arabera aipatzen dut].

Hona zer litzatekeen historia, hortakoz: *Historia, hartara, giza-naturaren aldakuntza izanen litzateke.*

Ez dago dudarik, ikuskera horiek oraindik nagusi direla. Areago, ikusmolde hori iraultza asmoen ideia gidari bihurtu da, eta XVIII. mendetik gaur arte propio hortaraxe hotsegiten da: giza-natura aldatzera, *changer... la nature humaine* (Rousseau), *changer la vie* (Clavel). Dirudienez, kondizionamendu sozial egokia eduki orduko, naturaren aldakuntza hori *reedukazio* sa-

kon baten bidez lor daitekeela pentsatzen da oraindik ere, aspaldin idealismotik materialismora paseak omen garen arren. (Mentalidade humanistan eta historizistan konpreni zitekeena, eta gaurko «marxismoan» mentalidade hura zein bizirik dagoen erakusten duena, *berriro Althusser-i* arrazoi emanaz). Eta, esaten denez, hori egin ez omen zuelakoxe itzuli omen da Sobiet Batasuna atzera errebisionismora eta burokratismo zapaltzailera: iraultzaren erdia baizik egin ez omen zuelako.

Ez nuke ikuskera horri Althusser-ek egiten dion kritika puntu guztietan onartuko, baina ikusmodua bera ederki ikusarazten digu. Konprenitzen da, halere, Althusser-ek eritzi horiek sozialismoaren teoria zientifikotzat onartu nahi eza, eta «humanismoa» zorrozki konbatitzea, hori guztia etika bat edo filosofia bat bait da, baina inola ere ez zientzia. Bestalde, Althusser ez da marxismoan historizismoa kritikatu duen bakarra, ez eta lehenengoa ere. Marxismoa zientziaren legeei sometatu nahi izan dieten «positibista» antzeko joera guztiek egin dute hori.

Eta hauxe da marxismoaren desarroiloan Althusser-ek begitan duen eta ezin jasan duen gaitza: positibismoa eta ideologia nahasi dituen marxismoaren egitura sobietarra. Biziki kuriooa da: Althusser-ek salatzen duen marxismoaren *desfigurazioa*, hain zuzen Althusser-ek berak bilatzen duen haretxen bila sortuzen: marxismo guztiz zientifiko baten bila.

* * *

XIX. mendearen azken aldera, marxismoa, historia-
ren esplikabidea duzuna, zientzia naturalen kompeten-
tzia izugarriarekin aurkitu zen. Natur-jakintzek aurrera-
pen handiak egin zituzten. Eta, batez ere, natur-jakin-
tzen eragipenak herri xehea irabazi eta menderatu

zuen, jendearen mentalidadea guztiz beren erara formatuz. Natur jakintzok, edo ez ziren marxismoaz ezertarako axolatzen, edo zuzen-zuzen haren kontra desarroilatuak ziren orduan. Eta zientzia naturalekin eztabaidan eta burrukan, Darwin-ekin burrukan batez ere, historiaren esplikabide izatetik izadi guztiaren esplikabidetara «desarroilatu» zen marxismoa: haseran zen materialismo historikotik, honez gero haren oinarritzat emango den materialismo dialektikora. Orain, eta Engelsen jarraikitzen, Marxenean baino gehiago, historia ez-ezik izadi guztia mogimendu dialektikoan ikusiko da (*Dialéctica de la Naturaleza*). Unibertso guztia materia besterik ez da, beti mogimenduan eta «eboluzioan», eta mogimendu horren espresio eta emari da gizona. Berdin historia.

La historia humana y la del cosmos son asociadas como obedeciendo a las mismas leyes eternas

esaten du Monod-ek. Eta Althusser-ek, zirkuloa nola itxi zen erakutsiz:

Historia, hartara, giza-naturaren aldakuntza izanen litzateke; eta natura hori bera izanen litzateke bera aldarazten duen historiaren egiazko sujetua.

Zientzien antzera —zientzietan *Historia Natural* baten parte bezala estudiatzen bait zen gizona—, historia ere unibertsoaren historia natural batetan kokatzen da. Ezin esan liteke hemendik mekanizismora pauso guti dagoenik: pauso bat ere ez da falta. Mundu naturalaren mekanika gobernatzen duten legeek gobernatzen dutela historia ere pentsaratzen da.

Baina hau onartu arren, beste tradizioari (historikoari) ere eutsi egingo zaio: gizarte bizitza guztiaren kritika historizistari, alegia. Nahiz eta biok bateratzea oso zaila izan. Izan ere, honez gero historia guztia naturaren mogimenduaren beharrezko eta nahitaezko

emaitza deklaratu da (famili bizitza, lan banakuntza, klaseak, pentsamendua, artea, etc.), baina bestalde hori guztia kritikatzeko eta aldakortzat ematen jarraituko da: kasualidade hutsezko produkto historiko eta kulturarak balira bezalaxe.

Hau da, fenomenu sozialak itxuraz natur fenomenak bezalakoxeztat esplikatzen dira, alde batetik; baina, bestetik, euriari edo eklipse bati egiten ez zaizkien kritika eta burruka egiten zaie, eta haiekin posible ez liratekeen bezalako jokabideak proposatzen dira (Bernstein).

Natur jakintzen imitazio merke honek «materialismo dialektiko» parazientifiko eta pseudozientifiko batetara eramaten zuen. Eta Engelsen eta Leninen ahaleginek, naturaren «historia dialektiko» bat asmatzeko, ez dute zientifikoaren itzalik eta ez interesik sekula irabazi. Monod antimarxistak bezalaxe arbuatzen ditu Havemann marxistak: Havemann-en ustez sinplekeriak dira, Monod-en ustez barregarrikeriak. Sobiet Batasunean bertan ere aspaldi onartu zen, fisikak ez duela «lege dialektikorik» ezagutzen. Hala eta guztiz ere, ordea, ez da materialismo dialektikoa abandonatu; areago, materialismo historikoaren oinarri deritza oraindik hari.

Honetan datza aldrebeskeria: naturan kausitzen diren legeak historian ere kausitzen ote diren bilatu ordez, historian aurkitutako legeak (dialektikoak) naturara trasplantatzean. Monod-ek animismo deritza honi. Antropomorfismo handiegia da, nolana ere.

Hau da, beraz, sozialismoaren teoria zabalduenaren gaurko desegokiera: natur jakintzentzat jadanik interesik batere gabeko teoria natural zaharkitu batzuekin, eta natur jakintzen aurrerapenetatik bazterrera gelditurik, bizi dela. Natur zientifikoentzat erakusten du marxismoak erakarmentik gutien-gutiena. Eta pentsatzaile marxista modernuek, psikoanalisi, etnologia eta besteak apropiatzen eta haiei beren teoretarako

fruitu ateratzen jakin badute ere, gaur arte ez dute jakin giza-jakintza «naturalekin» beste horrenbeste egin.

* * *

Inportantea da problema honen larritasunaz ongi ohartzea. Natur-jakintzek beste ezerk baino gehiago agintzen eta eskolatuen mentalidadea moldatzen duten mundu batetan, eta eskolatu gabekoen miramendu guztia gozatzen duten batetan hainbat areago, ezer gutik desfiguratzen bait du gehiago marxismoa (arrunkia-go, sozialismoaren teoria) natur jakintzen eta marxismoaren elkarri arrotz eta estrainio izate honek baino gehiago.

Noranahi begiratu, ikusten diren marxista horietarik ia inork ez du natur jakintzen interesik erakusten. Eta natur jakintzez interesatuak ez dira apenas marxismoaz interesatzen. Ez behintzat natur jakintzek berek hartaz interesatzera bultzatu dituelako; izatekotan ere haietatik aparte baizik: *kontzientziak* eskaturik.

Panorama horixe agiri da gure aurrean: marxismoa, gero eta gehiago bizi da «kontzientziatik», eta gero eta gutiago zientziatik. Gizonaren zientzia naturaletatik, batik-bat.

Oharpide honek berdintsu balio du ezker klasikoarentzat eta ezker berriarentzat. Ezer egitekotan, ezker klasikoetatik berrietara okerragotu egin bait dira zientziaren eta kontzientziaren arteko, sozialismoaren teoriaren eta natur jakintzen arteko erlazioak.

Eta horra non Humanisten garaikoaren antzeko krisia berritzen den gaur ere «fedearen» eta zientzia naturalen artean: baliogo eta helburu humanisten eta zientziaren artean, oraingo honetan. Ezkertiarrek dabilzkiten gizonaren burutaera eta mundu-ikuskerak,

natur jakintzek darabilzkiten gizonaren burutaera eta mundu-ikuskeretatik arras diferenteak dira.

Izan ere, ezker eta marxismo klasikoek, zientzia naturalekiko harreman anibalenteak bazituzten ere, zientzia haien begiramen handia zuten eta harremanok gogotik bilatzen zituzten. Ez dago Engelsen aha-leginak aipatu besterik. Ezker berria, ordea, oraindano batik-bat, ez da hortaz deusik axolatu. Beharbada zientzia naturalek, ezker berrion ikuspegirako, mentalidade kontserbakorraren defentsa beren gain hartua duketelako... Eta, halere, gizonaren natur zientzien aur-rerapenik handienak Engelsez gerozkoak dira.

Monod, Lorenz eta beste jakintsu askok beren zientziak «ideologien» kontrako «ideologia» bezala oso gogor erabili dituzte. Marxismoari bereziki gogor eraso diote, zenbait aldiz. Baina horri ez litzaioke kasu gehiegirik egin behar: zientifikoek ere, beren zientzietatik kanpora, beste edozeintsuren mugapenak dituzte. Alabina, garrantzizkoa da, natur zientzien eta sozialismoaren teoriaren artean sortu den haustura, estrainiazioa eta leizea, askotan etsaigoa eta elkarren desprezioa, kontutan hartzea.

Garai batetako mentalidadea, Aro Modernuaren haseretakoa hain zuzen, Kopernikok eta Galileik moldatzen zuten. XIX. mendeko sozialistak, beren teoriak Darwin-en teoriekin bateratzen biziki saiatu ziren. Oso nekez, baina marxismoak Freud eta psikoanalisi ere azkenean haintzakotzat hartu dizkigu. Marxismoak erlatibidadearen teoria eta *Quanta*-teoria konbatitu ditu (alferrik, noski!), etsi-etsian onartu aurretik. Lysenko-ren teoria genetikoetan tematu da, amor eman behar izan arte, etc. Zientzia naturalak objezio bat bestearen ondoren jartzen ari zaizkio marxismoari. Gero, estudio piska bat gehiagorekin, ez zegoela halako objeziorik ikusten da. Baina, nolana ere, marxismoa defentsiban bezala dago natur jakintzen aurrean: haiek aprobetxatu eta bere baitaratzen ausartu gabe. Oraindik ere, zein marxista edo neomarxista enplegatzen

da biologiaren, neurofisiologiaren, etologiaren aurrerapenekin, bere teoria eta asmoetarako ondorioak ateratzeko, eta sozialismoaren teoria aberasteko edo korejitzeko?

Eta hain garrantzikoa litzateke guzti hori.

Adibide bat emateko, agresibidatearen hauzia aipa genezake. Batak, edozein agresiori gizartearen tankean, familian, inguramenean, aurkitzen dizkio sustrai eta esplikazio guztiak. Umearen antsiak, gaztearen frustrazioak, gizonaren agresibidateak eta kikildurak, zaharraren hesturak eta axanpak: denak gurasoek eta gizarteak itsatsiak. Besteak, ordea, horiek denak abereen soziedatean ere aurkitu uste ditu, gizononean bezalaxe, eta biologiaz edo neurofisiologiaz ederki esplikatu ditzakeela pentsatzen du, haientzat gizartean kausa espezifikorik batere haintzakotzat hartu gabe.

Zergatik egiten dira guduak? — Klasetan hautsirik gaudelako? (Marx). Arraza eta etnietan banaturik gaudelako? (Mead). *Ikasia* ote du gizonak agresibidatea (Skinner) ala *berezkoa* (Lorenz)? : kulturak erantsi eta itsatsia ala espontaneoa, bere oldezkoa eta bere baitakoa? (Hots, ez portaera agresibua bera espontaneo, ezpada agresibidatearen programa) Hau da: kondizio sozialak aldatuz eta hezkuntza zuzen batez, agresibidatea guregandik arras aienatzerik ba ote legoke, ala kontrolpean edukitzea eta zuzen orientatzea bakarrik? Hona hemen, hamaika problema inplikutzen duen problema zentral bat.

Bistan dago, bi ikuskeren diferentziak, zientzietako diferentziaz beste, ekintza sozial guztirako estratejia diferentek eskatzen eta agintzen dituela. Biok gizonaren eta gizartearen burutaera diferentek oinarritzen dituztela, eta geroari begira ere, perspektiba diferentek irekitzen dituztela.

Beharbada, gizonaren zientzia naturaletan dabilzenez gaur-gaurkoz irribarre errukior batez begiratzen diote «soziologoari». Honek, halere, ez daduka haiei

azkeneko hitza uzterik, ez eta zientzia haien emariak ignoratzerik ere.

Denok dakigu, zientzia naturaletako teoriak jeneralean ez dutela teoria soziologiko edo psikologikoen erraztasunik sinplifikazioetarako eta, beraz, kalera ailegatzeko eta jende artean zabaltzeko. Etologia edo abereen estudioa, ordea, zabalkunde handia ezagutzen ari den adaska bat dugu. Eta, zabaltzen ari den moduan, arrisku txarra dukegula, susmoa har dakiok. Askotan, izan ere, edozein ezberdintasun, agintarismo, agresibidade eta burruka sozialen onespren eta lejitimazio bezala presentatzen da: «guzti hori bidezkoa da, naturala da guzti hori», esanez bezala. «Guztiz naturala da batzuek agintzea eta besteak mendean egon behar izatea», «guztiz naturala batzuek indarrez eta gogorkeriaz pribilegioak irabaztea eta zaintzea», «Natura ezaren legeak besterik ez dira horiek denak», etc. Gizartea eta abereen soziedadea berdintze horren kontra irten beharra dago, deliberamendu guztiz. Abertasun soilaren gaintiko zerbaitzat bait daduzkagu geure buruak eta kultura.

Baina jadanik zaila izango da, gizonok abere *ere* bagarela kontutan hartu gabe teorizatzea. Sozialismoaren teoriak orain arte baino jaramon gehiago egin beharko dio honi.

Sozialismoaren teoriaren eta natur zientzien arrotasun zaharraz gainera, beste arrazoi bortitz bat dago ezkerak zientzia horiei kasurik ez egiteko, eta haiei, askotan, erresistentzia amorratua egiteko: gizona berez ona den ustea. Mito zahar bat, eta fede oraindik bizi-bizia. Ezker klasikoetan baino biziagoa, gainera, ezker berrietan.

2.4. Gizona berez ona omen da

Aro Modernuaren eta giza jakintzen desarroilo modernuaren haseran hipotesi arrunt bat dago: gizona berez ona omen dela. Askok Rousseau-ren asmaziotzat daduka tesi hau.

Hori ez da inola ere agia, noski. Rousseau baitan aurkitzen dena «arketipo» klasiko bat da. Aspaldiko mito bat, Aro Modernuari aplikatua: natura birjinaren, naturtasun eta natur-herri dohatsuen mitoa. Hamaika mila adaska duen mito bat. Asko sinplikatuz mintzatu naiz, problemaren gakoa garbiago uzteko.

2.4.1. Mitoa

«Natur herriak» onak, zorientsuak eta ohitura zuzenetakoak, etab. direla, aspaldidanik esaten zaigu. Jadanik Rohd-ek erakutsia dago (*Der griechische Roman und seine Vorläufer*, 1876), eta Autore honek Homero eta Hesiodo-ren adibideetan garbi azaldu zigun burutapide honen barneko egitama: gizona, jatorrizko «parabisua» galduz gero, gero eta beherago amilduz omen doala. Jatorrizkoa da jator eta osatu: haseran dago Urre Aroa. Hasera zorientsuaren mitoarekin bategiten du natur herrien mitoak. Mito honek Biblian, eta Bibliaren bidez mendebaleko tradizioan, duen inportantzia ez dago aipatu beharrik. Mito honen desarroilo *mitologikoak* ezagutzeko Mircea Eliade ikus daiteke (hemen mitoaren desarroilo *kulturalari* baka- rrik begiratuko diogu).

Hein berean, mito honek funtzio kultur-kritiko eta pesimista hartzen du: natur herrien edertasuna herrialde zibilizatuen katramilekin alderatzen da. Herodotok greko zibilizatuen nahaspila eta buruhausteei natur herrien sotiltasuna eta xalotasuna kontrajartzen

dizkie. Espartaren eta Atenasen arteko (Peloponesoko) guduen ondoren Tukididek zibilizazioaren eta kulturaren ezinbesteko ondorio bezala ikusiko ditu gu-
duok: kultura berez *tragikoa* dela, deritza Tukididek. Agian, atzera «amaren sabelera» itzultzeko tirriaren adierazpen freudianoaren analogian (Freudek oharkabean aktualizatzen zuen mito bat berau ere!), kulturabiadak bere baitan dakar denbora arkaikoen nostalgia... Peru Abarka goraltzen zuen izpiritu berak bermitologizatu du Euskal Herriaren aitzinatea, berbitzen edo eusten die Kanta Zaharrei, asmatzen du *Lelo hil Lelo*, fantasiatzen du *Aunemendiko lorea*, berbizten du —mistifikaturik— akelarreen erromantizismoa, etab. Gaurko euskaltzaletasunari berari ere arkaismoak biziki gustatzen zaizkio: Leizarragaren aditz formarik bitxienak nahiz «gaurko sensibilitateari hain atsegin zaion arkaismoa» Detxepare baitan (Sarasola) etc. Eta berdin, bertsolariak edo herri-ipuinak halako benerazio mistikoz inguratzen badira. Mitoa bizirik dago, eta gutiena uste den formetan eragiten segitzen du: gure pentsamenduaren mamian nahiz formetan, gustoetan beretan ere.

Alesandro Mazedoniakoren konkistekin grekoek ezagutzen zuten mundua hagitz zabaldu zen, eta natur herrien mugak ere urrundu egin ziren (herri erdi-ezagunek bakarrik bait dirudite beti ere benetako «natur herri»!): eskiten orde z hiperboreoak, etiopiarren lekuan antipodak ziren orain «natur herri». Eguzkialdean India agiri da ideal antzean: Onesikritok eta Megasthenek Indiako egoera sozial eta politikoen berri ematekoan, jende haien aszetismoa eta urritasun izpiritua goraltzen dituzte. Properzio eta Valerio Maximo erro-matarrek indiar emaztearen apologia bat eginen dute: heriotzean bertan gizonari jarraitzen dionaren leialtasuna goralduz... Ikusten denez, ohiturarik barbaroenak ere idealizatzea ez da asko kostatzen, prejudizio batzuekin.

Ezagutzen ez dena edo erdi-ezagutzen dena balio ederrez hornitzen da: urrutiko bazterretan etxean baino ontasun gehiago ikusten da beti ere. Sobiet Batasun erdi ezagutuan, Txina guztiz ezezagutuan, inon baino bizimodu naturalagoak, ederragoak, zuzenagoak, aisa imajina litezke. Eldorado, inork ikusi ez zuen lurralde bat zen, eta halaxe da gaur arte ere. Gure lur hau tristea da, baina batzuek izartegien espazioak eder eta on eta ziragarri kausitzen dituzte. Ikus, esaterako, X. Garmendiaren *Lurraren kondaira*-ren 35. orrialdea.

Beraz, gizona berez ona omen delako mitoan, haseren, urrutiaren, ezezagunaren, etc. mito diferenteen konberjentzia gertatzen da. Puntu komuna zera da: natura ona dela. Naturatik berezten eta urruntzen gaituzten kultura, teknika, eta bizikera politiko edo sozialak, geure buruaren hondamendia direla.

2.4.2. *Mitoa gaur*

(Ez noa azterketa sakon bat abiatzera).

Mitota bera ez da ezer harrigarrik. Harrigarria, eta biziki harrigarria, mito honek Aro Modernuan hartzen duen inportantzia da. Horregatik, mito honek orain —Aro Modernuan— betetzen dituen funtzioak argitu beharko lirateke: bai zientzietan eta bai bizitza sozialaren burutaeran jokatzeko dituen funtzioak, alegia.

Mitota honek zientzietan engainu asko sortu du: herri primitibuen estudiantzerakoan, esate baterako, haien ohiturak naturalizat, jatortzat, garbitzat, hartzeko jorera bizia, ez da horrelakoxe engainu bat besterik. Jatorri animaletik urrunduta, guti gorabehera herri haiek eta herri superzibilizatu modernuak urruntasun berdintsura daude. Orobat, natura gizonaren eredutzat

jartzea engainoso da. Eta gaur, abereen bizimodua eta ohiturak azterkatuz gizonaren «naturaltasuna» aurkitu eta finkatu nahi baldin bada, abereen eta gizonaren bizimodua analogia errazegiz lotzeko arriskua nabarmena da berriz ere.

Jeneralean, *naturara balio batzuk proiektatzea* (ezen ez balio horiek han kausitzea), da arriskutsua: «ideologien» arriskuz, Marxek hauk ulertzen eta kritikatzten zituen esanahian. Areago, naturaren beraren hamaika interpretazio faltso eta animistari bide ematen dion jokabidea dugu hori.

Mito hau bariazio molde askotan agertzen da, ipuinetatik eta mitologietatik eta artetik kanpora ere, «arraoizko» kultura izan nahi duen pentsamenduan:

- indio «jator» eta noblearen irudipena mito horren agerkeria bat da. Berdin hiritar petralaren buruz-buru baserritar zintzo. jatorra ohoratzea ere.
- Predikariek sarri predikatu dute, eta teologok berek ere maiz pentsatu dute, teologorik jakintsuenak baino gehiago «dakiela» amonatxo ezjakin baina debota eta apalak. Arrunki, teologiaren gaintetik jarri izan da mistika. Platon eta Aristotele baino jakintsuagotzat zedukan Savonarolak sukai baztarreko edozein atso fededun: «mundutar» zientziak ezin jakindako gauzak omen dakizkielako. Denok dakigu Pascalen bihotza buruak ezindako zenbat zekien. Luterok arrazoimenari judizio gogorra egiten zion. San Franzisko Asiskoa liburuen mesfida handi zen. Petrus Damionus-en kontsiderazioan, mundutar jakintzak estudiatzen dituen monjea, emazte zintzoa utzi eta emagaldutan dabilenaren antzeko omen da; saindu honek liburu bat ere idatzi zuen *De sancta simplicitate scientiae inflanti ante-*

ponenda izenburu politarekin. San Paulori ere ez zitzaion gauza handirik iruditzen mundu honen jakituria.

- Kristaun antzera juzgatzen dute funtsean anarkistek ere: Bakunin-ek *zientziaren kontrako bizitzaren errebolta* predikatzen zuen. Marxek zientzia sozialismoaren zerbitzuen erabili nahi bazuen, Jan Waclaw Machajski anarkistari, *intelligentsiaren* pribilejio-interesen produkto iruditzen zitzaion teoria guzti hori: teknikoek, ikasiek eta adituek burgesia zapaltzailearen lekuan gidaritza eskuetaratzeko aitzakia (Platon filosofoak ere Errepublikaren gobernua filosofoen eskutan uzten zuen moduan). XIX. mendeko proudhonistak bezalaxe XX.eko Sorel eta jarraikileak, zientzien eta intelektualen aher dituzu.

- Eta marxismoaren baitan ere nabari daitezke mito honen aztarrenak: jakintsu burges jakintsuenak bere gabinetean baino gehiago omen daki burrukan ari den proletarioak etc.

Kristautasunak (egiaren errebelazio batekin) eta mogimendu iraultzagileek (iraultzaren teoriaren premiarekin) mito hau batez ere *egiari* erreferitu diote. Baina ez da «egiaren» problema askatu nahi duen eta intelektoaren mailan bakarrik gelditzen den mitoa. Berrez mitoa gehienetan, eta adimenaren mailan baino gehiago, balio moralen hesparruan desarroilatzen da. («Naturara itzultzeko» gaurko modarekin, batez ere, edozein huskeria «gauza natural» delako jateraino ailega daiteke mito honen eragipena). Alabaina, egia bera ere jakite edo ezagupen neutro bezala ez baino beti balio moral bezala ere kontsideratzen duen mendealdeko tradizioan, bi mailek erraz bategiten dute: india, baserritarra, etxekoandre fededuna, proletarioa, etc. jakintsuak baino «jakintsuago» dela pentsatzetik,

besteak baino «jatorrago» eta bertutetsuak baino hobe (bertutetsu horien bertuteak azken finean ez bait dira bertutetzat joko) dela pentsatzera aisa ematen da pausoa. Era honetan gizon sinplea berez ona omen den mitoak askotan hartzen duen tankera bat zera izango da: gizon sinplea berez jakituna dela. Sinpletasunak, ontasunak eta jakituriak, ekuazio mitiko bat egiten dute. Eta hiru dohain horiek, hirurek, natura dute beren iturburu komuna (9).

Tradizio intuizionista bat dugu hau. Anti-intelektualista. Bitalista eta borondatista. Tradizio espekulatibuaren arras kontrarioa.

Ezpairik gabe, bere alde onak eta txarrak ukan ditzake. Onak: mundu honetan ez dagoela dena «adimenaz» atzematerik eta konprenitzerik gogarazten digunean; eta adimenaz atzematzea edo ezagutze soila baino inportanteago dela ekintza; espekulazioa baino gehiago bizitza, etc. Alde txarrak: anti-intelektualismo hori printzipiozko bihurtzen bada, espontaneidarearen mistika bilakatzen bada (kristau sekta askotan eta marxismoaren historian ere gertatu izan den moduan); erromantizismo antikultural itzultzen bada (proletkulturalismoan egiten duen eran), etab.

2.4.3. *Antimitoa*

Munduari parabisuren batez hasera ematen dioten ondoan, unibertsoaren eta gizonaren hasera kataklismoren batez abiarazten duten mitoak daude. Eta mundu zibilizatu ezagunaren inguruak (zibilizatutzat jeneralean nork bere herria hartu ohi du) natur herri zoriontsuz biziturik imajinatzen dituen ikuskeraren ondoan, inguruak barbaroz eta basapiztiz beteak imaji-

(9) Tradizio guzti hau dagoelarik, Peru Abarkaren apologia bat esplikatzeko, ez da ikusten Rousseau-ren ezinbestezko premiarik!

natzen dituen ikuskera dago. Natura maitagarri eta onaren ondoan, azkenik, natura gaizto, anker, etsaia-
ren bururapena: burukatu eta bentzutu behar den na-
tura, edo beldur zaion eta ihes egiten zaion natura.

Sozialpsikologoentzak utz genezake bi mito kon-
trario hauk —mitoa eta antimotoa esan geniezaieke—
elkarrekin batera nola bizi litezkeen esplikatzea.
Oraingoz horixe kostatatu besterik ez dugu behar: biak
batera ibiltzen direla. Eta aro bakoitzak bere erara
lortzen duela sintesia.

Antimitoa mitoa bezain zaharra dugu. Eta kultura-
ren historian zehar, mitoa bezalakoxe ibilbide harri-
garri eta bihurrietatik dabilela ikusten dugu, aurrera
ibili, gureganaino ailegatu arte. Sobiet Batasuna erdi-
ezagutzeak eta Txina deus ez ezagutzeak makina bat
beldur itsu sortu du, esaterako. Bere kulturaren ere-
muan zoriontsu ez bada ere, gutienez seguru sentitzen
da gizona. Ezagutzen dituen mugetatik harakoa mun-
stroz eta mamutzarrez betea imajinatzen du.

Erdi Aro guztia honelako irudipenetan irakiten da-
bil. Kartografian bertan lurralde ezagutuen mugak no-
la adierazten diren ikusi besterik ez dago. Ikusi eta
miretsi, zein munstro fantastikoak diren munduaren
mugetan mehatxatzen dabilzkigunak. Erdi Aroan anti-
mitoa da nagusi. Ez du hori inork hobeki azaldu, Aro
Modernuaren hastapenetan Goyak baino.

Grekoen eta erromatarren ondoren germanoak na-
gusi altxatzen direnean, irudipenok izugarrizko in-
darra hartzen dute. Ez da, kultura grekorromanoa gain-
behera amiltzen dela bakarrik: mentalidade ilunbetsu
eta tragiko bat nagusitzen da. Inkisizioa, sorginak, or-
daliak, *Auto de fe*-ak, etc. esplikatzeko, guztiok tra-
dizio judegu-kristauak edo grekorromanoak ekarrita-
koak bezala esplikatzea baino errazago dirudi, ipar
lainotsuko tradizio germanoen ekarri bezala esplika-
tzea. Ez, noski, kristautasunaren zerikusirik eta parte
kriminalik gabe.

Germano kristautuak gogotik atxekitzen zaizkie mitologia grekoari eta judegu-kristauari: zientzia grekoari baino sutsuago. Harrez gero, mundua eta itsaso eta aideak, jadanik Homero eta Herodotoz geroztik ezagutzen ziren eta batez ere Plinio, Ponponio Mela eta Ktesiak arrunki zabaldu zituzten amazona, pigmeo, zentauro, kinokefalo (zakur-buru), aho edo buru gabeko, begi bakarreko eta antzeko piztiz beteta imajinatzen dira. Irudipenok jakintsuak berak ere serio-ski enpeinatzen dituzte. Albertus Magnus-ek guztiz serio-ski penatzen zuen kaskoa, pigmeoak gizon ote diren ala ez espekulatzen. (Herodotok zioenez, pigmeoak Niloren iturburuetan eta kurriloekin burrukan bizi diren giza-kaxkar batzuk ziren. Egiptoko erreliebeetatik ere Herodotok deskribatu bezalaxe ezagutzen ditugu).

Mongolen erasoaldiko beldur-ikarak hegalak eman zizkion irudimen honi: erasotzaileen aurpegi arrotzak eta zaldunon gogortasunak, eta gutien uste zenean erasotzeak (tropa guztiz mugikorrek bait ziren), mongol guztientzat tataro izena erabiltzera eramane zuen (berez herritalde mongol baten izena) eta izen hau *tartaro*-rekin (ifernu) erlazionatzera. (Beharbada ordukoak edo ditugu tartaloen kontuak). Hungaro edo magiar-en inbasioekin berdin egingo da: magiaren Magogeko hiritartzat hartuko dira. Eta batzuk zein besteak, antikristoaren laguntzaile eta gizatxar apokaliptikotzat. Giovanni del Monte Carpino italiar frantziskanoak, Khan Handia Mongolian bisitatu zuelarik, izugarrizko etimologiak muntatu zituen mongoliarrak zinez Gog eta Magog-ekin berdintzeko, eta asiatico hauk deabruaren umeak zirela erakusteko.

Eguzkialdetik mongolek eta hegoaldetik arabeek mehatxatuta, Europa bere baitan biltzen da: baina bere baitan ere jadanik ez dago Greziarik edo Erromarik. Elizak, mitoek eta fedeak, bekatuaren beldurrak, sorgin histerismoak, deabruak alde guztietatik, domeinatzen duten Erdi Aro garaiaren kontra jeikitzen

da Aro Modernua: eta antimitoaren nagusitasunari mitoa kontrajarriz.

Hori gogoan hartu behar da. Eta antimitoaren —hots, Erdi Aroaren— deskribizioan gehiago luzatu beharrik ez dago.

2.4.4. Aro Modernua

Aro Modernua Erdi Aroaren aurkako erreazioz jaio da: baina Aro Modernua polliki polliki bakarrik ari da Erdi Aroari gain hartzen. XVII. mendetik XX. mendera aldakuntza handi eta asko sortu da, noski. Hemen arrunki bakarrik mintza gintezke.

Aro Modernua optimista da. Erdi Aro ilunaren kontrast, Aro Modernua *argien aroa* da: arrazoimenean eta progresoan sinesten da, zientzian sinesten da, gizonagan sinesten da.

Rousseau-k egin zuena (baina ez harek bakarrik!), gorago adierazi den bezala, zera izan da: gizonaren berezko ontasunaren mitoa bere garaiko gizartearen azterketarako eta kritikarako printzipio bihurtu, eta printzipio hau Aro Modernuaren begira desarroilatuz, pentsaera modernuaren ardatz ezkutu bihurtu.

Aro Modernuaren ezagugarri nabariena J. M. Torrealdayk primeran azaldu dizkigu *Iraultzaz*, Jakin 1973, liburuan. Liburu honetako 4, 5 eta 6. kapituluak oso-osorik irakurtzea komeniko litzateke. Hemen, nolana ere, kapitulu horien ezagupena suposatzen da.

Gure garaiarekin zuzen-zuzen loturik dagoen puntu pare bat destakatuko dut:

Progresoaren sinesmenak — eskuarki gizonaren ontasun eta ontasunerako gaitasun naturalaren sinesmenarekin bategiten du. Historiaren aurrerapen sinesmena, Augustin Hipponakoa eta Orosio eta loakin Fio-reko zirelako arren, Erdi Aro guztia barna ezin na-

gusituko da. Aitzitik, luzaroan historia kosmoaren analogian adieraziko da, tradizio greko-estoikoaren gisan. Bossuet-ek berriztatuko du tradizio hori (*Discours sur l'histoire universelle*, 1681): eta Gotzain kontserbadore hauxe izango da, Aro Modernuari berritasunaren haririk irmoena emango diona. Hau da: historia helburu jakin batetarantz doala, plan baten arabera. Progreso bat baduela. Probidentziak ezarri du historiaren helburu hori, eta on eta gaitzen bidez, batzutan zuzen eta bestetan zeharka, probidentziak helburu hartara darama historia. Ikuspide honen sekularpena laster egingo da. Voltaire-ren *Essai sur les mœurs et l'esprit des nations*, 1756, Bossuet-en kontra pentsatutako saiakera da: baina jadanik Voltaire-k ere xede jakin batekin ikusten du historia. Honek seinalatzen duen historiaren helburua ez da Jainkoaren erreinua, izpirituaren erreinua mundu honetan baizik. Egiatzko historia ez da Jainkoaren obren eta egintzen historia (hots, funtsean Elizaren historia), ezpada ohitura moralen, legeen, arteen historia; hitz batetan, *progrès de l'esprit humain* delakoaren historia. On eta gaitz bidez, batzutan zuzen eta bestetan zeharka, arrazoimena polliki polliki garaituz eta nagusituz doa.

Burutapide berbera Turgot-ek ere (Voltaire-ren garaikidea).

Torrealdayk Condorcet-en *Esquisse d'un tableau historique des progrès de l'esprit humain*, 1793, liburuko pasarte paregabe hauxe dakarkigu:

Gizatasunaren aurrerapena argien eta zientzien aurrerapenean bil-laburtzen da, eta ez beste ezertan. Hauxe da eginen dudan liburuaren helburua, eta ondorioa beste hau izango da: arrazoigintzaren eta gertakizunen bidez, giza-ahaltasunen hobekuntzari naturalezak ez diola neurririk jarri; gizonaren hobegarritasuna benetan amaibakoa dela; hobegarritasunaren aurrerapenak (geldiarazi nahi lukeen ahalmenengandik aske dagoelarik),

naturalezak jaurti gaituen lurbiraren epeaz beste mugarik ez duela (10).

Ideioak, gero, Saint-Simon-ek Hegelek eta Marxek desarroilatuko dituzte, eta gure egunotaraino ailegatu-tuko dira, gaur krisian erortzeko.

Progreso sinesmen hau Rousseau-ren «gizon berez onarekin» kontradizioan dagoela pentsa liteke lehenengo une batetan: ontasun osoa, bururapen progresista honetan, progresoak bakarrik ekar bait lezake; Rousseau-ren ikuskeran, aldiz, ontasun osoa jatorrizko eta haserako naturaren dohaina da. Ez dut esango, Autoreen artean diferentziarik ez dagoenik. Eta gutiago, ideioak Autoreen artean inoiz egiazko kontradiziorik sortu ez dutenik. (Rousseau-rena bezalako aiurri petral batekin kontradizio pertsonalean erortzea erraza bait zen!). Baina Rousseau bera utzi eta ideioak Aro Modernuaren osotasunaren baitan hartuz, elkar argitzen eta osatzen duten ideiak gertatuko dira. Horrela bakarrik esplikatu daiteke, bestalde, Rousseau-ren ikuskera kontserbakor eta erreazionarioak Aro Modernuaren haseran halako eragipen aurrerakoi aparta jokatu izana.

Gure problemaren erdigunea hauxe dugunez gero, puntu hau zehazkiago azaldu beharko da. Alegia, nola elkartzen diren natura eta historia. Puntu oso zaila eta nahasia dela aitortu behar (Torrealdayren liburuan ere ilun gelditzen da). Eta aitortu egin behar, halaber, hiru mendetan zehar sumatzen diren dinamika eta ideia dominante ezberdinak sintesi labur batean biltzeak nahitaez duela zerbait artifizial. Saia gaitezen, halere.

Torrealdayren liburuan, 107. orrialdean, irakurtzen da:

Oinarri sostengarri eta bategile hori naturaleza, da, giza-natura. *Sequere naturam* dio garaiko esaerak. Hori da pentsaburuaren eta bizimoldearen erreferentzia.

Eta 113.ean, are ederkiago:

XVII-XIX mendeetako gizonarentzat, *naturalezaren izpiritu-forma dela gizartea*, idatzi du norbaitek.

Honekin kontrastean, gizon modernuak, progresoan eta zientzian sinetsirik, naturaz nagusitu egin nahi du orobat. Eta, hori, naturaren *eredu izatearekin* kontradizioan ikusten du Torrealdayk. Beraz, 121. or. beste honoko hau irakurtzen diogu:

...Aintzinateko gizonarentzat naturaleza eredu zen. Naturalezaren arabera bizitzea zen gizon horren jomuga, estoikoek eta epikurozaleek zer dioten gogoratu besterik ez dukezu. Gizon *modernuarentzat* naturaleza ez da eredu (Rousseau-zalaren joeraz aparte), erabaki behar den problema tekniko bat baizik; konkistatu, antolatu, menderatu egin behar den zerbait, alegia.

Descartesek zioen: *Izadiaren nagusi eta jaun bilakatu*. Hori da pentsaburua. Gainontzeko gizarte-mota guzien kontrara, *naturalezaren kontra borrokatzea* nagusituko da gure artean. Descartes en antropozentrismoarekin, gizona bihurtuko da erreferentzia beharrezkoa, *sujetua*. Eta naturaleza? *Objetua*, azterketa-terrenoa, menderatzeko objetua. Gerozkoan, naturaleza desmitifikatua eta desmistifikatua dago, hots, zientziaren terrenoa da. Iraulketa XIV-XVII mendeen artean gauzakotzen da.

Pasarte luzetxoak aldatu ditut: izan ere, doi-doi ager liteke problemaren erdi-erdiko korapiloa, Torrealdayren zalantza honek egiten duen baino hobeto.

Haustura hori guretzat ebidentea da. Baina ez dut uste lehenagoko mendeetan ez garbi ikusi eta ez sentitutu denik. Uste dut zientziaren martxari begiratzen

bazaio, haustura hori jadanik XIV. mendeaz gero nola prestatuz datorren ikus daitekeela. Hori bai. Zientzia naturalik dagoenez gerozko guztian, beharbada: zientziak natura desakralizatzen bait du. Baina kontradizio edo haustura horren kontzientzia garbia XIX. mendean sortzen da, ez lehenago, eta une hortantxe bertan sortzen da Aro Modernuaren krisia. Gure egunotan leher egin duen krisia. Ordura arte, menderatu behar den natura eta gizonaren eredu den natura bateratzen nekerik gabe asmatu da. Gaur haustura eta kontradizio bezala ikusten eta sentitzen badugu ere, ez dago kontradizio hori lehenagoko mendeetara proiektatzerik.

Mitoaren eta antimitoaren puntura itzuli gara, hortakoz. Zer da natura: adiskide eta maitagarri, *eredu*, ala gizonak burukatutako eta menderatu behar duen *objetu*? Lotu eta menderatu egiten gaitu (lotura horrekin, estoikoen antzera, pozik bagaude ere), ala lotu eta menderatu egin behar dugu?

Aro Modernuan ere bi bururapenak, mitoa eta antimittoa, batera kausitzen ditugu. Orain ez digu inporta zein Autorek zein bururapen gehiago azpimarkatzen duen: funtsean, Aro Modernu guztia zehar eta Autore guztiak barna, bi bururapenak gurutzatzen eta korapilatzen dira. Eta inporta diguna da, biok *nola* bateratzen diren.

Nik uste, batasun hori batez ere sorgin-kurubil batek lortu duela. Alde batetik natura, eta bestetik naturaren menderatzea daude. Natura batetik, eta bestetik arrazoimena eta zientzia, historia, progresoa. Baina denak bateginda, oraindik. Guzti hauk —arrazoimena etabar— natural bezala ikusten bait dira. Eta natura ere arrazoizko bezala.

a) XVII. mendean, erlijio eta sekten hainbeste guduz eta nahastez nazkatuta, oinarri komun bat bilatzen denean, *erlijio natural* baten bila itzultzen dira izpirituak. Errebelazioak egia segururik garantiza

ezin lezakeenez gero, erlijio gdukek eta eztabaidek erakusten dutenez, egia seguru eta irmo hau naturak eman lezakeela pentsatzen da. Arrazoimenak, noski. «Erljio natural» eta «arrazoizko» honetan Jean Bodinek aina sinestu dute Leibniz-ek edo Voltaire-k, eta Robespierre-k berak ere. Erljio «positibuek» erlijio natural hartatik deribatuak dirudite. (Askoz beranduago ikusiko da, «naturak» ez duela erlijiorik batere ezarzen eta irakasten).

b) Arrazoimena aipatzen denean, nahi ezta ere, grekoen Logos natural eta kosmikoaz, unibertsalaz, oroitu beharra dago. Arrazoimena ez dago naturatik «aparte». Izadi guztiaren barnean dago, izadi guztia betetzen du. Beraz, natura menderatzen afanatzen delarik ere, arrazoimena ez da «kanpotik» ari, eta bai naturaren baitatik eta, beraz, «naturalki». Ilustrazioak ez du kontradiziorik sumatzen natura eredutzat hartzearen eta natura menderatzearen artean.

d) Naturaren eta arrazoimenaren batasun hau —Ilustrazioak bururatzen duen batasuna, alegia— hainbat garbiago sumatzen da Dretxoan. Montesquieu-k (*Esprit des Lois*) deritzanez, lege unibertsal batzuek gobernatzen dute izadia: izaki arrazoimendunak nahiz gabekoak. Lege mekaniko eternuek lehengoak, eta arrazoimenaren lege eternuek gizonok. Agian Spinoza da naturaren eta gizonaren batasuna osokienik pentsatu duena: gure sentimenduak berak ere *communes Naturae leges* batzuek erregulatzen dituzte. Gure obrak, ekintzak, instinto edo senak, figura geometrikoak bezalaxe kontsideratu behar dira. Lamettrie-ren *Homme machine*-k, abereak automatik omen direlako irakaspen kartesianoaren ondotik, gizona makina hutsa dela irakatsiko du. Holbach-ek unibertso guztia berebiziko makineria bat bezala bururatzen zuen, eta uste korrientea da hau. (Condillac-en jarraikile Cabanis-ek zera esaten zuen, maki-

neriaren funtzionamendua deskubritu zuelakoan: *Les nerfs, voilà tout l'homme*). Baina, bestalde, materia guztia biziduna eta arimaduna zela pentsatzen da: hala Diderot-ek (*la pierre sente*), Robinot-ek, etc. Makineria horren funtzionamendua erregulatzeko Dretxo naturala dago. Gizona zoritxarrekoa baldin bada, natura ezagutzen ez duelako da (eta giza-natura inkluditzen da, noski). Eta, azken finean, Dretxo guztian bilatzen dena, ez da *loi naturelle* hura besterik: zoriorenaren zimentarria, egiazko moralarena bezalaxe, *ordre naturel* delakoa besterik ez bait da. Eta horixe berbera da ekonomiaren nahiz politikaren xedea ere. Ilustrazioak, arras estoikoek bezalaxe, naturatik irabazi nahi du morala: jadanik garbi agiri bait da, tradizioetik edo errebelaziotik ez dagoela irabazterik. «Dretxo naturala» guztiz modu aristoteliko eta estoikoan, hots, grekoan, bururatzen da. *Nature, raison, ordre naturel*, kontzeptuak, estoikoengandik datozkio Ilustrazio frantsesari (gehienetan Zizeron-en bidez). 1793an *Catéchisme du citoyen français* izenburu esanahitsuarekin agertutako Volney-ren izkribuak, izenburuan bertan azaltzen du batasun horren tankera franko garbi:

La loi naturelle ou principes physiques de la morale, déduits de l'organisation de l'homme et de l'univers!!!

Azken finean sintesi hau dago: gizona «natural» da, eta natura «humano» da.

Horra ba: Errebelazioa eta tradizioa krisian erori baziren ere, bazen oraindik oinarri irmo bat, *zer egin?* galdera zailari, eta *zer da egia?* aspaldiko galderari, erantzun sendo eta ezeztazina emateko: natura. Gizonaren natura bera ukatu gabe ukatzerik ez zeuden egia eta norma moralak irabaz zitezkeen. Ilustrazioak hala uste zuen behintzat. Utz dezagun oraingoz bazterrera, uste hau nola suntsitu den.

Alde batetik gizonari «natural» baderitza, hortakoz, bestetik naturaren beraren bururapen sozio-morfo nabar-nabarmena dadukagu. Eta Rousseau-k *atzera naturara* itzultzeko ideia modan jartzen badu, ez dago hori gaurko mentalidadearekin nahasterik: gaur naturara itzultzeak, gehien-gehienbat arrazoimenari muzin egitea inplikatzen du, «arrazoimenaren frakaso» sofritzen bait da. Baina XVIII. mendean naturara itzultzeak dogma eta tradizio elizkoietatik arrazoimenera itzultzea aina adierazten zuen. (Rousseau-ren esaldi kirtenen batzuk — *pentsatzea antinatural da*, etab. — ezin engaina gintzakete). Saloetako damek Rousseau-ren naturarekin sentiberentzako idilio goxo bat ulertzen bazuten ere, eta satirikoek Rousseau-ren naturan gizonak larrean ikusten bazituzten ere, faltseapen hutsa da hori: esajerazioren batzu gorabehera, Rousseau-ren natura, eta XVIII. mendeko filosofia guztiarena, funtsean idiliko edo basa-natural ez baino natural-arrazoizkoa da.

Natur-filosofia sozioromorfo hauxe da, lehenengo teoria ekonomikoak inspiratzen eta moldatzen dituen ere. Problema pedagogiko guztien askabide magikoa Rousseau-k formula dizdiratsu honetxetan proposatzen zuen: *Laissez faire en tout la nature (Emile ou de l'éducation)*.

- Rousseau-k baino askoz lehenago Boisguillebert-ek printzipio horixe bera finkatu zuen ekonomiarako: *qu'on laisse faire la nature*.
- Mende erdi bat geroago *laissez faire!* deritzanezko sistema bururatuko du d'Argenson-ek.
- Eta Quesnay, joera honen klasikoak, ikuttu ttipi batez *laissez passer* sententziatuko du. (11)

{11} Harrigarria da nola azkeneko moda pedagogikoetan berriro *laissez faire* printzipioa nagusitu den! Ekonomian kondenaetzen dena pedagogian onartzen da.

Naturari libre utzi behar zaiola eskatzen dutenok, halere, natura esanez ez dute inolaz ere gaur entenitzen duguna adierazten. Natura, guretzat, moralki neutroa da. XVIII mendeko «humanista teknikoentzat» natura baliogo moralen ama da.

Orduko teoria estetikoetan ispirazio berbera nabaritzen dugu (Batteux, Diderot). Rokokoaren aurka, arteak ez duela natura idurikatu besterik egin behar, erabakiko da. Eta artea naturaren imitazio sasiklasiko, antzu, zozo, motel eta motzean afanatuko da.

Jadanik orrazkera eta jazkietako modak ere «naturak» diktatuko ditu: baliogo moralena bezalaxe, edertasunaren iturburu eta espilua ere natura bait da. Hileak lorez apainduko dira. Marie Antoinette-ren *à la jardinière* orrazkerak (Marquise de Créqui-k dioskunez 1785ean erreginak zerabilen orrazkera duzu hori) aza-borboil xuriz, azenaroiz eta erredilaz apaintzen zuen erreginaren burua. Eta damatxoak beren buruak baratzekariz eta hostoz eta belarrez apaintzen hasiko dira Gortean. Jardinerian «jardin ingeles» (jardin naturalen) moda inposatuko da.

Modak eta zozokeriak aparte, harmonia unibertsal harrigarri bat dadukagu begien aurrean: harriak sentitzen du (Diderot), eta landareek, planetek, munduak, arima bat dute (Robinet: Rousseau-ren *bon villageois* delakotik *belle âme* hartaraino, hezkuntzaren eredia natura da; moraltasunaren irakaslea natura da, orobat, eta edertasunaren iturburu eta espilua ere natura; natura da ekonomiaren oinarria (Quesnay: *la terre est l'unique source des richesses*) eta naturari utzi behar zaio ekonomiaren gobernu. Dretxo naturalak eratzten du gizarte bizitza edo politika. Natura da progresoren sehaska, natura zientzien eragilea. Torrealdayk *dena progresoa da* esan dezakeen bezalaxe, esan ahal izango zukeen apika Baron de Holbach-ek: *dena natura da*. Eta, azken finean, gauza berbera adieraziko zuket. Zeren eta, funtsean, Holbach-en materialismo

sonatua naturalismo besterik ez bait da: dagoen dena materia da; hots, materia guztiz «izpiritual» bat.

Atal hau ez alferrik luzatzeko, konklusio moduan tesi bat finkatuz bukatuko dut: *Ilustrazioarentzat, naturaren arabera bizitzea, arrazoimenaren arabera bizitzea, zientziaren arabera bizitzea, progresoaren arabera bizitzea, eta gizona bere naturaren —Dretxo naturalaren— arabera bizitzea, azken finean gauza bat eta berbera da.*

Tesi onek ez luke gogoeta batzuen eta elkarrizketaren hasera besterik izan nahi. Hein berean, Aro Modernuaren definizio partzial bat izan nahi luke, gure arloari begira emanda. Eta, azkenik, Aro Modernua gure egunotako krisian nola sartu den seinlatu nahi luke: sintesi zoragarri hori arras hautsi eta lur jota kausitzen bait dugu.

Izan ere, harmonia unibertsalaren jauregi hau XIX. eta XX. mendeak barna pitzatuz eta zartatuz eta kraskatuz joan da.

Argien Aroa, humanista da: beharbada Humanismoaren azkeneko posibilidade handia. Orain Humanismoa krisian dago. Kulturaren krisia da.

2.4.5. *Modernutasuna hauzitan*

Azkeneko atal honen izenburua Torrealdayri hartzen diot. Izan ere, guztiz garbi hauteman du gaurko krisiaren gakoa: *modernutasuna hauzitan* dago. Krisian dagoena ez da gizarte ereduren bat edo ideien batzuk bakarrik. Krisian dagoena Aro Modernu guztia da, *modernia*. Naturaren, arrazoimenaren eta progresoaren batasuna krisian dago.

Batasun hortan, batik bat, ez da gehiago sinesten: beraz, «izpiritu modernua» eta beronen suharra emendatu dira.

Gaur ere *arrazoizko* gizarte bititza bilatzen dugu, noski. Baina zer da «arrazoizkoa»? Arrazoimenak ez duela ilustrazioak uste zuen balio eternurik, arrazoimen kritikoak berak aspaldi erakutsi zuen. Arrazoime-naren gogoetek ihardunaren eta ekintzaren, zuzenbi-dearen, arau orokor zihurrik ezin eman liezagukete. Ez dago moraltasun zientifikorik: postuladuak eta hipotesiak besterik ez dago moraltasun arloan. Mitoak eta «errebelazioak» ematen zieten irmotasuna, arrazoime-nak eta naturak ezin eman izan diete, berak ere mitiko edo «errebelatu» bihurtu gabe. Eta «arrazoizkoa» naturak diktatzen duen hura denik esaten ere, jadanik ezin ausart gintezke: natura ez ote ditu etsaigoa, mendekua, guduak, zapalketak, nagusi-nahia, autoridade larderikoiak, «diktatzen»? Non diktatzen du naturak edertasunik, justiziarik? Beraz: nondik nora hauteman zer den zuzen, zer den gizonari dagokion jokabiderik, zer egin? Nola finka gizonaren ekintzaren helburuak? Mitoen, errebelazioaren eta tradizioaren ondoren, naturari ere «irakasteko eskubiderik» ez duela aurkitu bait diogu.

Gainera, ez dakigu batere gizonaren *natura* zer-nolakoa den.

Eta zein ausartuko litzateke *progresoak* askatasuna, nortasunaren osapena, zoriona, dakarrenik baitesten? Progreso sinesmena ere krisian dago, ilustrazioak arrazoimenean eta naturan zuen fedea krisian dagoen bezalaxe. Hori salatzen dute Horkheimer eta Marcuse neomarxistek bezalaxe *utopista negatibuek*, esistentzialismoak, hippiek, estrukturalismoak, teatro absurduak, arte eta literatura modernu guztiak. Hots, kreazio modernu guztiak, ideologia tradizionalen baitan kreatu dena uzten bada; hau da, propio modernu den kreazio guztiak.

Progreso naturala denik ere ezin esan liteke: alegia, zientziazki ezin esan liteke, demokrazia monarkia baino *naturalago* denik, sozialismoa kapitalismoa baino *naturalago* denik, etc. Izan ere, zein «naturari» er-

referitu, honelako juzgurik emateko? Lehenago esan den bezala, historismo kritikoak aurrerapen soziala «naturala» den ustea birrindu zuen. Dretxo naturalik ez dagoela agertu da (postuladu humanista gisan izan ezik). Gizonaren haserak (hots, «naturaren» finkapena) gero eta zehatzago ezagutzen ditugularik, haserok ideal naturalista-humanista batekin zerikusirik ez dutela ikusten dugu. Beraz, «ontasun naturala» historia-ren haseretatik azkenera proiektatu da: mitotik utopiara. Politikaren helburuak lehenago gizonaren «jatorrizko natura» batetan irakur zitezkeela uste bazen, hori inposible agertu zenez gero, utopia bidez finkatu nahi izan dira helburu haiek. Eta lehenengo batetan utopioek zientzia bidez zuzenets eta zilegizta zitezkeela ere pentsatu zen. Utopia, ordea, natura mitiko hura bezain guti zientifiko da. Honez gero, ba, bizitza sozial natural eta guztiz gizatiar baten asmoa, utopietako ideal gelditu da.

Gure egunok, horregatik, utopiari balio positibuak aurkitu nahirik ari zaizkigu. Zientziak jadanik oinarritzen eta zilegiztatzen ez duena, utopiaren positibutasuna erakutsiz gero, oinarriturik eta zuzenetsirik utziko delakoan, apika.

Problema, halere, hor gelditzen da: nola zuzenets iraultzaren helburu politikoak?

Eta praksian hori baino larriago dena: beren lanbi-deetan zientziek «neutrotasuna» onartu izanez gero, zientzia eta «humanismoa» elkarrengandik aparte gelditu dira. Ekintzaren helburuak, xedeak, humanismoak (edo «ideologiak») bakarrik irakats ditzake: ideologiak, aldiz, batzuk besteak baino eragikorrago, edo progresistago, edo abstraktoago, edo unibertsalago, edo gaurkoago eta aproposago, edo beste zernahiago izanen dira, baina ez batzuk besteak baino egiazkoago, zientifikoago, objetibuago. Zientziak ez dira baliogoez mintzo: hortaz ez dakite ezer eta ez dute ezer jakin nahi. Aitzitik, zientziek etengabe gogarazten dute ideologiaren erlatibutasuna. Areago, ideologiak

helburu batzuk predikatzen dituztelarik, zientziek askotan helburu horik kritikatu eta txirbiltzen eta barragarri uzten dituzte. Zeren eta ideologiak, zientziak gainera ideologiak ere (edo eta filosofia) behar-beharrezkoak direla erakutsi nahi izaten dute. Baina pentsamenduaren errepublikan zientziek ez bait dituzte ideologiak eskubide berdinekotzat onartu nahi. Behin eta berriro ikusten ari gara zientifikoak ideologiei erasotzera pasatzen direla; eta ez ideologiak, beren mugetatik irtenez, zientzien barrutira sartzen direnean bakarrik. Zientifikoek, jeneralean, destainuz edo kupidaz begiratzen diote ideologiari. Errezeloz beti ere.

Zientifikoaren postura horiek berek ere *ideologia* bat ezkutatu dutela esango da. Baina horrek ez du ideologiaren egoera larria batera lasaitzen. Ilustrazioak zientzia eta humanismoa batera zitzakeen; egun batasun hura galdua da, eta maiz batasunaren lekuan bion etsaigoa da nagusi.

Torrealdyk (*Iraultzaz*, 104) apuntatzen duen problema egiazkoa da:

Iraultza idealisten babeslekutzat jotzen du zenbaitek... Hortara: buru hotza, gizon kritikoa, arrazoimena kapitalismoaren (irakur, neokapitalismoaren) aldetik leudeke. Eta fedegizona eta idealzalea, iraultzaren alde-tik.

Dikotomia horren kontra nahi aina protestatuko da, eta arrazoipideen mailan eta hitzen bidez nahi aina soberano eta airoski gaitutuko da alternatiba hori. Hots, alternatibarik ez dagoela erakutsi ahal izango da. Baina horrekin guti irabazi da, *de facto* gizarte biziaren alternatiba horrek gertatuz eta gertatuz segitzen duen artean. Horixe gertatzen bait da. G. Sorel-ek garbi ikusi zuen: zientzia modernuak, intelektuak, ez du konprentsiarik espontaneidatearentzat, heroismoarentzat, norbere buruaren sakrifizioarentzat. Zientziak

ez du ezagutzen horietarako arrazoirik; baina arrazoi asko aurkitzen du, horiek denak animalki esplikatzeko. Zientziak eskema deterministaz esplikatzen du historiaren ibilbidea: beraz, kreatibidade guztiz mugatu batetan bakarrik sinesten du, eta borondateak —nahiak— historiaren martxan eragin dezakeena minimo determinatu batetara erreduzitzen du.

Aldakuntza eta erreforma partzialak zuzenets ditzake zientziak: aurretik arrazoinalki presta, planegin eta organiza litezkeen aldakuntzak. *Iraultzak*, jarraikitasuna hausten duen eta borondatean, kreatibidadean oinarritzen den asmoak, eta batez ere, osotasuna irauli (eta ez osotasunaren barruko zatiren batzu zuzendu bakarrik) nahi duen asmoak, zientziaren onespelik alferrik itxarongo du, esaten digu Sorel-ek. Zientziak dagoena hobeto administratzen eta organizatzen erakusten bait du, zientzia *dagoenarekin* enplegatzen da eta.. Eta ez *dagoena* sortzeko posibilitadean pentsatzen duenean, posibilitade tekniko eta partzial hutsetan pentsatzen du. Borondatearen kreatibidadea, kausa batzuetara eta jarraikitasun batetara erreduzi baldin badaiteke bakarrik da zientziarentzat begiragarri. Hau da, zientzia bere egitamuz berez, ezin erreformistatik pasa daiteke: berritasun oro lehendik bazegoeneko kausen batzuen bidez esplikatu beharko bait du... *Iraultza* egiteko, zientziek aipatzen ez duten fedea behar da, aitzitik: baliogo batzuetan, helburu batzuetan, fede bizi-bizia eta kartsua. Fede hori zientziek, egitekotan ere, analitikoki pikatu eta diseckatu egiten dute. Ez suztatu. Humanismoak, mitoek, ideologiek, suztatzen dute dagoenaren ukazio den fede hori helburu eta baliogo radikal haietan.

Beraz, dikotomia badagoela, esan beharko litzateke Sorel-ekin, eta alfer-alferrik dela hura ukatzea, «zientifiko ez izateko» beldurrez.

Egoera honen aurrean nahi dena egingo da:

— zientzien «neutraltasunaren» kritika gogor bat, agian. Askotan entzun ahal izan ditugu

halakoak, edonolako «humanista» guztien ahotatik. Honek dirudi bai Lukács-en (Goldmann, etc.) eta bai Frankfurteko eskolaren bidea;

- edo eta zientzia eta ideologia ebaki eta bereizi, eta zientzia *ezagupide* hutsetara muga eta *ekintzaren* orientazioa, ispirazioa, arazoipide eta baliogo humanistei enkarga. Badirudi egunotan joera honek harrera onik baduela, zientzien kritikan aritzeak («Teoria kritikoak») probetxu guti ekarri duela, ausaz. Bide hau dirudi Althusser-en ondotik zenbait lekutan hartu denak.

Nolanahi ere, problema hor dago.

Eta problema horrek bidegurutze batetan jartzen du ezkerre. Ezker klasikoaren eta berrien etenduran ere badu zerikusirik, Torrealdayk zorrozki erakutsi digun bezala.

Ezker klasikoak, «zientziari» atxekiz, gizartearen aldakuntza eta iraultza problema tekniko bezala planteatuz, helburuez baino gehiago helpideez arduratuz, «erreformismo» aldera lerratuz doaz gero eta osokiago. Hauen burubidea, gizartearen arrazionalkiaren antolatzea izango litzateke, baina arrazoizkotasun klasikoa bera hauzitan jarri gabe (honen aplikazio formak bakarrik hauziperatuz):

Modernutasunaren arrazoizkotasun hau okerbideturik ikusten dugu, baitipait liberalismoaren atzaparretan. Horregatik gure gaurko gizarte-moldeko irrazionalkeriak oro. Erremediatzeko, orainarte ezagutu ez diren bezalako egitura politikazko eta ekonomiazkoak sortu behar dira.

Beraz, arrazoizkotasun hau zaindu beharra dago, hobea gotu beharra, naturaleza menderatzea bait da gizonearen lehen asmoa.

Ezker berriek, aldiz:

Arrazoizkotasunaren lehentasuna ukatu egin behar da. Hortan datza irrazionalkeria, eta ez arrazoizkotasunaren erabilkera gaizto batetan. Eta gaurko gizona arrazoizkotasun honen izenean egina nola dagoen, eta hori ukatzen dugunez, berriz hutsetik hasi beharra dadukagu (12).

Hau da: ezker berriak arrazoimen instrumentala-
ren, teknokratikoaren lehentasuna ukatu egiten du; ezker zaharrak hari eusten dio oraindik, eta *hobeto erabili* nahi luke (13).

Berriro esateko: ez dakigu zientzia eta ideologia, natura eta historia, nola batera. Marx baitan batasun hori oraindik erraz samar lortzen zen:

— Produzio molde sozialista, Marxen ustez, produzio molde arrazoizkoena eta efektibuenena zen. Kapitalismoak bere egitekoa bete orduko sozialismoari paso eman beharko eta emango zion.

Aurrerapen teknikoaren berezko ekarria zen iragaitz hori. Gizonon ekintzak *haurgingintzan lagundu* besterik ez du egiten: *haur egin*, aurrerapenak berak egiten du. Marxek ez zuen uste sozialismoa «justiziaren kausak» garaitu behar duelako etorriko zenik. Eta, historia bortxatuz, sozialismoa ordua baino lehen inauguratzea (hots, «pobrezia sozializatzea») ez zitzaion batere onerizgarririk iruditzen. Moralismo hutsa zeritzan horri eta Marxek barre egiten zien moralistei. Sozialismoaren etorrera berez «neutroa» da, Marxen aburuan. Eta ez justiziaren, edo askatasunaren, edo humanis-

(12) J. M. TORREALDAY, *alp. lib.*, 128-129.

(13) «Arrazoimen instrumentala»-ren kritikorik zorrotzenetakoak Horkheimer eta Habermas izan dira: Frankfurteko eskola, arruntki.

moaren alde, baizik aurrerapenaren alde, zegoen Marx. Horregatik, Marxek ontzat ematen zuen Ingalaterraren kolonialismoa Indian; Engelsek ontzat ematen zuen Algeriako kolonialismo frantsesa; ontzat, halaber, USAk, Mexicori eskualde galantak harapatzea, etc. Progresoak atzerapena garaitzea iruditzen bait zitzaien hori dena. Eta aurrerapenaren zerbitzuan, ez humanismoaren edo ideal humanisten zerbitzuan, aritu behar omen da.

- Baina, aldi berean, progresiak (eta, beraz, sozialismoak) gizonaren askatasuna, nortasunaren osapena, etc. zekarrela, pentsatzen zuten —edo itxaroten zuten— Marxek eta Engelsek. Progresoak berak azkenean zapalketa garbituz eta gizona askatuz eta burutuz bukatuko zuela. Hots, baliogo humanistak progresoak berak egikarituko zituela, eta haiek egikaritzerik ez zegoela, progresoa maila egoki batetara heldu aurretik.

Batasun hau (funtsean Ilustrazioaren batasuna bera) guztiz dudagarri edo batere ez sinesgarri bilakatu denez gero, zein alde batari eta zein besteari atxeki zaio, eta marxismoa joera «zientistan» eta joera «humanistan» erdibitu da.

Joera zientistak, azkenean, perfekzionismo teknokratikoan erortzeko arriskua du. Gizona «premia tekniko» opaltzeko arriskua, hortakoz. Gizona premia teknikoen gainera jarri nahi badu, aldiz, nahitaez humanismo bat behar du.

Joera humanistak, bere burutapide eta ekintzen erdian beti gizona jartzen duenak alegia, humanismo bat badu: baina humanismo hortako irudipenak eta balioak —askatasuna, berdintasuna, etc.— tradizio bidez eskuratu dituenak besterik ez dira. Eta haiek zientzia berrien arabera berpentsatu beharra daduka.

Joera humanistak, funtsean, gizonaren berezko ontasunean sinesten du. Fede hori, halere, krisian dago: bai esperentziak eta bai zientziek bota dute krisi surtara.

Kolonien historia, Gernika, Hiroshima, Vietnam, Auschwitz, Dachau, Hitler, Stalin, ezagutu ondoren, apenas ikusten da gizon modernuak bere ontasun naturalean zein fede ukan lezakeen, oraindik kontzientzia apur bat gelditzen bazaio. Gainera, psikoanalisiak, biologiak eta genetikak, ilustrazioak uste ez bezalako gizon bat, eta etologia edo zoopsikologiak lehenago uste ez bezalako abere-natura, lege «moral» guztiz harrigarriekin, deskubritu dizkigute. Gure ohituren eta portaeren legeak, gure lege «moralak», egiazki naturak emanak dira, baina naturaren kontsiderazio soziomorfo ilustratuak inondik ere suma ezin zitzakeen bezalakoxeak.

3. Kapituluia

3.1. Tesia: gizona supergizon bat da

Gizon ez da edozein animalia: hain animalia berezia da, ze doi-doi bait da animaliarik. Hori uste du gizonak berak, behintzat. Honen pentsabide guztien barnean uste hori eskutatzen da.

Mitoek, erlijioek, filosofiek, eten gabe bere garaitasuna gogarazten diote gizonari. Gizona, mito biblikoak irakasten duenez, Jainkoak bere buruaren antzera egin da. Jainkoaren hatsa du. Jainkoaren solaskide eta adiskide da. Animaliak bere zerbitzariak. Gizonarengatik Jaungoikoa bera gizon egin omen zen. Ala-

baina, hori dena perfekzionatu dugularik, gizonaren egiazko kreatzailea ez deritzagu jadanik Jaungoikoari, gizonari berari baizik.

Gizonak ezin uka lezake animalien antzik baduenik, baina ez du antz horren ondoriorik apenas atera.

Alderantziz: adibidez, *tximurik ederrena gizonaren aldean arras itsusia da*, erabakitzen zuen Heraklitok. Eta bistan dago prejudizio bat beste ezer ezin izan daitekeela juzgu hori.

Logika bera ere kezka handirik gabe zarrastatzen da. Mistikoek, munduaren deuseztasuna hain ongi kantatu dutenek, munduaren hutsaltasunarekin ilun-argi kontraste bat pintatu diote gizonaren duintasun paregabeari Rembrandt-ek egingo zukeen baino bikainagoa. Mundua ezer ez omen da. Baina arimaren muina —hots, gizontasunaren pipita— *es una misma cosa con él, Dios por participación de Dios*, deklaritzen digu San Joan Gurutzekoak.

Besteren batzuek gizontasunaren erdigune eta sustrai-orpo adimenari deritzate, eta adimena gizonaren baitan dagoen *Jainkoaren begia* bezala kontsideratu dute. Hori Platonek eta teologo eskolastikoek egitea ez da harrigarria. Baina Descartes-ek horixe bera egin du; Malabranche-ren *Recherche de la Verité*-k ez du besterik frogatu nahi; eta kontraespiladuraren teoria leninistak ez du adimena materia eternu eta absolutuaren begi bihurtu besterik egiten.

Gizonaren funtsezko dohaina ekintza dela uste zutenentzat ekintza zein gauza zoragarria eta neurririk gabekoa zen, oroitaraz liteke oraindik, adibide gehiago oroitarazten jarraitzea mereziko balu.

Gizona ez da edozer gauza, ez: supergizon bat da Bere buruari hau sinestarazteko, kabilaziorik errebesenekin eta bihurrienekin torturatzen du gizonak bere kaskarra. Jaungoikoak egina dela baitetsi ondoren, Jaungoikoari ez zaio gizonaz arduratzea beste zereginik uzten: natura sortua dela finkatu ondoren, gizonari begira espliketzen da natura. *Gauza guztien neurria gi-*

zona da. Gizonak Absolutuak gustora asmatzen ditu: sortu orduko bere mendean hartzeko, eta bere burua Absolutuaren gainetik ager arazteko. Absolutuon zeregin guztia etengabe gizonarekin enplegatzea izaten da. Bere aita eta salbatzaile aitortuz, funtsean bere ume eta morroin bihurtzen du gizonak Jaungoikoa. Klase-burrukaren erruz gizona oraino subgizon bat dela esatea, zeharka zera daklaratzea da: oraingo honen aldean «egiazko gizona» izugarritzko supergizona dela.

Zientzia kritiko guztiak postuladu horren zerbitzuan ibili dira. Izan ere, hasera-haseran gizona supergizona dela bururatzen baldin bada, alde guztietan gizona «gizon huts» agiri bait da, supergizona izatea eragozten diona bilatu beharra dago. Eta beti aurkitzen da zerbait: bekatua da behin, hurrengoan ezjakitea, geroxeago zibilizazioa. Ez: klaseak dira. Ala ez ote errepresio sexualak, agian?

Ahalmen eta dohain paregabeak aitortzen zaizkio gizonari: askatasuna, edertasuna, ontasuna, etab. Hatik ere, gure begion aurreko gizonak ez ditu dohain horiek sobrare agiriegian. Eta, orduan, sekulako teoria kritikoak asmatzen dira. Edo arrazoipideari punta bueltatzen zaio: esaterako, Roman Garatek dioskunez, gizonak *on-gura naturala* omen du. Hori «demostratzea» ez da batere zaila: ontasuna guztiok eta edozeinek gura duenean bait datza. Horrela gure etika.

Estetika ez dabil hagitz hobeto: gizonak, abereek eta ez bezala, edertasuna sortzen omen du; obra artistikoak egiteko gaitasuna ei du; ederra, izan ere, gizon orori gustatzen zaiona da, definizioz berez.

Historia eta soziologia espejismo berberak nahastuta dakusatzagu: gizona ez den zerbait dela postulatur gero, historia guztiak desgizonaren historia dirudi; gizarte orok desgizarte huts dirudi. *Orain arteko historia guztia klase burrukaren historia da. Gizonaren historia beronen hertsaduren historia da.* San Augustinentzat eta Bossuet-entzat historia osoa gizonaren petralkerien eta Jainkoaren eskuzabaltasunaren historia

zen bezalaxe. Azken finean gizonaren benetako supergizontasuna historiatik kanpora oinarritzen da.

Hori da, gizona «funtsean» supergizon bat dela us-teaz abiatuz gero, gizonarekiko zientziei gelditzen zai-en paraderoa.

Agian begiek ikusten dutena bakarrik ikustea aski litzateke. Eta orain arteko liluren antitesi guztiz sin-ple bat aski litzateke, guk behar ditugun konplikazio guztietarako.

Alegia: gizona gizon besterik ez dela. Hots, anima-lia bat ez beste edozein baino hobe eta ez gaiztoa-goia.

Historiaren barruan, aldiz, zein agiri da gizon, —edo supergizon? Galdera horrek enplegatuko du Nietz-sche.

3.2. Tesia: supergizona prestua da

Gorago ere aipatu da gai hau. Han esanak osatuz bakarrik mintzatuko naiz.

Aro Modernua naturaren —gizontasunaren— onta-sunean eta askotasunean sinestuz hasten da: Dretxo Naturalaren aroa izenda liteke Aro Modernua.

Dretxo Naturalaren teoria ez du Aro Modernuak as-matu. Bi mila urte eta gehiago duela Platonek eta Aris-totelek oinarritua da. Gero estoikoek baliogo pertso-nalez hornitua eta hedatua, eta erromatarren zentzu ju-ridikoak osatua. Kodigo moduan bilduma justinianoan jasota gelditu zen. XVI. mendeko eskolastiko espainö-len eskutan Dretxo Naturala jadanik aginpide nagu-siaren aurkako eta menpekoen babeserako tresna be-zala agiri da (Aita Vitoria, Las Casas). Harrez gero Dretxo Naturalaren teoriari ia beti halako kutsu antiau-toritario bat dario: Frantziako Iraultza garaian bere-ziki.

Baina muga gaitezen orain XVII. mendearen azken eta XVIII.aren hastapenetara: hein honetan Aro Modernuaren hazia burutu zen garaira.

Urrutiko Erdi Aroaren gailurretik Tomas Akinokoak irakasten zuen oraindik:

est in hominibus lex quaedam naturalis, participatio videlicet legis aeternae, secundum quam bonum et malum discernunt.

Oraindik Tomas Akinokoa maisu zen, — protestanteen aldetik «maisu ukatua» bazen ere. Maisu: jarraitua nahiz konbatitua. Baina honez gero maisugo denak krisian daude. Baita Bibliarena ere. Eta kristautasuna bera ere krisian dago.

Errenazimenduaz gero apenas zegoen federik fedean. Erdi Aroko gizonak uste zuen, fedeak egiten zuela egiazko gizon. Gizatasunik gurenena santutasuna dela. Egiaren gailurra errebelazioa dela. Jakituria nagusia fede-argia dela, etab. Euskaraz oraindik ere edozein pertsonari *kristau* esaten zaio. Eta, egiazki, federik gabeko gizonari, pertsona osoa izateko, zerbait falta zitzaiola uste zen. Pertsona osoa fededunak zirudien. Errenazimenduak dudak ekarri zituen. Dudak, berehalaxe, eskeptizismoa. Une batez heresiek eta erlijio gудuek berriz ere fedea fanatismoraino inportante bihurtu zuten. Jendeteriak berriz ere prest zeuden beren fedeagatik bizitza emateko eta kentzeko: kentzeko gehiago, noski, emateko baino. Baina brasaren azkeneko su-lamara zen. Erdi Europa guztia anaiguduan triskatu ondoren, kristautasunaren egia bakarra haramaz «demostratu» nahita, ez zen eskeptizismorik gogorrena eta etsiena besterik irabazi: honez gero kristautasunari, egiazko egia bakar batik ezeze, gizalegerik ere ez zitzaion ikusten.

Noranahi begiratu, Europa kristauan, triskantza eta sarraskia. «Eurakaz batera daroe sua, garra, erretea, lapurretea, elizako ontzirainokoak ostutea, negarra,

garrasia, ulua, odola, eriotzea, triskantzea ta ondamentia»: eta ez dira moro sarrazenoak hori egiten dutenak. Kristauak dira. Aita Sainduak, apezpikuak, apezak eta profetak. Errege guztiz kristauak eta printzeak.

Kristautasunak prestijio dena galdu zuen.

Zegoeneko, nekez sinestaraz zitekeen, kristautasunak nortasunaren osotasuna eta koroa zekarrenik. Izpirituak kezka bete ziren. Zein da gizalegearen eredu eta jarraigarri: Nazaretarra ala Sokrate? Zertan datza gizatasuna? Kontzientzia txar askorik gabe eta buruko min guti hartuz ordura arte aisa ignoratu izan zen antigoale klasikoak bereziko arreta irabazi zuen: Greziako eta Erromako pertsonaiak, ez ote ziren edozein kristau bezain gizon edo gizonago? Humanistek grekoen eta latinoen handitasun morala preziatzen zuten. Erasmok, esaterako, Zizeron edozein kristau baino prestuagotzat zedukan. Orain, ordea, klasiko jentilon estimazioa kristautasunarekiko etsipenaz eta eskeptizismoaz eskuz-esku doa. Beraz, nortasuna osatzeko eta gizarte bizitza egoki antolatzeke natura bera aski zela ikusi uste zen. Kristautasunak enbarazo hutsa zirudien. Gerra urteetako esperentziak irudipen hau bermatzen zuen.

Ilustrazioko jaun prestuok aitzinate klasikoaren berbiztailetzat zeduzkaten beren buruak. Historia Modernuaren bitxikerietako bat gehiago hori ere. Bestenaz, «klasikoen» asmazio bat gehiago ere bai. Ez lehenbizikoa, ez eta azkenekoa ere. Halako hanitz bait dago. Jadanik erromatarrek berek Autore grekoak «klasiko» deklaratu zituzten, eta haien imitatzen edo kopiatzen enpeinatzen ziren. Vergiliok Homero, Horaziok Arkiloko eta Anakreon, Ovidiok Theokrito, Livio Tukidide, etabar, imitatzen zuten. Klasiko baten imitazioa artearen erpina iruditzen zitzairen. Zorionez, uste zutenaren kontra, zenbat eta imitatzaille txarrago eta artista hobe izan zitzaizkigun erromatarrok. Gerrogo, Erdi Aroan, Karlos Handiaren garaian, norbaitek klasikoak berrasmatu zituen, eta berbizkunde ka-

rolingio eta ottoniano guztiz xebreak sofritu zituen Europak. Gero italianoen *Rinascita* dator, Errenazimendua. Uhin honek Europa guztia estali zuen. Eta eskerak, berriz ere, imitatu nahi omen ziren klasikoak benetakoak ez baino asmatutakoak zirela. Petrarka batek ez zekien greko tutik, eta ez dirudi ezer galdu zuenik. Luis XIV.aren garaian laugarren aldiz berrasmatu zen klasizismoa. Jakina, Racine-ren grekoak arras frantsesak dituzu. Shakespeare-ren erromatarrak klasiko baino britanikogo diren bezalaxe.

Kuriosoa da nola beren galantasuna eta handitasuna demostratu nahi duten aroek, behin eta berriro beren «klasizismoak» bonbaziaz eta ponperiaz asmatzen dituzten. Berdin izan da geroagoko neoklasikoan (demokrazia amerikanoa Kapitolioak sinbolizatzen du). Eta gure egunotan ere, berdin-berdin, Hitleren eta Stalinen arkitektura monumentalekin. Greko-romatarren alturako agertu nahi izaten da, inondik ere. Eta gu geu ere, greko ta erromatar klasikoen bertuteetan hezi nahi izan gaituzte, nortasun klasikoa latin ikasiz irabazten delakoan, apika.

Nolanahi den, ilustratuak greko-romatar sentitzen ziren (kristau ez sentitzeagatik, beharbada). Horra *Louis Seize* deritzan estiloa lekuko (izen hori eduki arren 1760 aldera agertua, bestalde). Ikus erromatar zimel bat dirudien Voltaire-ren irudi hori. Eta Maratena (Davidek pintatua). Gizonontzat, ez dakit nola, erromatar eta errepublikanok gauza bera bait dirudite, Lafayette-ri *Spicio Americanus* deritza. Holandari honez gero Batavia deritza, eta Helvezia Suizari. Ba-beuf-ek Grako deritza bere buruari, eta *Herriaren tribunoa* bere aldizkariari. Karta jokoa bera ere erromanizatu beharra dago: ezpatako as (bat) edo pikea honez gero Publius Decius Mus bihurtzen da (eta harez gero euskaldunak, iraultzagile jatorrei dagokien bezala, mus-ean ari dira). (Publius D. Mus 295. urtean K. a. Sentinum bere burua sakrifikatu zuen erromatar bat izan zen, Deciustarren familiakoa). Berriro tunika

jazten da, eta sandaliak oinetan. Politikan *tribunadoak*, *senadoak*, *plebiszitoak*, *konsulak*, *diktadurak*, berrasmatzen dira. Geroxeago Inperioa. Harmadan erromatarren arranoa eta beste sinboluak sartzen dira. Goardia pretorianoak. Dekorazioan urreztatua eta zuria nagusitzen dira. Lirak, urnak, medailoiak, erramu (ereinotz) koroak, edozein ornamentaziotan. Arkitrabeak, kapitelak. Isfinjeak, kariatidak, obeliskoak. Eta oraindik paristarren gloria den Arc de Triomphe barbaro hori. Eta Pantheoia. Eta David pintorea. Eta Delacroix bera. Eta zer gehiago ez? Iraultzaren restaurazionismoa eta kontserbaduria. Historiaren paradosak, — beharbada oso guti paradosiko.

Denok dakigu, Ilustratuok Grezia eta Erroma beren gogara entenitzen zituztela. Baina ez dago ukatzerik: grekoen eta erromatarren, «klasikoen», jarraikile izaten saiatzen ziren. Greko-romatarren pentsamendua eta mundua galanki faltsetzen zituzten. Klasikoak ezagutzeko agian hobe da Ilustratuak batere ez ezagutzea. Baina Ilustratuak ezagutzeko behar-beharrezkoa da greko-romatarren ezagupena. Haien filosofia bait da Ilustrazioaren bizkar hezurra. Ilustrazioaren kontzetu asko, era berean, zentzu greko-romatarrean hartu behar da, testuinguruak eskatzen dituen diferentziak ahazterik ez badago ere.

Denbora klasikoez gainera, behinolako Europa kristaua, kristautasunaz jadanik franko desengainatua, urrutietako herri arrotzak aintzakotzat hartzen hasiko da. Lehen aski zuen bere buruaz. Mugaz handiko dena barbarotzat jotzen zuen. Ez-kristau dena basati iruditzen zitzaion. Guztietan barbaroena bere burua agertu zaionez gero, halere, izpirituak prontoago daude, beste herrietako eta erlijioetako gauza onak ikusteko.

Urrun-herrien idealizazioa berehalaxe hasiko da. Txina, Persia, Egipto, jakituriaz beteta ikusten dira. Baron Lahontanek 1703an *basati noblea* asmatzen du: kristautasunari Adario Kanadako Huroiaren natur erlijio librea kontrajartzen dio; gizarte europear zibili-

zatuaren legeei basatiaren zintzotasun naturala; jabe-go gizarte europearrari huroiaren komunismoa. *Natura ama on bat da*, konkluditzen du.

Abbé Terrassonek *egiptotar jakintsua* imajinatzen du: edozein europear eta kristau baino mila bider zentzudunago eta burutsuago hau ere.

Journal du Voyage du chevalier Chardin en Perse (1686) bidaia-liburuan Persia liluragarri bat deskribatzen da. Persiarren jakituria eta prestutasuna erakusten da. Jendeon naturaren bikaintasuna eta gardentasuna. Montesquieu-k «persiarraren» jakituria simulatuko du, europearrei aholkuak emateko.

Baina guztiaren gaintek *txinar filosofoa*-ren jakituria paregabeak liluratuko eta lotsaraziko ditu europearrak: kristauak txunditzeko eta tentatzeko Sokrate nahikoa ez balitz bezala, Konfuzioren tentazioa sortuko da orain (geroago Budarena sortuko da!). Eta Greziaren ondoren Txina altxatuko da nazio eredu gisa: *cette nation parait plus que divine*.

Europaren horizonteak altxatu eta urrundu dira. Mundu kristauek kanpora ere gizatasunik eta jakituririk badela ikusten da. Bestalde, kristautasunak berak ez jakituria askorik eta ez gizalege handirik erakusten du oraintxe. Bere muga hestuetan aseguratatu zen kristautasuna danbalaka ari da. Muga hertsia haien barruan gizon izateko modu bakarra kristau izateak bazirudien, irudipen hori goitik beheraino arras lurrera dator.

Prozesu honen guztiaren barnean, XVII. mendetik XIX.era arte, erdibikuntza bitxi baten eskema sumatzen da. Eta kristautasunaren kontra erabili arren, eskema hori funtsean kristautasunarena berarena da. Alde batean kristautasuna jartzen da, bestean beste guztia. Hau da: kristau den oro ez-naturaltzat ematen da, eta ez-kristau dena naturaltzat. Indio huroia bezalaxe Platon nahiz Konfuzio, eta batzutan Mahoma bera ere (1730ean Boulanvilliers-ek argitara zuen *La Vie de Mahomed*-en, adibidez), natural bezala har-

tzen dira, eta naturala ez-naturalari bezala kontrastatzen zaizkio kristautasunari.

Jokabide horrek kristautasunaren kritikarentzat izango dituen ondorioek hemen ez digute inporta: alegia, Loewith-ek erakutsi duen moduan, kristautasunaren kritika guztiak funtsean kristautasunaren beraren eskemen barruan mogitu direla, eta, hein hortan, zeharbidez eskema haietxan gonfirmazioa direla. Ez bait da eskema haietatik kanpora irtetea lortu. Hori da erlijio kritikaren patu malapartatua. Baina Dretxo Naturalaren teoriaren patua ere horixe bera izan da, eta hau da guri inporta diguna. Izan ere, hemendik aurrera naturaltzat joko denak eta dretxo natural deklaratu denak, naturarekin zerikusi oso guti du. Natura artifical bat da, dretxo natural haien euskarrirako asmatzen dena.

Zer da gizalege? Zer da zuzen? Honez gero, ez da natura oin hartu beste erremediorik gelditzen (erlijioak ez bait du jadanik balio). *Natura urbanik gabe*koa da, esango du Shaftesbury-k. Ia naturaren erlijio bat hasten da: natura, esango da, jakintsua da. Ona eta garbia da. Bakoitzari bere premien arabera ematen diona, guztion osasuna zaintzen duena. Bizitzari eusten diona. Bertuteak txertatzen dizkiguna bihotzean, Sokrateren historian edo indio huroiaren bizimoldean agiri den bezala.

Pierre Bayle eskeptiko handi harek bere dudak izango ditu: *ez dago zehaztasun gutiagorik erabiltzen den hitzik, natura hitza baino*. Edozein esanahitan hartzen da hitz hori, eta edozer gauza demostratzen da hitz horren laguntzaz. Naturak ontasuna baizik irakasten ez ote duen ere. Bayle ez da larregi fidatzen: *Si pour savoir qu'une chose est bonne il suffit de savoir que la nature nous l'apprend?*, galdetuko du eskeptiko urduriak.

Alabaina, ez dago naturaren filosofiari bere garaitzpen martxa geldiaraziko dion eskeptizismorik. Zertan oinarritu bestela? Spinoza, Pufendorf, Grotius, Tho-

masius, Locke, naturaren filosofia orokor bat borobil-duz joango dira, eta bizitza publikoan filosofia honek hartuko du lehenago erlijioak zedukan tokia: erakunde eta lege guztiak ispiratzekoa eta oinarritzekoa. Gaur egun arte halaxe jarraituko da: kinka larrietan gizonaren eta herrien eskubide naturalak inbokatu ohi dira egun ere (dagoeneko «eskubide naturalok» oinarritzen inork ez jakin arren: paper batek «natural» deklaratu zituelako dira natural eskubideok!).

Dretxo naturalek gudian ere baliorik ez dutela galtzen, frogatzen saiatzen da Hugo Grotius. Grotius heretikoa zen, eta persegitua zegoen. Persegizioak ere neurriak gorde behar dituela, bere larruan ikasia zen, inondik ere. Eta guduari ere gizabidezko neurriak jarri nahi zizkion. Gizarteko gorabeheretarako sortu diren gizonen legeek gudian balio ez badute, eta (guduok hain zuzen kristauen arteko erlijio-gudu direlarik) Jaungoikoaren legeek ere balio ez badute, naturaren legeek halere balio dutela, pentsatzen zuen Grotiusek. Eta gizonen eta Jaungoikoaren legeek lortu ezin zutena, gudua humanizatzea, dretxo naturaletik itxaroten du. Hala idatzi zuen *De jure belli et pacis* (1625), Dretxo Naturalaren teoria modernuari eta Herrien arteko dretxoari oinarria jarritz. *Gerra bitartean lege zibilak mutu daude*, idazten zuen, *baina ez naturak ezartzen dizkigun idatzi gabeko legeak*.

Pufendorf-ek, Sueziako Lunden, Dretxo Naturala eta Herrien arteko Dretxoa irakasten zituen. Haren liburuak, *De Jure naturae et gentium libri octo* (1672) eta *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo* (1673). (Garai honetan filosofia oraindik latinez mintzo zen). Politika, aginpidea, legeak, moral-tasun soziala, ihardukimenak (tratuak, ezkontza), bizitza pribatua nahiz soziala, dena naturan oinarritzen da. Samuel Pufendorf-en liburuan guti-gorabehera Iraultza frantsesak erabiliko dituen arrazoipide juridiko guztiak aurkitzen dira. Gizarte bizitza tratu bat da: izaera naturalaren gainean egindako tratu edo ituna.

Tratu batez sortzen da aginpide politikoa: honen eginkizuna gizarte bizitzaren onura da; hiritarrek obedientzia zor diote (itunaren indarrez). Gizonaren eta hiritarraren obligazioak bereizten dira (berezkoak eta tratuaren bidezkoak), etab. Dretxo Naturalaren sistima eraikia dago.

Garai berean R. Cumberland-ek *De legibus naturae disquisitio philosophica* argitaratzen du (1672), Hobbes-en teoriak «errefutatzeko»: gizarte bizitzaren euskarri eta sostengua eskubide naturalak dira. Naturak irakasten duena ez da otsokeria, eta bai gizalegea. Izaki arrazoimendun guztiekiko errespetoa irakasten du —Reverend Richard Cumberland-en ustez— natura sanoak. Eta Pufendorf-ek bezala, gizona jatorriz berez eta naturaz izaki soziala dela uste du. Naturaren lege guztiak, funtsean, bat bakarretan biltzen dira: izaki arrazoimendun guztien arteko errespeto eta elkartasun legean. Hobbes-en enbarazoa bazterturik, bidea libre dago natura dibinizatzeko.

Dretxo Naturalaren lehen klasiko modernuen zerrenda herstekoa, esan dezagun, 1705ean agertu zela Thomasius-en *Fundamenta juris naturae et gentium ex sensu communi deducta*; eta 1708an Gravina-ren *Origines juris civilis, quibus ortus et progressus juris civilis, jus naturale gentium et XII Tabulae explicantur*. Azkeneko honen arabera, naturaren legea arrazoimenaren nagusigoa da. Eta arrazoimenak bertutea agintzen du.

Bitartean, ordea, Dretxo Naturalaren teoria politikaren filosofian ez-ezik politikabideetan ere nagusitzen hasia dugu. 1688an Ingalaterrako iraultzak eta handik urtebetera agertutako Locke-ren izkribuek Aro Modernua maila politikoan nahiz juridikoan abiarazten dute. Horrez gero Dretxo Naturala ez da teoria hutsik.

Hemendik aurrerako prozesuak oinarrizko postuladu honi segituko dio: gizonak baditu eskubide batzuk, eta eskubideok naturalak dira. Gizonaren obligazioak,

orobat, natura berak ezartzen dizkionak dira. Honez gero iraultza eta emanzipazio mogimendu guztien iku-rrina hau izango da: eskubide naturalak. Gizarte anto-
laketak, esan ohi denez, naturaren arabera izan behar du.

Ez gara orain erizkera hauen desarroiloa eta XIX. mendeetan arakutzen hasiko. Denboraren poderioan eskola eta joera asko sortuko da. Batzutan diferen-
tzia handirik gabe elkarren artean. Beste batzutan joe-
ra elkarren kontrarioak ere bai (liberalismoa eta so-
zialismoa, adibidez). Baina eskola guztiok abiaburu
komun bat dute, batzutan abiaburu hau propio ukatzen
den itxura egiten bada ere. Positibismo juridikoa apar-
taturik, behintzat, beste guztiak, nola edo hala, Dre-
txo naturalean oinarritzen dira. Oinarria jarrita dago:
gizona, edo supergizona, berez ona dela, berez gai de-
la zuzentasuna bere baitatik antolatzeko, berezkoa
duela hortarako isuria.

Dretxo Naturalaren teoriak gizonaren natura bat
postulatzen du. Helburu jakin batzuekin hornitua; eta
helburu horiek gauzaten ahalegintzeko eskubidez eta
ahalmenez hornitua orobat. Teoria honen arabera gi-
zona pertsona da: indibiduo eta izaki sozial batera.
Areago, natura honen arabera, gizonak on egin behar
du, ez gaiztakeriarik. (Elkar hiltzea, adibidez, natura-
ren kontrako gaiztakeria bezala ikusiko da). Bakoitza-
ri berea zor zaio, etab. Eskubide eta obligazio arrunt
natural batzuk daude. Konkretuago, eskubide natural
bezala aipatzen diren batzuk honoko hauk lirateke: bi-
zitzeko eskubidea, askatasun eskubidea (kontzientzia-
ren askatasunarena, bereziki), errespeto eta giza-oho-
re eskubidea. Funtsean iturburu bat-bera da Dretxoa-
rena eta moraltasunarena.

Eskubideon bururapen modernua gizabanakoaren
eta gizartearen artean tirandura eta elkar-osapena
dagoela kontu eginez hasten da.

Grekoentzat, *Polis* osotasun sakratua bait zen, gi-
zabanakoa osotasun honen osagarri baizik ez zen. Bu-

ruratu ezinezkoak ziren gizabanakoaren eta gizartearen arteko konfliktoak: ezin pentsa zitekeen gizabanakoak gizarteari buruz-buru (eta, inoiz, gizartearen kontra) eskubiderik ukaitea. Hau da, adibidez, errurik gabe heriotzara kondenatutako «Sokrateren dilemma». Erdi Aroan ere berdin da, aginpidea sakratua bait da hemen ere, aginpideak inkarnatzen eta koroatzen bait du gizartearen osotasuna. Horregatik, «gizarteak» hereseak erre eta kiskaltzea ebanjelioaren kontrakotzat juzga zitekeen onenean ere (gutik egin zuen, ordea), baina inola ere ez inoren eskubideen kontrakotzat. Ez zegoen gizabanakoaren eskubiderik gizarteari buruz-buru. (Gizartearen burutaera kolektibista modernuren batzutan atzera problema bera ez ote dadukagun, galdetu beharko litzateke).

Horregatik, Aro Modernuak Dretxo Naturalari haseretan eman zion desarroiloan, gizabanakoak gizarteari buruz-buru dituen eskubideak biziki azpimarkatzen dira. Hots, gizabanakoaren *nortasun* indibiduala (ez giza-natura orokorra bakarrik!) eta honen eskubideak destakatzen dira. Alegia, naturak berak emandakotzat hartzen da nortasun indibiduala, tradizio kultural batzuen baitan uler daitezkeen beronen eskubide guztiekin batera. Beraz, Dretxo Naturalean aipatzen den natura franko indibidualista da, eta mendebaldeko tradizioan nortasuna bururatzeko moduari dagokio. Geroago —sozialismoari eskerrak— giza eskubide naturalen (hots, indibidualen) artean eskubide sozialak (eta nazionalak berak ere) kontatzen hasi zen. Baina Dretxo Naturalak funtsean giza natura indibidualista suposatzen du.

Giza-eskubide naturalen lehenengo deklarazioa Virginiakoa da, *Declaration of Rights* edo arrunkiago *Bill of Rights* izendatua, 1776 urtean. Frantziako Iraultzaren deklarazioak segitzen dio 1789an. Bigarren Mundu Gerraren ondoren (1948-12-10) ONUk giza eskubideen deklarazio orokor bat egiten du, ia mundu osoarentzat baliozko bezala gelditu dena. Europako

Batzarraren Konbentzioak (1950-11-4) eskubideon adierazpen legezkorako tribunale bat sortzea erabaki zuen, eskubideok bakoitzak nahi dituen edo komeni zaizkion eran interpreta ez ditzan. Horretaz gainera Estatu bakoitzak bere deklarazioa eduki ohi du. Dretxo Naturalaren teoria —«teorian» batik bat!— mundu guztian legeria positibuaren oinarri bezala aitorturik dago.

Berriki marxisten artean eztabaida sortu da, giza-natura dela eta ez dela. Bai ahal dago giza-naturarik? Althusser-ek ezezko borobila bota du. Arrakasta galantarekin bota ere. Althusser eta althusserianoak giza-naturarik onartzen duten «metafisikoez» gustora burlatzen dira. «Antimetafisikook», tamalez, eztabaida hau, metafisikarik klasikoenari ezer zor ez dion tankera abstraktuan daramakigute. Guztiz interesgarria litzateke, bestela, giza-naturaren ukatzaileok maila juridikoan nola konpontzen diren ikustea, adibidez giza eskubide naturalik gabe. Baina agian «metafisikoen-tzat» eta «humanistentzat» uzten dituzte problema koxkor horiek... berak beti problema inportanteagoez arduratzeko! *Aquila non capit muscas*. Agian, ordea, kontzeturik sinpleenen nahasketak problema guztia nahasterazi du: giza natura eta giza nortasuna ez garbi bereizteak, esaterako. Edo, behintzat, ilustrazio goiztiarrak egin zuen bezain gaizki bereizteak; zehazgabetasun hori, korrientea bilakatu bada ere, argitu gabe, giza-naturarik arbuia aurretik. Althusser-en joerari, ba, alde honetatik arriskurik ez zaiola falta esango litzateke. Beraz, Dretxo Naturalaren teoriari nik ere guztiz kritikagarri baderitzat, hau da, gizona berez «ona» denik gehiegi sinesten ez badut, horrek ez du Althusser-ekin zerikusirik. Ez dago dudarik, halere, Althusser-ek agirian jarri duenaz: giza-natura kontzetuaren erabateko oinarri eta zehaztasun gabeziak.

Virginiako deklarazioan adierazten denez, gizon guztiak, *sorkuraz*, berdinak dira sortzailearen aurrean;

eta sortzaileak galduezinezko eskubidez dotatuak. Bizitzeko, askatasunerako eta zoriona bilatzeko eskubideak aipatzen dira. Frantziako Asanblea Nazionalaren deklarazioan jakinarazten denez, gizon guztiak, *sorkuraz*, libreak eta eskubidez berdinak dira. Eta askatasunerako, jabegorako, segurantziarako eta zapalketaren aurkako jazargorako eskubideak aipatzen dira.

Bistan dago, ba, sorkurarekin zerikusi guti duten kondizioek erabakitzen dutela, kasu biotan, sorkurazkotzat zer hartzen den: une hartako baldintzape sozialek USAn eta Frantzian. Bururatzen den «gizon abstraktua», sorkurazko gizona, asmazio historikoki guttiz kondizionatua da. Pufendorf-ek irakasten zuen moduan, *gizon hutsa* edo *lehenengo gizona* gizaseme guttiz prestua eta agurgarria da: «zerutik eroritako bezalakoa kontsidera liteke». Ohoregarritasun hori giza-diak ez du lan kultural luze batez irabazia, hasera-haserakoa eta berezkoa baizik. «Gaurko gizonak mundura datorrenean dakartzkien joera eta isuri berberak ditu» lehen gizon harek, Pufendorf-en aburuan.

Gizon guztiak sorkura edo jatorriz berdinak, libreak, etc. direnik, ordea, tradizio humanistak erraz imajina lezake: baliogo sistima baten aksioma bezala baitesteaz gainera, zientziakiro erakutsi behar liritekeen gauzak badira, aldiz, zientziek ez dakitela, ikusten dugu, gion guztien libertade eta berdintasun horien jatorrizkotasuna nola erakuts... Herriren batzuei gauzarik naturalenak iruditu zaizkie, haur gaixoak harraren kontra zukutzea, zaharrak hiltzea, etsaien garauna jatea, umeak saltzea edo ezkonaraztea, etsai menderatuak garbitzea, etabar.

Kulturak ez bestek asmatu ditu «eskubide naturalak», hain zuzen kultura eskubideon arabera taxutu nahi zelakoxe. Baina historismoak egin duen usteon kritika utzirik, Hobbes eta Nietzsche-rengana pasako gara.

3.3. Antitesia: Hobbes

Ikus *Politikaren atarian*, 127-137 (14) hamar orrialde mamitsuotan hemen egin genezakeen baino Hobbes-en ideien berri luzeago ematen da.

Astronomian Kopernikok eta Fisikan Galileik lortu dute ezagupide segurutarako metodoak lantzea. Anatomian —Hobbes-ek dioenez— Harvey-k egin du hori (odol zirkulazioa kausitu zuen Errege-midiku honek). Hobbesek horixe bera egin nahi du Estatu Dretxoarekin, hau da, hiri-gizartearen filosofiarekin (*philosophia civilis*). *De cive* liburua egin zuen hortarako: «hiritiaz», hots, Estaduan. «Filosofia zibila liburu honekin hasten da», deritza Autoreak.

Hobbesek naturan oinarritu nahi du filosofia politikoa.

Liburu hau 1642an Parisen argitarazi zuen: beraz, bistan dago Hobbesen teoriak ez direla Cromwell-en iraultzaren ondoriorik (15). Hobbesek «ez ditu bere garaiko errealitate politikoak aztertu nahi, errealitatea bere funtsean baizik» gizarte bizitzaren natura orokorra argitzeko. Esan bezala, zientifikoki ihardun nahi bait du, Koperniko eta Galileiren modura. Halere, Hobbesen pentsamendua esplikatzen —edozeinena bezalaxe— haren garaiko gertaeretara jo behar da. Eta ez kontinentekoetara bakarrik; Britaniakoetara ere bai. 1638-40 urteetan Eskoziako errebolta daduzkagu («Covenant with God») Elizaren eta Estaduan kontra. Irlanda kexu da. Parlamentuan elkar irentsi nahirik dabilta alderdiak, eta une berean Parlamentua gerrarako prestaketan ari da. Erregek ihes egin du, eta aldezkariak biltzen eta harmatzen ari da hau ere. Kristau konfesioek gerrarako gogoia dute, etabar. Britania Handian gerra giro da; kontinentean gerra.

(14) R. ARREGI, *Politikaren atarian*, Lur 1969.

(15) Ik. R. ARREGI, aip. lib., 128.

Hobbesen libururik sonatuena 1651ko *Leviathan* da. Descarteren antzera, Hobbesek ere sistema unibertsal bat eraiki nahi du, eta sistema honen baitan bururatzen ditu gizona eta gizartea. XIX. mendeko monismo handien antzera, Hobbesek ere printzipio orokor bakar batekin dena esplikatzeko du, zarren mogimendutik klub politiko batetaraino. Hobbesen ideiak sistema guzti horrekin batera kontsideratu beharko lirateke, baina hemen ez dadukagu haren ontologiaz, fisikaz, etabar, aritzerik. Aski da jakitea, guztia printzipio bat eta beraren inguruan biltzen dela.

Galileiren sistimak mogimendu mekaniko batzutan kateatzen zituen zeruetako gorpuzkiak. Hobbesen zat materia oro funtsean mogimendu da. Eta materiaren printzipio berberetik eraustu nahi du giza eta gizarte bizitza guztia ere:

Sentsazioek eta ideiek berauen kausa fisikoekin bategiten dute, eta hauen natura bereberkoak dira. Kanpoak gudan duen eragipenari gizakiak atseginez ala higuinez erantzuten dio: atsegin ala atsekabe sentsazioz. Bakoitzak bere atsegina bilatzen du, eta atseginaren gura edo grina hau da gizona mogitzen duena.

«Filosofari honentzat gizona grinek zuzentzen dute. Grina hauek, pasio hauek, barne eragile batzuek dira. Grina hauek ba dute morroi leial bat: adimena» (R. Arregi).

Grina edo premia naturalok oinarritzen dituzte giza ta gizarte bizitza.

Hobbesek, ba, naturan oinarritu nahi du bere teoria sozial-politiko guztia. Naturaren deskribizioan —bere erara— enpirista eta errealista gordina da:

1. «Egoera naturalean» bakoitzak bere atsegina bilatzen du. Baina egoera naturalean gizonak miserian bizi dira, lurra lukurra bait da, atseginak erregalatzeko. Bi gizonak gauza bera nahi dutelarik, elkar menderatzen saiatuko dira, gauzaren gozamina nork berak bakarrik izateko. Beraz, gizonak egoera natura-

lean, guztiak guztien kontra dabilta. Burruka honen iturburuak asko dira: gosea lehenengo, baina elkarren mesfida eta bekaizkeria ere bai, eta baita handinahia ere.

Burruka honetan *ondo* irabaztea dago; *gaizki*, galtea. Ez dago beste moralik. *Ez dago Ongi Gorenik. Baina, bai, bada gaitz goren bat. Gaitz hori laisterketa* [burruka] *uztean dago, hots, hiltzean* (R. Arregui): amor ematen duena aldamenekoak jango du.

2. Egoera hortan gizonak beti beldurrez bizi behar du. Adimenak erakutsirik, besteekin elkar hartzea hobe dela ikusten da. Bentaja honengatik gizartea sortzen da, bakoitzaren bizitzaren, jabegoaren, ohorearen, etc. babeserako. Hau da gizarte bizitzaren sustraia. Bestela, «berez» gizona ez da gizartezale, abere sozial edo politikorik. Egoista da, eta berekoikeriak ez bestek elkarretaratzen du interes berdinetakoekin.

Moraltasunaren iturburua ere horixe bera da: gizonaren natura hori izanik, jokabide hori «naturala» bait da. Hau da, ez bait dago gizona bestela orientatzen duen arau naturalik. Bestelako arau guztiak (errespetoa, maitasuna, etc.) elkartasuna eta gizartea sortu dituzten interes berberak sortuak dira, eta xede berbera dute: bakea aseguratzeko. Eta bake naharen iturburua beldurra da. Beldurrarena, berriz, gizonon natura egoista burrukaria. Beraz, maitasuna, etab. bezalako arau moralak ez dira naturaren parte, komenentziaz haren gainean jarritako estalkiak baizik.

3. Arrazoipide guztiz kurioso batekin, Hobbesek oinarri horietxetatik ateratzen du berdintasun orokoraren tesia: gizon guztiak funtsean berdinak gara. Izan ere, natura burrukaria denok dugu. Eta funtsean denok gara edozein lehiakide jo eta garbitzeko gauza. *Edozeinek edozein hil dezakeela* da Hobbesentzat, «berdintasun naturalaren» probarik hoberena.

Berdintasunaren oinarria ere ez dago gizasemearen ohorean, izpirituan, prestutasunean edo antzeko ezertan. Guztien txarkerian eta ahulerian dago.

4. Zuhurtasunaren agindua da, ahal den guztietan lehenengo bakea bilatzea. Bake egokirik ezin bada, zuhurtasunaren agindua naturaren legea da: burruka, nork bere burua zaintzeko.

Traidoreak, lapurrak, hiltzaileak eta kriminalak oro «egoera naturalera» itzuli diren gizonak dira. Aginpi-deak haiek zigortzeko eskubide du, baina baita hauek zigorrari inola ahal duten modu guztietan ihes egiten saiatzekoa ere.

5. Gizonaren natura horrelakoa delarik, alferrik da tratu ederrak egitea, betearazteko indarrak ez bada-go. Beraz, itunak eta bakea garantizatzen dituen gauza bakarra harmak eta aginpide boteretsua dira, ez lege ederrak eta akordioak, hauk ez bait dira berez bakarrik gizona zaitzeko gauza. Aginpide gogor bortitzaren alternatiba bakarra anarkia da.

6. Aginpide politiko zibila eta beronen tresnak giza naturaren emaitza naturalak dira. Aginpide izpirituala edo morala (Elizarena, adibidez) beste hartatiko deribazio hutsa da, eta beti aginpide politikoaren menpean egotea tokatzen zaio. Morala Estaduaren zerbitzeko da. Erilijioa ere bai.

Oro har, oinarria beti hau duzu: *egoera naturalean gizon denek dute elkarri nagusitu eta elkar menperatu nahia.*

3.4. Antitesia: Nietzsche

Zer da gizona? Zer zuzentasuna? Ez da gauza bera, noski, batek zer esaten duen eta zer egiten duen.

Hitzetan ikuspide moralizanteak dira nagusi, geure gobernuari buruz nahiz zientzietan. Gudu guztiak askatasuna eta justizia zaitzeko dira. Gobernu denak herriaren zerbitzari. Zientzietan askatasuna eta justizia eta bakea bilatzen dira. Hala esan ohi da, behinik-be-

hin, esaten dena sinetsi nahi bada. Egintzetan, aldiz, interesak, indarrak, mainak, maltzurkeriak dirudite nagusiago.

Hipokrisi paregabe batez, Makiabelo eta Hobbes kondenatzen dira, — eta ordu berean haiek esan bezalaxe iharduten da. Haiek ez zuten esaten zer zen bidezko eta zer bidegabezko. Ez zuten moralik irakasten. Gizonak zer *egiten duen*, esan zuten. Zekustena esanez, gizona otso bat dela esan zuten. Atrebentzia horrengatik biak inmoralista bezala pasatu dira historiara.

Izan ere, moraltasuna da, edozer gauza eginda ere, beti motibu nobleak «edukitzea». Otsoak bezala ihardutea, baina beti arkumeak bezala hitzeginez. Hau da, behintzat, eskeptiko askoren inpresioa.

Tradizio humanistan hazitako europearrarentzat indarra ez da arrazoia. Horrengatik indarrak beti beste zerbaitekin zuzenesten du bere nagusigoa. Formula tipi batez esateko: supergizona beti ere «saindua» da, eta ez (gudalburu, burrukari, lapur) garaipentsua. Nagusiak, ba, beti «saindu» agertu nahi izaten du.

Nietzscheck antinatural derizkio guzti horri. Natura, garaitzen duenak garaitu egin du, eta kitto. Ez daduka garaitzapena zilegiztatu beharrik. Garailea nagusi da. Nagusiak agindu egiten du, ez daduka inori konturik eman beharrik. Beti predikatu izan den supergizon humanistaren aurka Nietzscheck protesta altxatu du: «egiazko» supergizonaren izenean. (Irakurleak laster igarriko dio Schopenhauer-en eragipenari Nietzscheren bururapenetan).

Mundu honetan garaitzea beste moraltasunik ez dago. Legezko eta bidezko, garaileak garaituari agintzea eta menpean eustea da. Eta garaitua, gizonik bada, garailea atzera menperatzen ahaleginduko da.

Nondik sortu dira, orduan, ontasunaren eta gaiztakeriaren kategoria horiek? Menperatuaren, zanpatuaren, mendekua dira: zapalduta zegoelarik, nagusia difamatu du, gizontasunaren «ideologia» egoki bat muntatuz.

Marxek eta Freudek bezala, Nietzschek ere Feuerbachen erlijio-kritikari darraikio. Moraltasun natural bakarra garaitzea izan zen, arik eta menperatuak, ezin durik, garailea ezin bentzuturik, beren lotsagarritasuna eta koldarkeria diximulatzeke, garaitzapena eta indarra desohoratzen hasi arte. Egiatzko gizontasuna adimenean, artean, «izpirituan» dagoela esaten hasi zen esklabua, bere burua engainatzeko. Nagusitasuna, gogortasuna, indarra, garaitzapena, baliorik gabeko edo gizagabezko deklaratu zituen, eta apaltasuna, berdintasuna, anaitasuna, argitasuna, eroapena, etabar —ahularen bertuteak— giza helburu. Nagusigoaren bertute haiek, esaten zuen, animalien dohainak dira. Gizonaren propioak beste hauk dira, nireok. Eta horrela, burrukaren erdian gizon zenik erakutsi ez zuena, nagusia baino gizonago zela sinestera ailegatu zen.

Bere burua kontsolatu eta engainatu ez-erik, azke nerako nagusia bera engainatu du esklabuak. Esklabu-morala nagusiarazi duena batez ere kristautasuna da. Dagoeneko nagusiak nagusi izateko aitzakia bila ibili behar izaten du: naturaltasun guztia galdu da. Gizontasun guztia. Gizon guztiok berdinak garela, esaten da; denok libre garela; elkarri lagundu behar diogula, etabar: horra gizarte dejeneratu eta perbertitu baten esklabu-morala. Gizona eskulotu eta zikiratu da. Edozein dejeneraturen eskutan utzi da nagusigoa. Burrukan garaitzen duena ez, nagusi dela erakutsi duena ez, baino edozein gizatxar doilor, koldar alen izango da nagusi. Gizandi bulartsu deliberatuen orde, gizagaixo zital eta narras batzuk izanen ditu gizadiak buruzagi.

Ilusioak eta engainuak utzi, eta bizitza baitetsi beharra irakasten zuen Nietzschek: natura den bezala hartu behar da. Metafisika gezurri hutsak direla erakutsi zuen, oraingo munduaren ukatzeko, mundu honetatik kanpora, nonbait, etorkizunean nahiz tranzendentzian, asmatzen diren «benetako mundu» guztiak: mundu honen kalumnia bat, mundu honetan gizon agertzeke gauza ez direnek asmatuta. Ez dagoen mundu bat

asmatzen da, dagoen bakarrari —harekin alderatuz— gaitzerizteko. Egiazko bizitza bakarra dagoena da. Eta kemena duenak ez du halako asmazioen beharrik. Bizitza burruka da: burruka da moralaren iturburua. Hots: ez dago moralik: on eta gaizto ororen gainerik dago bizitze-burruka.

Sokrate eta Platon dejenerazioaren emaitza intelektualistak dira. Egiazko bizitza tragikoarena da: ezer xuritzen ez duenarena, patuari ilusiorik gabe fronte egiten dionarena. Inolako salbaziorik espero ez duenarena. Bere hatzamarretan ezpada beste ezertan fido ez denarena.

Apolo ordenuaren, edertasunaren, argiaren, apaintasunaren, harmoniaren, gozotasunaren jainkoa da: dejenerazioaren eta ilusio faltsoen jainkoa. Jainko tragikoa Dionisos da: jainko hautsia eta bere haragi pusketetatik berbizten dena, grinaren, irrikiaren, indarraren, garramuraren, orgiaren, iluntasunaren, istintoen, bizi-nahi burrukariaren jainkoa. Apolo ihespide bat besterik ez da. Naturaren legea Dionisosek inkarnatzen du: *aginte nahia* da naturaren indarra. Beraz, gizon naturalaren indarra ere.

Ni dieu, ni maître.

Gizonaren gainerik ez dago ezer. Gizona lotzen duen araurik ez dago. Garaitzea eta nagusi izatea da nagusiaren morala. Esklaburen morala da, bere burua jaberik ez den eta izateko beldur denarena, errukia, berdintasuna, anaitasuna, elkarren errespetoa predikatzea. Ezintasunaren proiektzioa. Eta gauzeztasun horrek utopiak, ideal moralizanteak, asmatzera darma: burrukaren beldurrak eta bere menpetasunak pentsarazten dizkion idealak. Koldarregia bait da, koldar dela aitortzeko.

Demokratismoa, kristautasunaren ondarea, esklabuen ideologia politikoa da: artalde gizon koldarren pentsaera.

Nagusiak, oldartsuak, ez du inoiz pentsatzen gizon guztiak berdinak eta anaiak direnik. Badaki gizonen

artean burruka dela lege, burruka dela moral bakarra. Eta burruka egiten du. Naturak ez du errukirik edo demokraziarik ezagutzen. Indartsuenak eta gogorrenak irabazten du. Ahulena suntsituko da. Egiatzko moralala naturari dagokiona besterik ezin izan liteke, gizadiak etorkizunik izango badu.

Koldarkeriaren eta artaldekeriaren apostoluak dira, gizonari zorigaitzen eta zapalketen bukaera predikatzen diotenak. Salbazio teoria eta erlijio ororen aurka, hots, arima gaixoen esklabu-moral ororen kontra, nagusien moralala baitetsi behar da: mundu honen, bizitzaren eta burrukaren baitespen dionisiakoa, tragikoa, ilusio faltsorik gabekoa. Naturaren indarra bizi-nahia eta agindu-nahia da.

Beraz, bi moral klase dago funtsean: nagusien moralala eta esklabuen moralala. Arima gaixo, uzkur eta izutu, dekadentearena: salbazioa bilatzen du. Egungo mundu honi mundu ideal bat kontrajartzen dio, burrukarik gabekoa eta berdintasunezkoa. Arau moral batzuen kateetan lotzen du gizona. Tankera honetako moraltasun guztien erpinean kristautasuna agiri da. Beste moralala, nagusiena, arima kementsuarena da. Burrukari beldurrik ez dionarena: nagusigoa bera beste arau moralik onartzen ez duena, eta burrukarik gabeko mundutan sinesten ez duena. Moralaren oinarria funtsean biologikoa da. Arima sanoak burruka egiten du, gaixoak aitzakiak asmatu.

Nietzschekek kristautasunari eraso dio. Baina eraso honek kristautasunaren ondare guztia harrapatzen du. Baliogo guztiak hankaz gora jarri beharra dagoela esaten du Nietzschek. Emakumeak zapalduak direla? On-do gertatzen zaie: askatzea asko dute! Langileak esplotatuak direla? Bidezko da: burrukaren lege biologikoa besterik ez da, arima nagusiak artalde jendea zapaltzea eta hertsatzea. Etabar.

Hau da: gizonaren handitasuna ez datza edertasunean, samurtasunean, onginahian. Ahuleziaren handitasuna datza guzti hortan. Beraz, bidegabekeria baizik

ez da, baliogo eredu horiei jarraiki, zientziak gizona «askatu» nahirik badabiltza: hertsadurak, zapalketak argituz eta salatuz. Guzti hori bizitzaren lege da. Zientzien egitekoa nagusiak «harmatzea» da. Egiatzko gizona, supergizona, buruzagia bait da: beste denak hankapera ditzakeena, eta horregatik besteen gainean dagoena.

Guzti honek jadanik Darwin gogarazten du.

Nietzscheke uzten duen problema nagusia, guretzat, zera da: mendez mende predikatu den «humanismoa», morala, zerk oinarritzen du? Naturak oinarritzen duela esaten zen Ilustrazioaz gero. Nietzschek ezetz erakutsi du. Ilusio eta naturaren idealizazio hutsa zen. Naturari obeditu behar baldin bazaio, gizatasunaren irakasle natura baldin bada (eta hori guztiek onartutako postuladua da: oroit «dretxo naturalaren» teoria, giza eskubide naturalen deklarazioak, etabar), orduan, helenismo dejeneratuaren eta kristautasunaren ondare guztiak xahutu behar dira. Naturak —eta berdin helenismo tragikoak— berdintasunik, errukirik, eta antzeko bertuterik ez dagoela erakusten du. Naturak burruka irakasten du: irabaztea beste moralik ez dagoela. Garaileak bakarrik daduzka «eskubide naturalak». Tradizio bidez ailegatu zaizkigun baliogo moralek ez dute ezertan oinarririk: Jainkoagan ez, Jainkorik ez dago eta; ez eta naturan ere, natura arras bestelakoa bait da. Haien oinarri bakarrak, beldurra eta ezintasuna dira.

3.5. Antitesia: Darwin

Aro Modernuan natur jakintsuek, filosoforik izan gabe, filosofiaren martxarako bideak berek urratu dituzte. Hala ikusi behar da Koperniko, Galilei edo Newtonen eragipena. Hala ikusi behar da, batez ere, Darwin.

Darwin bera ohartu zen bere teoriak ez zirela biologiako edo zoologiako hipotesi partikularretan geldituko: *My theory will lead to a complete philosophy*, idatzi zuen bere ohar-blokean.

J. Huxley-k esaten du Erdi Aroak giza bizitza *sub specie aeternitatis* kontsideratzen zuela: betiraundearen argitara; egun, aldiz, *sub specie evolutionis* kontsideratuko lukeela berak. Eta, nolana hita ere, egia da, egungo gizonaren mentalidade tankera inor gutik moldatu duela Darwinek baino gehiago.

Euskal kulturgintzaren bitxitasun harrigarri horietako bat da, Pariseko, Frankfurteko edo Berkeleyko azkeneko berritasun soziologikoa biharamuna orduko euskal txolarre guztiek ezagutzen dutela. Baina biologiaren aurrerapenez ozta-ozta inor arduratzen denik, gizarteari eta gizonari buruzko ondorioak ateratzeko behinik-behin. Jende askok oraindik Darwinen aditzerririk ere ez du. Marka da hori, gero, «progresoaz» bestetaz hitzegiten ez duen gizarte batetan. Eta, besterik inoiz entzun ez duelako Adan eta Ebaren historioan hitzez-hitz sinesten duen jende horri «sozialismo zientifikoa» ulertarazi nahi zaio. Eta ulertarazi egiten zaio, dirudienez: marka eta erdi bait da hori...

Zer-den guztia «eboluzioan» dabil. Izadi guztia eta izaki oro prozesuan, mogimenduan, dabil. Maila desberdinak daude honetan, eta, hein berean, hiru «mundu» edo maila ezberdin bereizi ohi da: inorganikoa edo kosmologikoa (batzuek, arras desegokin, *hila* deritzaioten mundua; organikoa edo biologikoa; eta giza zaerazkoa edo psiko-soziala, gizakiaren propioa. Gizakiaren mundu psiko-soziala beste bien gainean eraikitakoa da eta haiekin bateginik segitzen du. Hiru mailak batera gara gu, nolabait esateko. Erakustea zaila bada ere, lehenengo nebula edo lausoak kondentsatzetik, lurra planeta bihurtzetik eta bizitza sortzetik, poetaren ametsetaraino eta politikoaren erabakietaraino hautsiune tipienik gabeko haria eta jarraikitasuna postula daiteke.

Eta hain zuzen oraindik ere baliozko eta eragikor da jarraikitutasun hori. Errazegi pentsatzen bait da, behin gizontaratuz gero, ez dadukagula zerikusirik gizon izan baino lehenago izan «ginen» guztiarekin. Eta hori ez da egia: «egitura» batzuen oinordeko eta erakarle bait gara.

Mundu inorganikoaren organizazioa guztiz simplea da: «eboluzioaren» eragileak, maila honetan, elkar-eragipen fisikoak dira, eta kimikoak batzutan. Hein berean, gizonaren konposizio fisiko-kimikoa haren bizitzan eta ihardunetan eragiten ari da: gizona ez bait da, esan ohi den moduan, izpiritu hutsa. Zaila da horrelakorik bururatzea, eta zailago argitzea, baina Mozarten musikak eta Iraultza sobietarrak kondizionamendu soziologiko eta presupostu psikologiko batzuk ukan dituzten bezalaxe, oinarri fisiko hauekin ere badute zerikusirik, ez dago hortan dudarik.

Mundu organikoaren edo «bizidunen» organizazioa konplikatuagoa da. Maila honetan «selekzio» edo aukera naturala da eboluzio eragile. Eta, Darwinek ohar-tu zuen moduan (azkeneraino ikusi izan ez arren) aukerarekin batera mutazioa, espezializazioa, trebetasuna eta maina irabaztea. Trebatze honetan goiko lehen maila hura eragikor da, trebatzea finkatzen dutenak mutazio genetikoak bait dira. Baina baita hortik kanpora ere. Adibidez, jaten dugunean gure prehistoriaren berriztapen kimiko bat egiten dugula esan liteke, eta abere bakoitzak bere janari gisa du: behiak ez du haragirik jaten, otsoak ez frutarik, eta gizonak —ez zerriak— ia edozer gauza jan lezake. Gure barruko landare, har, arrain, anfibio, harrastakari eta ugaztunak eta katarrinoak gose bait dira gure urdail barnean, eta guztiei jaten eman behar zaie! Mundu organikoa mundu inorganikoaren gainean finkatzen da. Ez naiz orain genearen, hots, auto-erreproduzitzen edo bere burua kopiatzen eta berregiten duen bizitza-sustantziatzko unidatearen problemetan sartuko. Baina bizitza, inondik ere, duela bi mila milioi urte inguru txiripa batek

sortarazi zuen nukleoproteina batek hasiarazi zuen. Eta hau, zu eta ni sortu gaituzten geneen antzekoa zatekeen.

Ez dago dudarik selekzio naturala azterkatuz gizartea ezagutzeko argitasun asko lor daitekeela. Abereen arteko organizazio formak, gizarteak, harreman moldeak, burrukak eta burruketarako arrazoiak, etabar, gizonon gauzekin antz harrigarriak agiri bait dituzte. Bizitzak bere maila guztietan egitura funtsean berdina badu, baita bizitzaren ekintzak ere. Eta gizonaren ahalegin guztiak ez dira horixe besterik.

Maila batek besteari eusten dioneko piramide honetan gizakiaren maila da gorenengoa eta hirugarrena: maila inportante, baina guztiz tipia, pregizakiak eta protogizakiak kontatuz ere 20 milioi eta erdi edo gehenez ere 30 milioi urte besterik ez du eta. Bi mila milioi urtetako bizitzaren historiaren emaitza da, ordea, handik gorakoa utzita ere. Gizaerazko organismoaren organizazioa txit konplikatua da. Eboluzioaren historian gizakiari bizirik eutsi eta azkenerako gizakia nagusitu egin duena abere honen adimen organizazioa da. Honen oinarria, aldiz, bere nerbio sistema, garuna, «burua». Espezializatorik ez edukitzen espezializatu den organo hori. Gizona, lehenik, «kostituzio irekiz» jaiotzen da. Gizonak esperentzia kontserbatzen, polo baten inguruan organizatzen eta konbinatzen daki eta, beraz, situazio posibleak alde aurretik imajinatzen. Gizonak hitzegiten daki, batez ere. (*Verbal language was perhaps the greatest technical invention of living substance*, deritza Huxley biologoak). Gizonak, Huxley-k dioten moduan, *eboluzio metodu* berri bat asmatu du: esperentzia organizatua transmititzeko, istintoaz ez baino tradizioaz baliatzea. Bizitzaren ardatza, organizazio moldeen eragile, tradizioa da. Zuzenago esanda, hizkuntza. Baina hau, guzti hau, bizitzaren progresoaren lineari jarraituz doa, eta azpiko oinarria behin ere galdu gabe.

Batzuentzat gizonak abereekin apenas daduka an-

tzik batere; eta besteren batzuentzat apenas du diferentziarik. Adibide simple batetan ikus daiteke hori: maitasunaren oinarrian sexua dagoelarik (eta sexua-zen azpian, horrela segitu nahi bada, erreazio kimiko batzuk, etabar), batzuentzat maitasuna ez da grina sexuala besterik; eta besteren batzuentzat maitasuna eta irrikitasun sexuala elkarrekin zerikusirik gabeko bi gauza arras diferente dira. Batak *animalizatzen* eta besteak *izpiritualizatzen* dizute maitasuna. Umeeak, herri primitibuek eta laborari herriak abereen hurbiltasuna normal eta atsegin aurkitzen dute. Bere buruan sinetsiak, «zibilizatuak», bigin du hurbiltasun hori, lotsarazi egiten du ahaidetasun horrek, eta —Descartes saiatu zen bezala— abereengandink zeharo diferentea dela demostratzen saiatzen da. Gizona «tximuarengandik» datorrela inori sines arazteko, lehenengo lan zientifikoa, prejudizio zozoak aldentzea da.

Elkartasunak eta burrukak eragiten diote eboluzioari. Bizidunak, Darwinek ohartu zuen bezala, elkarri laguntzen eta elkarrekin burrukan bizi dira. Elkarri janaria harrapatuz, elkar janez apika, eta elkarrenganako janari izanez. Bizitza burruka da — *struggle for existence*. Natura biziaren lege unibertuala da burruka. Azkarrenak bizirik segitzen du, ahulena —edo inguramenari gaizkienik egokitua— suntsitu egiten da. Gizona ez da «eroritako aingerurik», gora igotako animalia garaipentsu bat baizik. Burruka gaiztoa baldin bada, abererik gaiztoena gizona bera da.

Beraz, Hobbes eta Nietzsche zuzenean ote zeuden? Ez da hori esan nahi. Esan nahi da, haiek hain aisa «errefutatu» ditugunean, ez dugula geure buruak aisa engainatu besterik egin.

Argitu den baino askoz gehiago gelditzen da argitzeko, «oinarri» guzti horrek gizonaren izakeran eta ihardueran jokatzeko duen paperean. Baina ohitu beharrean gaude, nahitaez, gizonaz iharduterakoan biologoek eta etologoek ere gaur arte baino kaso gehiago egiten.

4. Kapituluia

4.1. Giza aberea

Edozeinek daki gaur, gizona «tximuarengandik» datorrela. (Euskal idazkuntzak orain arte harrigarri eta lotsagarri guti begiratu dion gauza bat izan arren).

Edozeintsuk entzun du, halaber, gorilak, gizonak eta xinpantzeak funtsean anatomia berbera dutela: eskeletoaren eitea, hezurren numeroa eta banakuntza, kopetako barrenduren tankera, begizuloen postura, garaun-aitzineko erretetik inportanteenetako batzuk, arpegiko muskuladura, belarrien zimur tolestura, aor-

taren arkuko bi adaskak, giltzurriten egitamua, espermatozoen itxura, kromosomen egitura, odol saila eta beste hamaika berdintasun biokimiko.

Hirugarren puntu bat gogoratuko dizut, oraindik. Izpiritu/gorputz dualismo mitologikoaren arloa, hain zuzen. Abstrakt ihardunez gero, edozeintsuk onartu ohi du, gertaera izpiritual edo psikiko *hutsik* ez dagoela. Edozein gertaera psikiko une berean gertaera neurofisiologiko ere badela. Batzuek, psikea neurofisiologiaren «epifenomenu» soila dela esanen dute. Besteren batzuek bion «korrelazioa» aipatuko dute. Biak gauza beraren alderdi bi direla, eritziko dio hurrengoak. Norbaitek, akaso, atzera samartuta badabil batez ere, gauza bat eta berbera besterik ez dagoela.

Hori dena dago. Materialista eta zientifiko agertu nahi denean, bereberki. Eta, halere, ez dagoena, zera da: uste horien guztien soziologiarako, kultur azterketarako, aplikazioa.

Biologian ebidentzia bat da, gizona aberea dela. Beraz, eboluzioz bilakatua. Eta, hortakoz, eite jakin baten oinordekoa, gorputzez nahiz izpirituz.

Psikologian, berriz, zailago ari da gertatzen horrelakorik ametitzea. Alegia, ihardunak eta konportaerak ere, hau da, izpirituak (eta moralak, etab.) bere egitamu heredatu bat baduela. Duen bezalakoxe abere tankera izateak, eta datorren bidetik etortzeak, gatuari nahiz otsoari bezalaxe, gizonari ere konportaera bat ezartzen diola. Ohikunde eta plegu batzuk, inklinazio eta jaidura zenbait. Ihardunaren egitamuak. Psikologoek, ordea, ez dute filogenetikaz baliatu nahi, — nahi izan, behintzat. (Nonnahi bezala, hemen ere salbuespenak badira: argigarriak buru honetan Rof Carballo-ren lanak). Nahi ez hori ez zen hoiien zientziaren eskabiderik. Mentalidadearen produktoa zen.

Horiek horrela, zoologoak izan dira, eta ez psikologoak, gizonen eta abereen fenomenu psikikoak alderatzen hasi zirenak. Whitman (1898), Heinroth (1910) eta Antonius (1937) pioneroek erreparatu zu-

ten bezala, istintoak edo senak eta organoak beren iturburu filetiko komunaren aldetik azterkatu behar dira. Hots, sinpleki esateko, anatomia jakin bati era berean konportaera jakin bat datzeko. Soineko organoak bezalaxe, aberearen bilakaeran bilakatu diren konportaerak, usantzak eta tornuak era badaude. Indibidualki aldaezinak diren tornuak eta hazturak, alegia.

Ez da beti horrelakorik baitetsi nahi izan, — gaur bertan ere baitetsi nahi ez lukeen asko dago. Har dezagun adibide xehe bat, gai hau hazgarbatzeko aproposenetakoa bait da. *Istintoa*-ren problema da.

a) *Bitalistentzat* «istintoak» ez luke esplikazio kausalik. *Joera faktore* bat besterik ez litzateke. Aberearen jokabideari xede bat ezartzen dio eskola honek, eta istintozko iharduera xedeari begira desarroilatzen den iharduna besterik ez zaio iruditzen. Abereak ugaltzeko xedea du: beraz, umatu, beste sexua bilatu, etabar, egin behar. Abereak bizirik irauteko xedea du: beraz, organismoa berrizkatzeko eta indartzeko jan egin behar, ehize edo larre egin behar, e.a. Xedeari dario ekintza.

Hori horrela balitz, xede-istinto batek eragindako ekintzak, eskuarki, beti azken-fin eta bertute berdina, kostantea eduki beharko luke. Baina hartarainoko ibilbidea guztiz aldakorra eta ezberdina izanen litzateke. Kasu bakoitzean nork berak xedeari begira taxutua eta adaptatua, hain zuzen. Adibidez, sexual istintoaren bertutez arituz, beti har-emeak gorputzez izanez, umatuz, ernalduz, bukatuko litzateke. Berdin, ehizea atzemanaz eta janez bukatuko litzateke gose istintoaren ekintza. Baina ehize aldiak berak eta gorputzez izan aurreko jokaerak, esate baterako, edozein forma indibidualki diferente izan ahalgo lukete. Ez da horrela, ordea. Bai ehizeak eta bai amorioak ritual txit zehatzak betetzen dituzte, egitamu jakin eta doiak dituzte eta abiadura beti berdin ordenatuak. Abiadura, iharduna eta bukae-

ra, dena determinatzen duen kausalidade bat onartzeak bidezkoago dirudi.

Hori esplikatu nahi zuten «eskola mekanizista» ohi deritzatenak. Hauk bi joera nagusitan partitzen dira:

b) *Behavioristak*: jatorrizko ihardupide jakinik, portaeraren predeterminaziorik edo berezko egitamu-ko «xede jakinik» ere ezetz esaten zuten (eta dute). Aldian aldiko bai iharduna eta bai iharduteko moldea aldian aldiko kausek determinatzen dutela, eta ez dagoela besterik.

d) *Pawlow-en eskolak* onartzen zituen konportae-raren jatorrizko mogimendu-jarraikitasunak. Ihardunal-diak iharduteko eskemak. Alabaina, errefleso baldindu gabezko edo inkondizionatuen kateapen bezala esplikatzten zituen. Hori problematiko da. Bitalistek, eta *Purposive Psychology* zaleek batez ere (McDougal-ek, adibidez), arrazoiez osteratzen zuten, horrela ez zela esplikatzten zenbait ihardunaldi «istintibu»ren berezko-tasuna, espontaneotasuna. *Ez dago esaterik, estimulo edo narritamenduari erreaziorik dagoenik*, argudiatzen zuen McDougallek, *organismoak narritamendurik edo zirikadarik sumatu ere egin ez badu*. Horixe bait da kasua. Baina entzun ez denean ez dago erantzunik. Ardiespenik gabe ez eta ihardespenik ere. Eta hortan zeztan errefleso teoriaren hutsa: errefleso-kate bezala heredaturiko ekintza-kate horretan ez dela funtsez espontaneidaderik kabitzen.

Beraz, bitalistak eta mekanizistak elkarren begiz-begi kausitzen ziren. Eta hala segitu dute, nerbio sistema zentralak berberaz eta bere gisara diharduela, argitu den arte. Nerbio sistimak berezko *estimulo produzio endogeno automatiko eta ritmikoa* duela. Izpiritu/gorputz dualismoa benetan kondentatzen bada —eta irakurle modernuak kondentatuko duela espero dut— hori teoria biologiko hutsa baino gehiago da. Kultura-ren juzgatzeke ere asko esan nahi du.

Beraz, zer da nerbio sistimaren berezko estimulo produzio hori, eta franko bihurki hain zuzen produzio endogeno, automatiko eta ritmiko bezala seinalatzen den hori?

Erreflesoak eragipen edo narritamenduren baten meneko dira, bai beren hastapen aldetik eta bai beren desarroilo aldetik. Hau da, zedozerk bere kanpotik eraginda bakarrik hasten da ekintza erreflektibua. Eta eragipen haren moduak finkatzen du errefleso ekintzaren moldeak ere. Zedozer eragilerik agiri ez bada, errefleso ekintzarik ere ez da agertzen. Ez dago mogimendurik.

Ezin uka, mogimendu eta ekintza asko honela esplikatu behar dela. Beste asko, ordea, esplikaziorik gabe uzten da. Whitman eta Heinroth ongi akordatu ziren horretaz. Craig-ek (1910) eta Lorenz-ek (1937) argitu digute problema hori, eta von Holst-ek (1936, 1938) eman dio azalpen fisiologikoa. Labur-laburki adieraziko dut:

Neurofisiologiarentzat luzaroan postuladu korrientea zen, lan hipotesi komunzki onartua, nerbioen egikunde oro funtsean errefleso zela. Horretaz geroztik, esperimendu oro zeran zetzan: aberea har, ahalik eta pasibuen jar (Pawlow-en zakurrak eredu bat ziren), eta estantea alda, estimulo diferenteak probatuz. Beraz, esperimenduak horrela eginda, emariak, nahitaez, abere pasibuak estante berri bakoitzean emandako estimuloei nola erantzuten zien adierazten zuen beti. Presuposamenduek eta esperimenduen moldeak berak determinatzen zuten emaitzaren tankera. Hots, emariak beti presuposamenduak egiztatzen zituen, itxuraz. Pawlowismoaren merezimendu paregabekoa da konportaeraren azterketa fisiologikoa abiarazi izana. Baina modu horretan ihardunez, nahitaez irudipen hau xe sortu behar zen: nerbio sistema zentralaren egin-kizun guztia estimuloei *erantzutean* datzala. Berezko ekintza propiorik gabe.

Aipaturiko zoologoek, aldiz, honoko beste hau atzeman dute. Abereen zenbait ihardunek, doitasunik edo ginorik, proportziorik, ez duela estimuloarekin. Arago, espresio mogimendu askok adibidez (hauk batez ere), ez duela estimuloren baten eragin pean dabilenik erakusten. Umeske garaiko *amodio jolas* askok, esate baterako. Eta beste hau ere: estimuloaren zain pasibuki egon gabe, abereak bere *aldarteak* ukaiten dituela, eta abereak aldarteok bere baitatik sortzen dituela. Beraz, aldartearen arabera, estimulo berari segun noiz erantzun arras ezberdinak ematen dizkiola. (Zeu ere, noski, gauza batek berak behin haserretu egiten zaitu, eta hurrengoan berberak barre eragiten ditu; behin hunkitu eta bestean aspertu). Eta oraindik: istinto edo senezko mogimendu bat hainbat errazago probokatzen dela, luzaroan erreprimatu izan baldin bada. Eta luzaro aski erreprimatu bada, inolako estimulorik utzi gabe, berez martxan jartzen dela, objeturik ez duelako «aidean gertatuz». Holakoetan, ordea, iharduera prozesu guztia puntuz-puntu eta zeharo iharduera normal batetan bezain egin-egina da. Sexu bizitzan oharrematen da hori errazkienik (lotan zaudeneko sexual bizitzan, adibidez). Baina eraso-grinan eta ehize-instintoan ere bai.

Idi mantsoak nagusia hil zuela, esaten da. Eta ez da horixe besterik esan nahi: agresibitatea luzaroan erreprimatu duenak, bat-batean, itxuraz arrazoirik batiere gabe eta inork espero ez zuenean, leher egiten duela. Honelakoak edozein eskolatan ere suma daitezke. Betiko «mutil zintzoak», apal eta otzanak, halako batetan, esplika ezinezko eztanda edukitzen du. Inork ez daki (?) zer pasatzen zaion mutilari. Lantegietan, espetxeetan, koarteleetan, e.a., estimuloak sobera izan arren errepresioa are handiagoa den tokietan, jendeak nagusien edozein zipozkeria desesperatzeraino agoantatu eta «tripak jan» eta «potroei eutsi» behar izaten duen tokietan, estimulorik ez zegoela dirudien edozein okasiotan leher egiten da. Libertadean ezer esan nahi-

ko ez lukeen gauza batek izugarrizko haserrea sortzen du, esaterako. Huskeriek izugarrizko inportantzia hartzen dute. Gartzelan adiskide min asko haserretu da betiko, «huskeriaren» bategatik. Lanean isilik asko obeditzen duenak, etxean andreari paga arazten dio bere erremina. Herri hizkuntzak ongi ezagutu du hori, eta halakoa *erreta dagoela* esaten du. Psikologoek makina bat halako historio kontu liezagukete.

Kalean uso eta etxean otso, esaten zen halaber. Eta hipokresia zitalaren seinale bezala ikusten zen hori. Gauzarik normalena da, ordea.

Izan ere, dinamika iturriz beteta gaude barnean. Istintoa ez dago estimuloaren zain, abiatzeko. Istintoari, hormonon antzera, bere «estimuloa» dario. Eta iturri azpian jartzen duzun antoisina betez gero, gainezka doa. Institoaren jarioa ere, irtenbide egokirik ematen ez badiozu, gainezka doa. Munduko senarrik zintzoenak eta munduko emazterik maitagarrienak, halako batetan, gero damu duten «erokeria» egiten badute eta irrist egiten badute, itxuraz kausarik gabe, ez da horixe besterik gertatu: *gainezka egin* dute. Esne egoziak ere gauza bera egiten du puntura ailegaturikoan surtatik kentzen ez bada.

Guzti horren azalpide soziologiko eta psikologikoak interesgarriak dira. Baina jakingarriak dira fisiologikoak ere. Craig-en ondoren von Holst-ek eta Lorenz-ek eman dizkigute hauk. Alegia, gure barnean motorrak beti martxan dabilzela. Eta ibiliaren ibiliz, eten gabe, irrika, hisia, gosea, egonezina, antsia, gutizia, amorrua, sortzen ari direla.

Aski da zure nerbio sistimako puntu batetan kalabrazo bat, hipokanpoan esate baterako, eta zerebiziko haserrea, edo zorionaren baretasuna eta patxada, edo sexual bakeadura osoa, edo heriozko tristura, sentitzen duzu. Edo honez gero ez dakizu obeditzen, ez duzu inoren buruperik onartzen. Desegiten dizute punturen bat zure nerbio sistiman, adibidez hipotalamoan, eta neurririk gabe jaten duzu, homeostasia guztiz gal-

durik. Edo ez duzu deus jaten. Edo ez duzu edateko neurririk ezagutzen. Edo lo hartzen duzu. Loarazten dizute, berriz, *formatio reticularis* delakoa, eta alferrik **dira ziztada eta estimulo guztiak**. Estimulo hauen zirriada eragozpenik gabe ailegatzen da kortexeraino, baina halere, ez duzu ezer sentitzen, ez duzu «kontzientziarik». (*Formatio reticularis* horri «kontzientziaren organo» ote deritzaiokegu?). Baina utz dezagun barruti bitxi hau. Halere ez da dudarik: nerbio sistimak kontrolatzen du konportaera. Goseak dagoen aberea janari bila doa. Otzak dagoena bero bila eta bero dagoena abarora. Ernalmin dagoena koito bila. Barneak darabil, nolana ere. Barnearen premiak eta gurariak (*appetitive behaviour*).

Sinpleki esan: gatuak sagua ezin ikusi badu, eta leopardoak zebrak akabatzen baditu, ez da zebrek leopardo eta saguek gatu *probokatu* egiten dutelako. Berez daude haien kontra neurofisiologikoki *probokata*.

Lehen kapituluetan ikusi genuenez, problemok zientzietan baino buruhauste gaitzagoak sortzen dituzte mentalidadeetan. Baina zientzietan ere hamaika nahasmendu sortzen dute. R. Garate, *Lanaren Antropologia* liburu bikainean (16), gureokin zerikusi biziki gutiko bideetatik dabilkigu. Baina hura ere problema honekin topatzen zaigu (6 kapitulu guztian). Oinarrizko problema bait da. Eta hura ere, bere eran (eta gurea ez bezalako eran, segurki), arrazoipide berdintsura heldu da. Hona Garateren pasartetxo bat, ileetatik aterata apika, problema honetan duen aburua jakinarazteko:

Baina, onar ez genezakeena, Freuden eta Marcuseren aurka, hauxe da: kontzientzia, haurrari **BESTEK EMANIKO** gauza soila dela esatea, bestek haurrari **EZARRIRIKO** gauza soila dela esatea (209. or.).

Beste leku batetan

gure nerau hau, bere gizabidean, natura jakin bati da-
rraiola,

esaten digu poliki asko.

Istintoaren berezkotasun horixe da, hain zuzen, konportaeraren esplikazioa hain zail eta gaurkoz kalkulaezin egiten duena. Eta istintozko iharduna, sumendi loakartuen eztrandak bezala, hain arriskutsu egiten duena. Bestela aski litzateke kanpotiko eragipenen azterketa zehatz bat, konportaeraren nagusi izateko.

Ez da egia Descartes-en *animal non agit, agitur* pasibu hura, behaviorista amerikanoen abiaburu eta zuzi bihurtu bazen ere. Craig-ek Indi-usapal harrekin egin-dako probek ongi erakusten dute.

Craig-ek usapal harrei denboraldi baterako emeak ondotik kentzen zizkien. Halere harrak ez ziren («probokazioa» falta zenez gero) kastidadera ohitzen. Izorramin edo umamin zirenean, beste edozer gauza kor-tejatzen hasten ziren. Emea kendu eta egun batzuetara pronto zeuden etxeuso zuri batekin esposatzeko: bere jeneroko emerik inguruan ikusiz gero sekula egingo ez lukeena. Egunduk batzuk geroago, berdin trapuzko uso muineka batekin ere. Geroago, oraindik, zarpail mordo batekin ere bai. Eta, azkenerako, kaiolaren eskina kanto batekin egin nahi izaten zituen bere operazioak. Irakurleak ere honelakoak behin baino gehiagotan ohartuko zituen, bere kaiolako txoriak sagar edo laranja baten gainean, edo zakurrak igoal eserita dagoen nagusiaren belaunean, ze proba egiten dituzten ikusi badu. Asta-har batek baino gehiagok pentsatu izan du, inguruko dibertsio handiz, zuhaitzondo morkor bat emea zela!

Agresibididearekin berdintsu da, goraxeago esan bezala. Txinbeleta-arrainak (*Chaetodon*), bere jeneroko burruka-lagunik edo burkiderik ez badu, urdin distira duen beste edozein arraini erasotzen dio. Bestela

adiskide antzean tratatzen dituen arrainei ere. Eta besterik ez bada, ikustatzen duen edozein urdini. Etxeko akuarioan perka pintoaren arrainkume mordo bat hazi duen bati baino gehiagori gertatu zaio ikustea, ume-tarako garaia heldu denean, eta pareja batek arrautzak egin dituenean, perka pinto harrak beste perka pinto guztiak bere aurretik aidean darabilzkiela, har nahiz eme. Han daude beste perka pintoak, zauriturik eta larri, nora aldegin ez dakitela. Eta perka aita gero eta barrabasago. Kupiturik, jabeak beste akuario batetara pasatzen ditu, esposario pareja haserrea eta beste gaisoak apartatzeko. Egun batzuk geroago perka pintoaren emaztea hilda aurkituko du. Perka pintoak (*Cichlidae*), izan ere, burruka egin behar du. Eta burrukarako aukerarik gabe luzaroegi egonez gero, emearen gain deskargatzen du bere agresio guztia, eta garaiz apartatzen ez badira, edo urmaelera beste perkarik botatzen ez bada, emaztea garbitzeko gauza da.

Animalia eta pizti asko familiatan, taldetan, bizi da. Nola moldatzen dira? Ez dago esan beharrik ere, natura jakintsu eta zuhurrak, abereak bizitzeko behar dituzten zentzuz eta organoz hornitu dituen bezalaxe, bizimodu sozialerako arauak ere abereon naturan idatzi dituela. Organo hauk edukitzea bezain inportante da, berauen usadiorako arauak edukitzea. Erleak usmamen, gustamen, hego, mizto eta bere sekrezio propioak ditu, obario zimelduak (lan erleak, alegia: hau da, erreginaren sustantzia batek desarroiloa eragotzirik), eta bere nerbio sistema: baina naturak bere sozialtasun berezia eta bere «hizkuntza» edo komunikazio seinaleak eta konportaerak ere «irakatsi» dizkio. K. Frisih-ek aztertutako erle dantzak, adibidez. Otsoari hagin zorrotzak eman dizkion naturak, otso lagun errendatua errespetatzea ere agindu dio, burrukan amor eman dionari lepezaina ez mozteko, e.a. Aberearen portaera beti ere guztiz araukatua da. Naturak maneatzen du aberea, naturak darabil eta gidatzen du.

OXI Ez xederen batek, naturak irakasten die abereei nola ihardun eta nola organiza. Eta hartarako «premiarik» ez dagoenean ere, halaxe ihardungo dute. Ikus behiak eta oiloak ura edateko operazio berbera zein modu diferentetan burutzen duten, biek aska beretik edan arren. Hots, abereak ez zaizkio «xedeari» egokitzen. Naturari jarraitzen diote.

Arrazionalismoak askotan pentsarazi digu, arrazoizko ihardunaldia xedeari egikitzen zaiona dela. Zertarako egin hau eta hori, zertarako honela eta bestela ihardun? Zertarakoa duenak eta dakienak dirudi arrazoizkoa. Zertarako artea? Zertarako mitoak, sinesmenak?... Naturak «agintzen» duena, aldiz, sentimentalkeria eta irrazionalkeriatzat hartu izan ohi da. Fun-tsean, naturak ez duela ezer agintzen uste bait zen. «Barneak eraginda» poesia egitea erromantizismo zimel hutsa omen da: xederen bat eduki behar da beti (egunotan xede *soziala* eskatzen da). Barneak eraginda sinestea, erlijioak sortzea, aginpideari begirune ukaitea, e.a., zozokeria omen da dena. Klase burru-kari deliberatu horiei eta iraultzagile gogor hauei eta beste abertzale sutsu horri «barneak eragiten» diela esaten baduzu, iraintzat hartuko dizute. Arrazoi askoz arrazoizkoago batzuegatik ari direla uste bait dute. Xede ohoragarri batzuegatik ari direla. Xede horiek eragiten dietela. Horrela, maiz gure ihardunari xedeak asmatu behar izaten dizkiogu. Xedearekin, berehalaxe, ideologiak. Eta *horregatik* dihardugula, esaten dugu. Xede horrengatik. Egia, ordea, ia beti alderantziz da: *gogoak ematen digulako* eta barneak eragin digulako ari gara ari garen arloan. Eta gure ekintzak xederen bat ere beti ukaiten du, natura ez bait da norakorik gabe ari.

Teleologismo hori eta xedeen kanonizazio hori konpreni liteke, *naturak eragitea* lotsagarri eta irrazional balitz. Eta, dudarik gabe, lehenago hala ikusten zen: alfer-alferrik bait da, naturak barnetik garabilzkiela eta espontaneoki ihardun arazten digula esatea, gero (bi-

talisten antzera) naturaren kontzetu franko mistiko bat edukitzen bada. Barneak eragiten digula esan arren, gero barne hori, naturaren *élan* hori, inola argitzen ez bada. Aitzitik, naturaren *élan* eta indar mistikorik ez dago. Naturaren arimarik edo izpiriturik.

Naturaren barrendiko eragipena, esplikatu ezin zelako, erromantizismo eta natur-mistizismo gisa arras desprestijioan erori bazen, giza zientzietan makur kurioso bat sortu da. *Zergatik* eta *zertarako* galdera bien nahasketa. *Zergatik* egin zen halako gudu? *Zergatik* sortu zen bateko filosofia eta besteko legeria, edo morala? *Zergatik* egiten da hori eta hura? Zereko zera *lortzeko*. Helburua eta kausa berdinkatzen dira. Produzio prozesuan gizonak elkar aditu ahal ukaiteko sortu omen zen erlijioa, eta abar. Beti xedea kausa. (Errepasa itzazu gaurko soziologiak edozeri eman ohi dizkion esplikazioak: askotan kausa bezala formulaturik egon arren —*lako*— funtsean xede besterik ez dira aipatzen diren kausak)... «Arrazoizkotasun» askotxo aitortzen zaio gizonari, zin-zinez. Izan ere, egia da kontzientzidun gizonak, ekintzan ari delarik, asmoren bat edo xederen bat izan ohi duela begien aurrean. Baina ekintza baten kausak eta ekintza horren bidez xederen bat eskuratzeko asmoak, ez dira derrigor gauza bat-bera. Kontzientziaren eskupean gabiltzela uste izatea litzateke beste dena. Idealismoa. Beraz, horra zenbat idealismo txepel gelditzen den oraindik zientzietan beretan ere. Eta are zenbat gehiago mentalidade korrientean.

Naturak, alderantziz, teleologismorik gabe dihardu, horregatik burugabekeriatan aritu gabe.

Egunotan ideologiaren kritikan hasten diren zientifiko gehien tiroak teleologismoaren kontrakoak izara, helburuak historia bereganantz gidatzen duen ustea ten dira. Iman baten edo probidentziaren baten antze (uste kristau, hegeliano nahiz marxista) higuin garri zaie zientifiko hauei. Irakurlea oroituko da Monod-ek sortu zituen iskanbidez. Halere, ez zait probetxu han-

dikoa iruditzen, ideologiak jadanik arrunki eta orokor-ki teleologiko izateagatik kritikatzea. Bazterretan entzuna eta ondo ikasia da, teleologismoa zientziatik aparte dagoela. Baina teleologismoa eta zientzia bereizka daitezkeela pentsatzen da. *Zientzia marxista* eta *teleologismo marxista*, adibidez, bi maila diferentetan daudela, eta bi gauza zeharo diferente direla. Izan ere, bi mailok apartatuz gero, zientifikoari bere hesparruan gelditzeko eskatzen zaio, eta ez hankarik sartzeko besterenean. Badu funtsik bereizkuntza honek. Batez ere, ideologiek beren buruak zientziaren atakeetatik salbu eta seguruan jarri dituzte. Zientziak beren aldetik eta ideologiak berenetik gelditzen dira. Erraz egiten dira bakeak. Ideologiak zientzien erasoetatik salbatzen dituen bereizkuntza horretaz asko mintza liteke. Baina, dena den, tranpa makurra da, gero ondorio hau ateratzea: «gertatzea» naturak egiten du; ekintza, aldiz, teleologikoa da. Hau da, adibidez: iraultzarik egin ahal ukaiteko, gizartearen azterketa zientifikoa behar-beharrezkoa dela; baina iraultza egitera eragiten diguna, ekintzara, ez dela azterketa hori, fedea baizik. (Fedea kristau ala marxista ala beste edozein ideologia-takoa izan liteke). Arrazoipide hau askotan erabiltzen da. Gizonaren ekintza teleologikoa salbatu nahi derri- gor. Eta egia da gizonaren ekintzak, kontzientea den aldetik, beste abereena ez bezala, egitamu teleologi-ko hori agiri duela. Baina arrazionalismo eta idealis- mo ilustratu hutsa da, boluntarismo tankeraz jantzita, ekintzaren iturburu eta kausa beti ere fedea bakarrik, edo xedeak, aipatuz ibiltzea. Ekintzari beti ere sus- traiak naturatik landa bilatzea. Natura eta historia (ekintza) bi erreinutan bereizi, eta historiarentzat te- leologismoa gordetzea da hori. Hots: ekintza funtsean kontzientziari bakarrik dariola (nolanahiko Kontzien- zia Absoluturen bati, agian).

Xedeak xede, naturaren esku-hartzerik gabeko ekin- tzarik ez dago. Historia ez-naturalik ez dago, fenome-

nu *psikiko hutsik* ez dagoen moduan. Ekintza naturari dario. Eta naturari dario historia.

Naturak irakatsi dio erleari, erlauntzera muturra sartzen duen oro hiltzen edo zitzaka haizatzen. Naturak irakatsi dio ia abere goren orori lurralde batetaz jabetzen. Ia abere sozial orori hierarkia bat sortzen eta errespetatzen, goragokoei men egiten, e.a. Naturak munduan jarri gaituenean, ez dizkigu organo batzuk eman bakarrik. Horietaz baliatzen ere «irakatsi» digu.

Naturak irakasten dio txantxangorriari abesten. Naturak dotatu du bere hegadaz eta kolore politez. Baina natura berak irakatsi dio, halaber, lurralde bat bereztat hartzen ere. David Lechek estudiatu du txori papar gorri hau (*Erithacus rubecula*). Harra lurralde batetaz jabetzen delarik, lurrean dago eta kantari hasten da. (Txantxangorri emeak ere kantatzen du). Goxogoxo, lehenengo. Kontrarioen batek erantzuten baldin badu, gero eta gorago eta zoliago kantatuz jarraituko du, kanta norgehiagokan. Txantxangorriak bere lurraldean bakarrik kantatzen du. Ez «herbestean». Lurraldea, berriz, libreki onarturiko presondegi bat bezalatsu da: ez duzu haizatuko. Eginak egin, bere lurraldeari atxekirik segituko du. Mugaraino izutzen baduzu, bat-batean tragaza bat bezala zeure buru gainetik pasa eta atzera lurralde barnera itzuliko da. Beste txantxangorri harren bat inguruan entzuten bada, hori desafio nabarmena bait da, gure txantxangorriak jo eta kantuan ekingo dio, duen potentzia guztiaz. Har intrusoa segituan, edo (kantu kantari egindako) indar neurketa laburraren ondoren, erretiratzen da komunki. (Honelako norgehiagokak zeuk ere probatu izan dituzu, apika, basoan. Txori kantarik txistuka imitatzeke gauza ez bazara, gutienez kukuarekin «elkarrizketan»). Intrusoak aldegin nahi ez balu, txantxangorria amenazoka eta imintzioka hasiko da, bere indarra erakusteko: mokoa luzatuz, gorputza kizkurtuz eta mokoa gorantz jasoz eta, beti ere, papar gorria nabarmenki erakutsiz, intrusoa mehatxatzeko. Intrusoak hala eta guz-

tiz ere aldegiten ez badu, bertan gelditu nahi duela eta burrukarako pronto dagoela adierazten du. Beraz, izugarrizko burruka batek, hatzamarka eta mokoka, erabaki beharko du lurraldearen nagusi eta jabe zein izan. Txantxangorria burrukari gaitza da bere lurraldea defendatzen duenean. Ausaz, inoiz ikusiko zenuen bi txantxangorri, elkarri hatzamarka giltzatuta, lurreraino erortzen, eta halere burruka segitzen. Gonbateon ondoren luma mordoska gelditzen da gudu zelaian.

Aberdeen *territorio konportaerak* ezin esan araziko digu, jabegoa besterik gabe naturala denik. Edo aber-tzaletasuna. Baina nekez esan liteke, jabegoak edo aberriarekiko atxekitasunak, naturarekin zerikusirik ez dutenik, eta alferrikako asmazio kultural soilak direnik, naturan inolako oinarririk gabe. Zereginen bat zutenean sortuak direla (burgesiaren aroan, esate baterako, abertzaletasuna; edo, nekazalgoarekin, lur jabegoa), eta zereginik edo xederik ez dutenez gero, honez gero zertarakorik gabekoak liratekeela.

Era berean, itxuragabekeria hutsa da printzeak eta esklabuak egotea naturala denik esatea. (Teologo katoliko askok eta Leon XIII.ak berak ez ote zuten horrelako zerbait irakasten?). Baina inolako diferentziarik, nagusirik, goikorik eta azpikorik, mailarik eta ez hierarkia sozialik gabeko gizartearen ametsak ere, era bateko eta guztizko berdintasunaren demokratismoak alegia, humanismoaren helburu klasikoa izan arren, ez dirudi jakituriaren gailur-gailurrik hain zuzen.

Nekez esan liteke, besterik gabe gudua naturala denik. Baina nork esan, bake unibertsalaren utopiak gizonaren natura hobeto interpretatzen duenik, *bellum omnium contra omnes* teoriak baino?

Eta abar, eta mila beste abar.

Natura berberak irakasten dio euli dantzari (*Empidæ*) harrari, euli harrapakarien antzekoa bait da, lehenengo intsektu edo mamorro bat harrapatzea eta bere damari, gainera igo aurretik, eskaintzea. Emea jaten ari den artean harrak umatu egiten du. Bidezko

da. Zeren eta, bestela, emeak harra bizirik jango luke, euli mamorro-jalea da eta. Harra emea baino erkinagoa da.

Jeneralean, halere, harra emea baino galantagoa izaten da (zenbait intsektok klase aparte). Eta naturak emearekiko galaitasuna irakatsi dio harrari. Gizonek elkar jotzea basakeria da, noski. Baina gizonek emakume bati jotzea gizatasun guztia galdu den seinaleztat hartzen da. Hori ez da «harren kulturak» menpean daduka eta *role* bat jokatzera behartuta dagoen emea engainatzeko sasi-pribilejiorik. Are gutiago, beti nagusi izaten ohitu den gizonak nagusitasun horrekin desarroilatu duen kontzientziarik. Emeari haginka egiten dion zakurra, eta berdin otsoa, ez dira normalak. Zakur emeak harrari inoiz benetan haginka egiten badiu, harra ahal duen moduan babestuko da, edo sarriago ihes egingo du, baina ez atzera ausikirik. Menditxonta edo pinpin harrak ez luke munduko ezergatik emerik gaizki tratatuko, emazterik petralena tokatuko balitzaio ere. Harrastakariak berak ere zaldun portatzen dira puntu honetan. Muskerrak margoetan ezagutzen du harra, eta ikusten duen harrari berehalaxe erasotzen dio; emea usainera ezagutzen du eta ez dio inoiz eme bati erasoko, esperimenterako usaina artifizialki aldatzen ez bazaio behintzat. Baina azkeneko kasu honetan, emeari erasotzera ailegatu bada (honi usaina aldatu zaiolako), muskerrak, ohartzen denean, izugarrizko xoke psikologikoa eramaten du, eta ia ez du asmatzen harrei erasotzen ere. Duda-mudan egoten da, bizpahiru aldiz usaina hartu arte (nahiz eta bitartean beste harrak eraso).

Eta aldrebes, pribilejio hau duen emeak ez du sekula abusatzen. Aitzitik, bentaja hau eman dion natura berak irakatsi dio, harraren aurrez-aurre guztiz apal eta gozo eta meneko eta begirakor eta xarmant eta, hitz batetan, guztiz dama gisa portatzen. Musker eme bikain bat, beste musker eme guztiekin etengabe burrukan dabilena, har koxkor batekin topatzen bada,

gutziz apaltzen da eta gehienez ere bere xarmak eta mainak erakutsiko ditu. Harraren aurrean emea eme. Berdin zakurrak, batez ere otsoarengandik gertu dagoen kastakoa bada. Eta berdin hegaztiak ere. Gure inguruetakoa berdesila edo txorrua, burubeltxa, kardanxuloa (karnaba) eta besteak. Harra nagusi da, nagusi lanak egiten ditu, nagusi bezala portatzen da. Serio dago. Emeak bere sorginkeriak erabiltzen ditu. Pinpin edo txontak, adibidez, J. Nicolai-ren estudioek erakutsi digutenez, senar-emazte finak dira, urtero-urtero harreme berdinek egiten bait dute habia. Harra zaldun serio bat da. Emea, aldiz, panpoxta franko mainatia. Beti senarra ximikatzen ari da eta zirikatzen eta lata ematen. Edo desprezioak egiten. Pinpin emea, neska modernu asko bezala, guztiz emanzipatua da, eta ez dio harrari jaurespenik erakutsi nahi izaten. Kardo bat da. Harrari diosala egiterakoan ere (moko-flirteoan) nahiko agresibu eta zakar portatzen da. Harrak axolagabeiaz demostratzen du bere liberaltasuna eta nagusigoa. Ezer ohartuko ez balu bezala egiten du. Pazientzia handiz eta duintasunez eramaten ditu emearen apetak eta kasketak. Edo senar maitatiak andere gaisoari bezala, laztanez erantzuten dio. Dirudienez, nagusitasun honek emea biziki inpresionatzen du.

Maina gutiagorekin, baina, emearen emanzipazio kontuan, berdesila pinpina baino aurrerago dabil. Urtean zehar dagoen hierarkia, urteko bolara baterako aldrebes jartzen bait du: ume garaian berdesila emea etxeko nagusi eta jaun da, eta harra isil-isilik.

Sexu bakoitzak bere harmak, — eta, eskierki, naturak emanak. Gizakiak gauza on eta handi asko asmatu du bere «kulturan». Baina emea, beronen grazia eta maina guztiekin, gizonaren kultura denik eta gizonak asmatu duenik pentsatzeko, kulturaren inportantzia bizi-biziki superbaloratu behar da, alajaina!

Harraren eta emearen elkarrekiko portaera sozialak ederki ikusten dira durduraren ohikunde edo ekanduetan. Neguan harrak eta emeak nahasmahas ibiltzen

dira kolore horixtako txoriok. Otsail-martxo aldera harrak lurraldeez jabetuz joaten dira, harren artean ohizkoak diren betiko burrukekin. Gero emeak sakabana-tzen dira. Guztiz mutiri eta lotsagabe agertzen da emea, harra tentatuz. Burrukan erasotzen dio, eta har gaisoak, beste harren kontra bere eskualdea oldartsu defendatu duen harrak, orain ihes egiten du. (Baina garai berean beste harrik agertzen deskuidatzen bada, durdurak derrefente erasotzen dio). Geroxeago eme bat har bat eta bera sarriago bisitatzen hasten da. Eta elkarrengana ohitzen dira, elkarrekin jatera joaten dira eta sasi edo zuhaitz berean atsegiten hasten dira. Ezkongaitu direla, esan liteke. Eta orain harra hasten da emea haizatzen eta persegitzen. Bataren ihes eta bestearen persegizio hauetan pasatzen dute egunik gehiena. Harraren beldur balitz bezala (ihes) egiten du emeak, eta harra, hartasunaren lainezak eginaz, emearen atzetik zalapartaka ibiltzen da. *Amodio jolasok*, harra aspertzen edo nekatzen denean bukatzen dira. Gero, elkarren ondoan, goxo-goxo. Neska/mutil gazteak gogarazten dituzten ihes eta persegizio amodiotsuok (txori askotan nabari dira jolasaldiak), giza itxura guztizkoak badira ere, ez dago psikologizaterik. Esplikazio txit sinplea dute: emearen obario edo arrautzabian arrautzak heldu arazteko modimenduak egiten dira. Dena den, hierarkiak eta jokoak garbi gelditzen dira bien artean: harra nagusi, eta emea etxe-ko andre. Nahiko jolas egindakoa, maiatz aldera, habia egiten hasten dira. Harra material garraioan ibiltzen da. Habia morkaitz edo malkarren batetan, lur-rean, prantatu eta txukundu, emeak bakarrik egiten du. Gizonak ez bait du sukaldean sartu behar. Habia aurreraturik dagoenean, emeak oihu berezi bat botatzen duela ikusiko duzu. Harrari dei egiten dio habi ondora. Eta gorputza horizontalki, mokoa beheraka, hegoak zabaldurik eta dardarka, haren aurrean dantzan ari da. Beste batzutan salto ttipiak egiten ditu, gorputzeko lumak harrotuz, buztan edo isatsa beheratuz, be-

launak doblatuz eta kukubilkatuz, hegal zabaldu dardartiak lurraren gain-gainean labanduz. Nahi duela, adierazten dio senarrari. Harrak alde bezala egiten du lehenengo. Baina behin ondoratu egingo zaio. Eta emeak eskatzen segitzen badu, postura horizontal berezi bat eskainiz, eta hots berezi bat eginez, beti dardaraz, harrak gainera igotzen dio.

Alafede! Pertsonak direla esango litzateke...

Har-eme edo senar-emazteen harremanak naturak guztiz araukaturik daude. Emaztearen emanzipazioari, bistan da, sekulako esito guztiak opa dizkiogu, edozein alde eta moldetan. Batzutan, halere, harra eta emea berdinkatu nahi dituzten susmoa hartzen zaio emanzipazio mogimendu horri, eta hori guztiz dibertitua da. Badakigu andrea ez dela muskerren bat, ez eta pinpinik edo usorik ere. Baina, fortunari eskerrak, hura ere abere dela uste dugu. Eta hura ere naturak moldatu duelakoan gaude, gorputzez zein izpirituz. Naturak, ordea, bi sexuen diferentziari merezi duen inportantzia guztia ematen dio beti. Agian, gizon guztien berdintasunaren tesia ez dago absolutu metafisiko bihurtzerik.

Naturak berak, nolana ere, ordenu garbia maite duenez gero, sexuen artean diferentzia nabarmenak sortu ditu, eta, esate baterako, bien artean buruaren eta bigarrenaren hierarkia ere ipini du. Harra buru. Usoak, ia kanta-txori denak eta pagagaioak hor ibiltzen dira mokoz-moko, jendeak uste duenez amodiotan, elkarri moko barruan musuka (*uso musua* ohi bait deritza halakoari). Rito askoz prosaikoagoa da hori, halere: harra emeari jana pasatzen ari bait zaio, ahoz aho, tripatik tripara. Ahotik hora jaten emate hori buruaren pribilejioa da, jeneralean harrarena. Baina harra gaisotzen edo antzutzen edo eritzen edo makaltzen bada, eta emeak hierarkiaren burua irabazten badu, emeak ematen dio harrari (bigarrenari) hitzez-hitzez ahora, edo mokora, jaten. Har-emeak berdintsuak bada, eta ezagun berriak, biek emaile izan nahi izaten

dute: hots, biek nahi lukete lehenengoak izan. Orduan burrukak erabakitzen du ordenu hierarkikoa.

Alabaina, orain pentsa liteke, gure konportaeran, kuerda duten marionetak bezala, barneak eraginda bakar-bakarrik gabiltzenik. Gizona, batez ere, beste ezein abere baino gehiago, norbera konportatzen da. Ezin esan liteke bere barneak «konportatzen duenik». Baina horretaz aparte, konportaeraren eragipenak ez dira molde batetakoak bakarrik: barnea bakarrik, ala erreflesoak bakarrik. Monismo guztiak dira gaiztoak, kausa monismoak ez hoberenak, eta ezin halako batetik bestera pasako gara. D. S. Lehrmanen algarusoan edo Indietako usapalen (*Streptopelia risoria*) ikerpen fisiologikoez polito azaldu digute kausalidade bion gurutzelarka eta kateadura. Hegaztiok, usakide (*columbidae*) gehienek moduan, ondo ugaltzen dira gatibu egon arren. Kaiolan har-eme pare bat jartzen bada, lasto eta beste beharrezkoak eskumenean, pareak arras normal burutuko dizu lokatzea eta kortejatzeta, habiaren egitea, arrautzen errutea eta kumeen zaintzea eta hazitzea. Prozesu osoa. Lehenengo elkarren ezagupena egin behar dute. Harra denborarik gehiena emearen aurrean ibiltzen da, erreberentziak eginez, urruka eta kurruka, emearen atentzio bila. Gero biak aritzen dira habia egiten. Ez dago txitagintzarik, habia egiten biek parte hartzen ez badute. Lokaldian bien papoak puzten eta aizatzen dira (beste abere batzuen titiak bezala): estagorria edo gangarra hazten bait da. Kuma gorriak elikatzeke «usa-esnearen» esplikazioa hori da. Hipofisiak isurtzen duen hormona jario batek (prolaktinak) sortzen du papoaren handitzea.

Prolaktinak ez du papoa bakarrik aldatzen. Baita konportaera ere. Usoa unaxka baldin bada, edo usakumeei begiratzen ez badie, hormona indizio bat erantsi eta txitak elikatzen hasiko da.

Baina proba hau egin liteke: uso har bat irendu (zikiratu) eta eme batekin batera jar. Gorabeherotan

behintzat egia konprobatua da: naturak eman ez duena (edo hari kendu zaiona), Salamancak bezain guti ematen duela beste ezerk.

Kapoi honek, ba, ez urrumada eta ez gur egingo du. Eta hona bitxikeria hemen: ikus-eta entzumenaren estimulo hori gabe, emeak ez du batere arrautzarik errungo. Beraz, hemen garbi dago berezko prozesu fisiologiko bat abiarazteko inguramenaren eragipenak duen inportantzia. Honelakoak gehiago ere hauteman zituen Lehrman-ek. Arrautzak *ikusitakoan* handitzen dira papoak. Baina sapagorriak agertutakoan hainbat aguroago hazten dira papoak. Emea erretiratzen baduzu, berriz, harraren papoa ez da bi heren besterik handituko.

Beste froga bat: oraingoan lehen esperentzien eta hormonon arteko eragipenetan elkarrekiko zerikusia frogatzeko. Lehenago kumeak hazi dituzten usoei progesteron xerta, eta bakoitzari habia bat bi arrautzaz eskain. Uso hauetako erdia hogeit eta bi minutu barru habian zegoen, arrautzak berotzen. Beste erdia era gehenez hiru ordu barru bai. Froga bera egin lehenago kumerik hazi ez duten usoei: erdia edo ez zen batere habian sartzen. Eta beste erdiak hogeitalau ordu inguru behar zuen habian kokatzeko. Honen antzeko beste froga bat prolaktinaz egin zuen Lehrman-ek: esperentzia zuten usoei sei egunetako usakume sapa-lumadunak elikatzen zituzten. Esperentzia gabekoek, usakumak goseak ikusi, eta ez zuten ezer egiten. Haatik ere, sapagorriak edo usakuma jaioberriak denek elikatzen zituzten. Esperentzia gabekoek ere bai (estimulo biziagoa bait dira).

Nahi ahala multiplika litezke esperimenduak eta adibideak. Baina ez da premiazkoa. Beti ere garbi ikusten da, aberea inondik ere ez dela *le résultat fatal et mécanique de l'action sur cette être des agents extérieurs*, naizpait uste zen bezala. Eta gero eta hobeto ikusten da, orobat, gizona ere abere bat dela, gizonarentzat desohorerik batere gabe.

Gizonaren konportaera esplikatzerakoan Aro Modernuak ia ekintza oro (kultura, politika eta beste zernahi) ihardunaldi erreflektibu legez bakarrik kontsideratu izan du. *Kondizio sozialen suma* ziruditen gizonak nahiz gertaera historikoek. Ez da semejatzekoa, zenbait *kulturalismo* eta *soziologismo* alfer kuzinatu denez gero, sexu bizitzako gorabeherei, konportaera sozialei, antolamendu politikoei, eta zirenak zirelako, gizarte eragipenen gurutzelarkaduran «egiazko kausak» bilatzeko. Baina aintzakotzat har dadila nahi luke beste honek ere: geure barrendiko lokomozioak. Ideologia eta mito politikak muntatu ditugu gizonaren kreatzailetasunaz eta bere buruaren egilea omen den gizonaz. Eta ez dago hori dena arras, ez eta deusik ere ezeztatu beharrik. Baina hori dena esplikatzerakoan ez da ahaztu behar, gizona, xinpantzearen eta gorilaren lehengusu hau, orangutanoaren bestengusua, azken finean abere dela eta bere barneak eta ez bestek darabilela.

Gizona bi mila milioi eboluzio urteren fruitua da. Abere dela esanik ez da esan nahi izan edozein animalia bezalakoxea denik. Zakurra abere dela esanez ere ez da esan nahi edozein animalia bezalakoxea denik, mamorroak edo urtar sinpleak bezalakoak, esaterako. Aresti poetak zioen moduan:

Animalia ederra, gizon akabatua
Lurreko jabe laztana, zeruak maitatua,
Jaungoiko poteretsuak eskuz bedeinkatua.

Historia esplikatu nahi bada, ikuspide hau gogoan ukan beharko da. Eta orain arte baino gehiago. Orain arte jaramonik egiten ez bazitzaion, barkagarri bait zen. Baina honez gero ez.

Liburuska honetan egin diren gogoetek, egungo zientzien aldetik Aro Modernuarekiko nabari den haus-tura destakatu dute. Edozeinek daki, halere, eta orrion idazlea ere kasualidadeari eskerrak dakielakoan dago,

molde honetako burutazio guztien balioa muga askok mugatua dela beti.

Aro Modernu eta bezalakoak, kontzetu handiskoak dira. Segun haren funtsa nola bururatu, eta hari zorrozkiago begiraturuz gero, agian haustura derizkiogun hori batez ere jarraikitasun dela aitortu beharko litzateke. Uste dut meditazio honek ez duela hori ukatzen. *Aro Modernua* Erdi Aroaren kontrastez hasi zela gogaritzen bada, Lehen Ilustrazioaren ezagugarri nabarmenena honek dirudi: Jaungoikoarekiko, errebelazioarekiko, Elizarekiko eta tradizioarekiko loturaz kateaturik zegoen *arrazoimena lotura horietatik askatzea*. Descartes-engandik Kant-enganaino, Europako izpirituen ernaienak loturarik gabeko «arrazoimen hutsaren» alde enplegatzen dira. Gizonon burutazio eta asmoetako arrazoimen hau *ratio mathematica*-ren antzekoa da. Arrazoimenak moraltasun absolutu bat, gizartearen antolaera absolutu zuzen bat, egia absolutua, etc. eskura zitzakeela uste zen.

Kontzientzia zuzena eta egiaren neurrikoa edukitzeko ez du ezer balio errebelazioan, Elizaren autoridadean edo burupean, tradizioan, ala aita konfesorearen aholkuetan, oin hartzeak. Arrazoimenak erakutsi behar du zer den zuzen eta zer oker. Kontzientziak arrazoimenari begiratu eta segitu behar dio beti, ez beste ezeri. Arrazonalki ezagutzen duena bakarrik onartu behar du. Autoridadeak (Aristotele, Eliza) ez du ezer frogatzen, tradizioak bezain guti noski. Benetako gizonaren obligazio nagusia beti ere arrazoimenaz baliatzea da. Arrazoimenaren punterengo zeregina, gizarte zibila (burgesa) taxutzea. Eskergarria guzti honetan Kant-en argitasuna eta kontsekuentetasuna. Optimismoaren kritiko zorrotz honek inork baino zindoa go finkatu bait du arrazoimenaren absolutismoa (absolutismo politiko eta eliztiarren aurka, inondik ere). Beste inorengandiko legerik eta ez promesarik onarlezake gizonak. Ez inolako «heteronomiarik», bere baitako legea bakarrik baizik, *autonomia* alegia. Bere gri-

nen eta ohituren eskupean dabilena, halere, ez da libre, ez da gizon, Bere baitako arrazoimenaren eskupean dagoena, arrazoimenaren morroina, bere buruaren jabe da eta nagusi eta jaun. Iraultza Frantsesak arrazoimena, jainkosa berri eta bakar bezala, aldareratu zuenean, filosofia honen muin-muina adierazten zuen.

Labur, eta kitto: arrazoimena dela nagusi eta arrazoimena bera lokabea dela.

Torrealday ederki esan digu:

Argien mendea Arrazoimenaren mendea da.

Arrazoimenari, eta berari bakarrik, eskatuko zaio zibilizazio berriaren zimentarri definitibuak ezartzea (17).

Torrealday berak aipatu du Gilbert-en pasarte sonatua:

Arrazoimena jarraitzean, geure manupean soilik gara, eta horrela jainko bilakatzen (18).

Horra, ba, orduko *Weltanschauung* edo mentalidade eta sentiera.

Orain, denok dakigu ilustrazioa erreka eta erreka-sto, eguraldi eta paraje diferente askotako lurraldea dela. Aspaldi ohartua da ilustrazioa ohi deritzan hori ez dela batere monolitikoa eta uniforme. Haren barruan hanitz diferentzia eta zenbait haustura eta jarraitutasun nabari dela, esate baterako. Eta *Aufklärung* alemana, adibidez (beti adibide hauxe aipatzen bait da) ilustrazio frantsesaren jarraipenean agiri da, ez pairik gabe. Baina batetik bestera sumatzen diren diferentziek ez dute dudarik uzten bien arteko hausturaren inportantziaz. Frantsesok, kontzientzia egokia arrazoizko soila dela eritzi ondoren, arrazoimenaren erabateko soberanian sinesten zuten: *prenons la raison pour arbitre* (J. Baptiste Rousseau). Kant-ek oraindik fede hori gozatzen du, bere delibero guztiaz baite-

(17) Alp. lib., 110.

(18) Id., 111.

tsiko du, beti arrazoimenari bakarrik entzun behar zaiola, eta ez beste ezeri. «Aingeru puruak» belazatsu dirudi arrazoimenak. Ez diote inongo loturarik atzematen. Ordea, kontzientziak historian esistitzen duela, argitu zuen, eta kontzientzia huts lokabe hori ilusio bat dela agertu zuen: kontzientziaren lotura historikoak. Geroxeago, Marxek eta zenbait bestek argituta, kontzientzia beti gizarte molde konkretu batetan sortzen dela ikusi zen: kontzientziaren lotura sozialak. Gero Freud zettorren. Kontzientzia hizkuntzazko egitamu batzuei atxekirik ere badagoela, erakutsi da geroago. Eta honez gero, kontzientzia historiko eta sozial eta hizkuntza taxuzko bakarrik ere ez dela esan genezake. Esan behar genuke. Gure mendea kontzientziaren lotura biologikoak argitzen ari bait zaigu.

Teoriari bagagozkio, lokarririk gabeko kontzientzia zeharo askean sinestea, beraz, askatasun osoan eta arrazoimenaren ahalmen neurrigabekoetan, amets labor bat izan da European. Kantek koroatu eta akabatu zuela, esan liteke. Amets horrek utopian oraindik ere bixi-bixirik segitzen du. Baina Hegel, Marx eta Freud-enganetik gure egunotako «*etsipeneraino*», zientziaren eta kritikaren martxak kontzientziaren lotura gero eta gehiago salatzen digu.

Ilustraziotik egunotara, Galilei eta Rousseau-gandik gureganaino, Hegel, Marx eta Freud zehar *behetik gorra doan linea bat* balego bezala hitzegiten da askotan. Zenbait ikusmiratatik halaxe da, noski. Bestalde, ordea, honoko hau ere ikusi beharra dago: neurrigabeko optimismo ilustratutik *gainbehera doan linean bat*, gero eta beherago, egungo zientifiko askoren fatalismo-raino. Hegel optimismo arrazionalistaren aurkako *erreaioa da*. (Eta, beraz, batzuek Hegel erreazionario deklaratu dute). Iraultza Frantsesarekin hein berean garaitu eta porrot egin zuen optimismoaren, arrazionalismoaren aurkako *erreaio bat*. Baina Hegelen ondoren baita Marx ere. Hauetako bakoitzaren ondoren sinesmen piska bat gutiago gelditzen da arrazoi-

menaren argietan eta ahalmenetan gizarte arras berri perfektu bat sortzeko. Arrazoimena bera loturik agiri bait da. Ez dagoela sinplifikatzerik esango dit irakurleak. Eta hain zuzen sinplifikatzerik ez dagoelakoxe, linea hori ere ikusi egin behar da. Optimismoaren eta arrazoimen fedearen gainbeherada.

Ongi begiztatuz gero laster ikusiko da, ilustrazioa bera hasi zela ilustrazioa porrokatzen. Gizarte anto-laera guztiz berriak eta zuzenak ekarri behar zituen arrazoimenaren printzipioari lurra jaten, uhinek itsas gainaldeko jauregiari bezala. Hegelek optimismoa nolabait salba zezakeen oraindik, — baina errecurso bila Izpiritu Absolutuaren metafisikara hegaldatur. Marxek ere salbatzen zuen optimismoa, — baina gizarte komunistaren utopiaren bidez. Hegelek eta Marxek arrazoimenaren (kontzientzia askatzailearen) printzipiorari egiten zioten eraso, haien garaian ez zen halakotzat hartu eta sentitu (haien filosofietako beste alderdi nabarmenago batzuen poderioan). Izan ere, kontzientziaren loturak gizartearen baitan aurkitzen ziren oraindik, eta gizarteak supera zitzakeela zirudien. Lotura haiek aurkitzeak berak, aurkituz gainhartzen zitzaienaren inpresioa sortzen zuen apika. Horregatik bai Hegelen eta bai Marxen ondoren «mundu aldatzaileen» izugarritzko modak eta arrakasta olatuak sumatzen ditugu. Gizonaren emantzipazio bidean urrats handiak bezala hartu ziren. Baina kontzientziaren kateen ezagupen bidean ere urrats handiak zirela hori ez zen ikusi. Nola askatu behar du kontzientziak gizona, bera preso egonik? Galdera hau Freudekin jartzen zen, larru gorri-gorrian.

Freud-en ikerpenetan kontzientziaren loturak lehen-lehenengo planoan eta kupida gabeki kate bezalaxe azalduta agiri dira. Horregatik «ezkertiarrei» eta «iraultzazaleei» denbora eta neke asko kostatu zaie Freud-ekin adiskidetzea. Eta kontzientziaren loturak gizartetik kanporainoko kateak direla esaten bada (hizkuntza egitamuzko nahiz biologiazko lokarri horiek,

alegia): non gelditzen da mundua aldatzeko ametsa? Nola askatu behar du itsasontziak itsasoa?

Esango du norbaitek honez gero: zer, Euskal Herriko optimismo disdiratsu eta sutsuok berrehun urte atzeraturik biztu ote dira?

Hori geure esku dagoela ematen du. Gure obligazioa dirudi XVIII. mendearen alferrikako berbizkundetik ez frogatzea. Ilustrazioak, gizonaren «naturaltasunean» interesaturik, eta bere arrazionalismo guztizkoarekin, natura *humanizatu* zuen, hein batetan behintzat (Rousseau). Gero, arrazoimen sasinatural haren arbuioz, baina funtsean arrazionalismo berdintsuz, historia absolutizatu zen, gizonaren askatasuna historia-ren jainkoaren bati gomendatuz. Har dezagun natura den bezala, eta historia ere benetan agiri duen «naturaltasunez». Onar dezagun, gizona abere bat dela, abere hutsa. Historia guztia abere honen historia dela, bestelako promesarik gabe.

Jakina: lehen arrazoimenaren edo eta historiaren helburu absoluturen baten esklabu bazen, ez dezagun gizona orain natura absolutuaren esklabua bihur. Gizonaren natura konstituzio irekia du.

4.2. Nortasunera bidean (edo, konstituzio irekia)

Denok dakigu, nortasunaren osapenerako inguru sozialak, tradizioak eta arrunki gizartean egiten ditugun esperentziek zein inportantzia duten. Baina okerra litzateke, esperentzia horiek kontzientzia edukiz gerora mugatzea, edo eta esperentzia horiek kontzientziaren (pentsaera, sentiera) formaziora erreduzitzea ere. Nortasunaren osapena espermatozoidea eta arrautza batu orduko hasten da: eta hauek eboluzioaren historiako osagarririk aski biltzen dute, nortasunaren formazioa moldatzeko. (Hein honetan *izaki pre-*

fabrikatuak gara). Ezin pentsa liteke, lehenengo «gorputza» osatzen dela, eta *gero* hasten dela nortasunaren osapena: bi desarroilo diferente, bata bestearen ondoren, bata bestearen gainean.

Eta, bestalde, ezin pentsa liteke, umekia sortu orduko, nortasuna funtsean *eginik*, *jarririk* dagoenik ere, bukatzea bakarrik falta zaiolarik. Beraz, arras *prefabrikatuak* garenik.

Gizakiaren kostituzioa jaiotzekoan *irekia* da, astiro-astiro burutuz doa, ama-sabeleko eta haurtzaroko bitza zehar.

Umeki edo fetoak amaren sabelean sortuz gero egiten duen desarroiloa ez da bere kontura eta lege determinatu batzuen arabera desarroilatzen den organismo batena, baizik «inguruarekin» elkarrekintza konplikatuen sare batetan gertatzen dena. Eginez doa, karenarekin ihardukimenetan lehenengo, amarekin batera gero, eta ingurunearekin azkenik. Eta harremak segun nolakoak izan, halakoxea da gizonaren desarroiloa: nortasunaren osapena. Ez desarroilo psikikoa bakarrik, organikoa ere bai. Ez dago biok gehiegi apartatzerik.

Irudipen faltso bat da, uste baldin bada, *segun hazia nolakoa izan, nahitaez halakoxe fruitua izango dela. Hazitik bihia*, egia da, baina ez egia osoa. Inguruneak ere *egiten* du fruitua: ez du nortasunaren, izpiritua-
ren desarroiloa moldatzen bakarrik, organismoaren beraren egiturari eragiten dio.

Organismoa «ama-haur batasunean» osatzen da (jaio aurretik eta gero). Eta osapen hortan haurrak historia, tradizioa, organismoan bertan jasotzen du. Zerebroan historia *haragi egiten da*: ez ordea, zerebro osatu batek historia xurgatzen duelako (egindako botila batetara ardoa sartzen den moduan), eta bai historia zerebroaren ore bihurtzen delako. Kultura organismo bihurtzen da. Beraz, gizona abere arrazoimenduna dela esaten bada, ez da ulertu behar gizona abere eta arrazoimendun dela. Gizonaren aberetasunak

arrazoizko edo kultural izateko ezaugarria duela, baizik. Biologoei gutiegi iruditzen zaie, kultura «gainegitura» bezala kontsideratzea. Gizonaren natura bera da natura kulturala. Errekairik gabeko surik ez dagoen bezalaxe, kulturarik gabeko gizonik ere ez dago: ez eta biologikoki ere. Aitortu beharra dago gizonarekiko teoria klasikoek ez dutela biologiaren honelako laguntasunik ezagutu, izpirituaren eta gorputzaren batasunaren problema askatzeko. Ikuspide haiek zaharkiturik gelditzen direla ere, aitortu behar.

Problemok xehekiago argitzea egiazki ezagutzen dituenari utziko diot. Ni ezin neure kabuz mintza ninteke, jakitunei irakurtzen diedana «sinestuz» baizik.

Rof Carballo-k honela dio, eta Piaget-en estudioak zuzen jasotzen dituelakoan nago:

El *sistema genético* (una totalidad organizada y autorreguladora) está estrechamente ligado al *sistema epigenético*, es decir, al sistema que entra en funciones en el *desarrollo* del organismo a partir del óvulo fecundado, por un conjunto de circuitos cibernéticos de retroalimentación. Ya en medio del normal desarrollo ambos sistemas se influyen mutuamente. Tanto Waddington, como antes Dobzhansky y Piaget conciben al genoma como un sistema activo de «respuestas» y de reorganizaciones que se enfrentan al medio, sin ser modificadas por él pero utilizando sus informaciones en vez de ignorarlas o de imponerle su programa (19).

Eta berehalaxe:

De igual forma que en el genoma está prescrito que el hombre ha de tener una nariz, dos ojos y un hígado, está también marcado *como carácter fundamental del hombre* que nazca con un cerebro de enorme inma-

durez que, en alguno de sus sectores, principalmente en el «cerebro interno», tiene todavía por desarrollar un 70 ó 80 por ciento de su acervo celular (20).

Haurra sekula erabiliko duen baino mila ahaltasun eta dohain gehiagorekin jaiotzen da. Segun zein situaziotan aurkitu, honela edo hala desarroilatuko da. Ezaguna da, giro aseptiko batetan hazten den haurrak, amaren altzoa utzi orduko, izan ahalako gaitz guztiak harrapatzen dituela: ez du «defentsarik». Ijito kume batek «osasun hobea» du, hots, inmunidade gehiago, klonoinmunitario askoz gehiago desarroilatu bait du, halabeharrik. Honek haurraren desarrollo psiko-organiko guztian berdintsu balio du.

Vemos ahora que un recién nacido se nos presenta como un sistema genético que está en trance de «completarse», de «consolidar» el *desarrollo fraccionado* de su sistema nervioso, en el cual se han *anticipado* ciertos mecanismos y *retrasado* otros, en *tanto absorbe ambiente*. Su avidez no es sólo de comida o de amparo sino de «ambiente», en términos neurofisiológicos de *estímulos*. Y esto no sólo para madurar de manera indiscriminada sino para estructurar sus regulaciones corticales más finas y sutiles en forma que la adaptación al complejo medio que le espera sea lo más eficaz posible. En este momento ocurre algo de enorme importancia para comprender el hecho de la urdimbre. El recién nacido *no recibe este ambiente pasivamente*. De igual forma que el ser vivo más elemental *selecciona ambiente*, forma el ambiente, su perimundo, el niño, al nacer evoca, suscita en la madre sus más arcaicas reacciones infantiles. Y no sólo en ella. Moviliza también el ambiente familiar, irrumpe en él, lo re-estructura. Se trata de una relación transaccional, en la cual no hay causa ni efecto sino las dos cosas

a la vez, un círculo *figural* como decía Víctor von Weizsaecker. Hay, por tanto, como una *tensión genética* en el recién nacido, que le lleva a *completarse incorporando ambiente y suscitando ambiente* (21).

Nortasuna, ba, *burrukan* osatzen da, — selekzio burrukan: hau zuzenki ulertzen bada, ez basakeria huts bezala. Ez du «kanpoak» egiten, baina ez da kanpoa gabe burutzen ere.

J. Monod baitan ere (22), berdintsu irakurtzen da:

Otra dificultad para la teoría selectiva proviene de haber sido demasiado a menudo comprendida o presentada como dependiente de las solas condiciones del *medio exterior* como agentes de la selección. Esta es una concepción completamente errónea.

Alderantziz, kanpoko eta barneko «determinazioak» batera hartu behar dira:

Digamos que las «condiciones iniciales» de selección que encuentra una mutación nueva, comprenden a la vez, y de forma insoluble, el medio exterior de las estructuras y *performances* del aparato teleonómico. — Es evidente que el papel de las *performances* teleonómicas en la orientación de la selección es cada vez mayor a medida que se eleva el nivel de organización, es decir de *autonomía* del organismo respecto al medio.

Zeren eta organismoak onar ditzakeen mutazio bakarrak, eta berdin kanpotiko eragipen bakarrak, lehen-diko egiturari egokitzen zaizkionak bait dira:

Las únicas mutaciones aceptables son pues las que, por lo menos, no reducen la coherencia del aparato teleonómico, sino más bien lo confirman en la orienta-

(21) Id., 456.

(22) J. MONOD, *El Azar y la Necesidad*, 1971, 139 eta hur. or.

ción ya adoptada o, sin duda más raramente, lo enriquecen de nuevas posibilidades.

Behinolako eskolastiko haiek zioten moduan: zerbait hautematen edo hartzen delarik, nork bere era hautematen eta hartzen du. Eta hau hobeki ulertzen da, gizona funtsean informazio-sistima bat dela pentsatzen bada.

Haurrak bereganatzen eta haragi bihurtzen duen «giroa» —ingurunean— amak ematen edo bitartekatzen du. Amari lotzen zaion umea munduari historia-ri, lotzen zaio. Eta lotura horrekin batera umearen desarrolloan gertatzen dena, zera da:

- a) la *activación de genes de desarrollo* por el contacto con la madre.
- b) el *desarrollo programatorio* de sistemas cerebrales que están inmaduros o han quedado *atrasados* en su maduración.
- c) la incorporación por estos *mecanismos biológicos* al cerebro del niño, a sus niveles superiores de regulación, de algo impalpable, *inmaterial*, como es la historia y la tradición. Lo que va a confirmarse más adelante con el aprendizaje de *un* lenguaje determinado, con una cadencia y una musicalidad determinadas, de *unas pautas culturales* muy precisas y perfiladas, etc. etc. (23).

Gure kezka larri bat beti ere hizkuntza da. Hizkuntzari dagokionerako, ba, Geschwind neurologoak erakutsi duenez, neokortex zerebralean bi esparru diferente handi dago. Lehenengoa 4-5 urte aldera mielinizatzen da, eta «barneko zerebroarekin» lotu-loturik dago. Bigarrena 7-9 urte aldera mielinizatzen da, lotura eta korapiladura intrakortikalak ditu, «barneko zerebroarekin» ia loturarik batere gabe. Hizkuntzaren

indar emozionalak lehenengo esparruan ditu sustraiak: barnearekin, erraiekin, erreazio bejetatibu eta endokrinoekin josirik dago. Hizkuntza poetiko, sinboliko, emotibuaren esparrua da hau. Hemen sustraitzen da *hizkuntzaren tirania* delakoa ere. Bigarren esparruan botatzen dituzte, aldiz, hizkuntzaren ikus-entzuneko seinaleek beren sustraiak: kontzetu zehatzak, berezkuntzak, definizioak egiten dituen hizkuntzaren oinarri edo tresna organikoa duzu hau. Hizkuntza logikoaren oinarria. Hizkuntzaren bi mailei (badakigu nahiko artifiziala dela berezkuntza hau), maila emotibuari eta intelektuari alegia, bi zerebro diferente dagozkie (24).

Eta gauza berbera esan behar da hemen ere:

Es imposible no suponer que entre la evolución privilegiada del sistema nervioso central del Hombre y la de la *performance* única que lo caracteriza, no hubiese habido un emparejamiento muy estrecho, que hizo del lenguaje no sólo el producto, sino una de las condiciones iniciales de esta evolución (25).

(24) Ik. ROF CARBALLO, *Biología y Psicoanálisis*, 1972, 487-8. Ik., halaber, XII.kapitulua, lehen partea. Esandakoaren arabera, hizkuntzaren parte bat sinboluena litzateke, bestea seinaleena, «Fundamental a estas ideas de Pribram es su distinción entre *signos* y *símbolos*. Los *signos* son construcciones, desprovistas de contexto, que se derivan de la acción de la corteza de asociación sobre los sistemas de entrada de señales. Se refieren siempre a cosas del mundo exterior. Una rosa es una rosa, esto es, un «objeto» preciso, independientemente de los contenidos afectivos con que la investimos. — Un *símbolo*, en cambio, es algo que tiene diferente *significado*, según el contexto en que se utilice. La rosa puede ser un símbolo de belleza, amor, o símbolo cósmico como en los poemas de Rilke. Si los *signos* se refieren al mundo-de-fuera, en cambio los *símbolos* tienen siempre que ver con el mundo-de-dentro. Los símbolos están vinculados a las experiencias arcaicas del sujeto y a sus vivencias interpersonales. — Las zonas del cerebro que intervienen en la elaboración y empleo de los signos son las correspondientes a los lóbulos parietales y posterior del cerebro. En cambio la zona encargada de la manipulación, formación y empleo de los símbolos es la *zona anterior* del cerebro, fundamentalmente la que vincula la corteza frontal con el cerebro límbico, esto es, con las estructuras ante todo del hipocampo y de la amígdala» (380-1).

(25) J. MONOD, *ap. lib.*, 143-144.

Areago, oraindik (148-149) Autore berak:

La idea de que la adquisición primaria del lenguaje está vinculada a un proceso de desarrollo epigenético se ve confirmada por los datos anatómicos. En efecto, se sabe que la maduración del cerebro prosigue después del nacimiento para acabar en la pubertad. Este desarrollo parece consistir esencialmente en un enriquecimiento considerable de las intercomunicaciones de las neuronas corticales. Este proceso, muy rápido durante los dos primeros años, se retrasa después. No continúa (visiblemente) más allá de la pubertad y cubre, por consiguiente, el «período crítico» durante el que la adquisición primaria es posible.

(...) Es preciso admitir que entre las funciones cognitivas y el lenguaje simbólico que ellas reclaman y por las que se explicitan, hay en el hombre moderno una estrecha simbiosis, que no puede ser producto más que de una larga evolución común.

Se sabe que, según Chomsky y su escuela, bajo la extrema diversidad de las lenguas humanas, el análisis lingüístico en profundidad revela una «forma» común a todas ellas. Esta forma debe pues, según Chomsky, ser considerada *innata* y característica de la especie. Esta concepción ha escandalizado a algunos filósofos o antropólogos que ven en ella un retorno a la metafísica cartesiana. A condición de aceptar el contenido biológico implícito, esta condición no me choca en absoluto. Ella me parece, al contrario, natural, a partir del momento en que se admite que la evolución de las estructuras corticales del hombre no ha podido dejar de ser influenciada, en una parte importante, por una capacidad lingüística adquirida de modo muy prematuro en el estado más rudimentario. Lo que es lo mismo que admitir que el lenguaje articulado, desde su aparición en el linaje humano, no ha permitido solamente la evolución de la cultura, sino ha contribuido de modo decisivo a la evolución *física* del hombre.

Azken finean,

el cerebro no es, como se pensaba, el órgano de la comunicación interhumana, sino que, al revés, *es la comunicación la que hace al cerebro* (26).

Orain hizkuntzari *errepresibu* baderitzat (bistan dago hizkuntzaz ari garela, ez hikuntza hontaz edo hartaz), espero dut zuzen ulertuko dela esaera hori. Errepresio hitzak ikara sortzen du gaur, edo eta odola nahasten du. Baina ez dago zergatik: kultura guztia da, esanahi honetan, errepresio; espezializazioak errepresioa suposatzen du, eta lanak ere bai. Ez dago errepresiorik gabeko gizatasunik. Eta hori orain eta beti. Gizonak errepresioz galdu zuen tximuaren oin-eskue-tako habilezi ugaritasuna, oinak eta eskuak hauen gaurko zereginetarako espezializatzeko. Eta, hein honetan eboluzioa errepresio bidez, hots, espezializazioz, mogitzen eta hedatzen da. Posibilidade diferenteen artean bide bat hautatzen duenak errepresio bat egingen du:

En realidad, bien mirado, la «represión primigenia» comienza ya con la forzosidad de tener que *hacer nuestra personalidad dentro del marco de un lenguaje*. Esto limita, en el momento de «constituirse», mi personalidad, en los primeros tiempos de la vida, mis posibilidades genéticas. Ciertos genes de desarrollo no son activados. Me veo, al aprender el lenguaje materno, forzado al *primer consenso social*. Tengo que utilizar, para expresarme, un consenso colectivo; a su través he de recibir tradición, cultura, modos de pensamiento, etc. Con *otro lenguaje* se hubieran cerrado en mí ciertas capacidades de comprensión y, en cambio, otras *se hubiesen abierto*. Así, si por ejemplo actualmente asistimos en el Japón a un desarro-

llo de la Medicina psicosomática muy superior al que tiene lugar en Europa, pudiera ser que esta mejor comprensión de la unidad psico-física del enfermo sea, en último fondo, debida a disponer de otro lenguaje (27).

Nolanahi ere, ikuspide honetan, hizkuntzak ez dirudi «gainegitura» antzeko ezer (ez eta kulturak ere). Hizkuntza, gure organismoaren eboluzioan, *haragi bihurtu* da:

Sin ésta última [hots: *sexualidad diatrófica* edo amaren altzoa gabe], nuestro cerebro, nuestros sistemas enzimáticos e inmunitarios, una parte fundamentalísima de nuestras conexiones nerviosas, de nuestras regulaciones endocrinas, no hubiesen podido acabar de madurar, ser *terminadas* en la medida en que, mediante el vehículo de una tutela o de un amparo, iban *incorporando* a sus estructuras, pautas sociales, modos de conducta, experiencias arraigadas en nuestros progenitores, esto es, todo lo que denominamos *tradición*. En una palabra, por decirlo así, en virtud de esa sexualidad diatrófica o tutelar, la *historia* del grupo familiar y social se *hizo carne* dentro de nosotros. Se produjo un fenómeno al que los estudiosos de la teoría de la evolución, los evolucionistas modernos, como Waddington o Dobzansky, consagran la mayor atención: *el fenómeno de la herencia históricamente condicionada* (28).

«Giroan» jarri behar da hizkuntza ere. Eta jadanik badakigu, giro zirikalari eta pizgarri batetan zerebroaren desarrolloa hobea dela. Organismoa inguruari egokituz bizitzen da. Eta inguruaren eta hauraren artean seinale truke bat, informazio truke bat erabakitzen da. Nerbio sistimak berez inguramenaren «errepresenta-

(27) Id., 143.

(28) Id., 480.

zio» bat du, sorkuraz, eta informazio truke honen bidez, segun hau nolakoa izan, halakoxe egokiera finkatuko da inguruaren eta haurraren artean. Orain finkatzen da hemendik aurrera umeak errealidadea nola hautemango duen.

Fijémonos bien, no es que el medio se *internalice* (Engel) o que las primeras experiencias promuevan cambios neuronales que *adaptan* al ser vivo a su medio. No. La selección natural ha ido, a lo largo de los milenios, *eliminando* aquellas combinaciones de genes que *no reproducen*, en cierta manera, en el sistema nervioso del animal, *el medio circundante*. Por tanto, *si subsisten las especies actuales* es porque, genéticamente, en ellas se han desarrollado pautas de centros nerviosos que son reflejo, más o menos en bosquejo o boceto, del mundo en que han de vivir.

La información que después del nacimiento fluye en ese *homeostato*, en ese dispositivo cibernético complejo que es el sistema nervioso central, sirve para aumentar la correspondencia entre el organismo y el medio ambiente que, *ya genéticamente* estaba dentro de él *representada* (29).

Horregatik, ba:

La reproducción es una transmisión de información, es decir de *instrucciones*, a través del sistema genético.

Beren egitamuan inguruarentzako egokierarik ez zuten organismoak suntsitu egin dira. Horrela, Kretazeo beranteko iraultza geologikoaren garaian, mendiak sortu zirelarik, herrestakariak ia zeharo galtzen dira, eta ugaztunen goraita hasten da. Espezializazioak, une batetan aurrerapena zirudienak, inguramena aldatzuz gero espezie baten heriotza ekar lezakeena gauza garbia da. Gauza jakina da, orobat, erleak, olagarroak,

etabar, «adimen» eta zentzu diferenteak desarroilatu dituztela, eskema diferenteak, errealidadea atzemateko. Horrela, naturan abereok ez ikusten, ez aditzen eta ez oharrematen duten gauza hainitz dago. Eta ikusten dutena ere ezberdin «ikusten» dute, hots, ezberdin organizatzen eta entenitzen dute. Eta berdin gizonarekin. Dudarik gabe, gizona izeberg edo izotzmendi bat bezalatsu da: «naturaren gainetik» agiri du punta, baina ia leporaino naturaren eta bere prehistoria animalaren itsasoko uretan sartuta dago.

Gizona zerbaiten ezagupide egiterakoan pasibu ez baino ekintzale dela erakusteko, esperimendu asko dago. Beraz, ez naiz hortan geldituko: gizona bere zentzuen oharpenen eta emaitzen, hautemaitzen, konstruktorea da, ez hartzaile pasibua.

Izan ere:

A lo largo de los milenios el sistema genético ha «programado» al ser vivo, seleccionando sólo aquellos sistemas nerviosos que reproducen en su estructura líneas generales de la estructura del mundo exterior... Si el sistema nervioso no fuese de «condición ambiental» no podría adaptarse al ambiente. Pero en los primeros días y semanas de la vida, esta reproducción del ambiente dentro del sistema nervioso se completa y afina con rapidez. Todavía no es *aprendizaje*, sino *programación*, esto es, cañamazo menos basto que el genético sobre el que se va a hacer el bordado perceptivo.

Piaget-ek erakutsi duen bezala, ingurunearen eta hauraren alde zurretiko eskemen egokitasunaz abiatzen da ezagupidea. Errealidadea antizipatu, asmatu eta bilatu egiten dute eskemok. Indar antizipatzaile hau landareetan ere nabari daiteke. Hau da:

Se percibe primordialmente aquello que se está, en tenso bosquejo, *preparado a percibir* (Rof Carballo).

Los trabajos de la escuela de Mason han puesto de manifiesto que la principal función del sistema endocrino es la *integración de todo el organismo en la función anticipatoria*. Es importante en Piaget el concepto de *asimilación cognitiva*. Hay en ella una integración a estructuras previas, que pueden persistir inalteradas o son más o menos cambiadas, pero sin ser por ello renovadas ni destruidas. Juega la asimilación cognitiva un papel fundamental en todo conocimiento y, por tanto, en todo aprendizaje. Al percibir un hombre o un animal un objeto, lo identifica como perteneciente a ciertas categorías, o lo percibe conforme a esquemas funcionales o especiales (...). Todo conocimiento supone necesariamente una *asimilación* y solo esta asimilación confiere *significado* a lo que es percibido (30).

Beraz, bistan da jatorrizkoaren eta irabazitako edo ikasitakoaren, kulturalaren artean mugarik aipatu ohi denean, muga faltso bat jartzen dela. Ez dagoen mugatzar bat asmatzen dela.

Los genes, de igual forma que determinan el color de los ojos, que estos sean dos, y que exista un quiasma óptico, etc. también encierran en su «código» la «inmadurez cerebral» como realidad de tanta o mayor transcendencia para el individuo como la de tener hígado. Y en su código está «previsto» el «complemento de esta inmadurez», a saber: la tutela diatrófica. Hemos visto que si esto sucede así es para poder llevar a su máximo perfeccionamiento la misión fundamental que tienen estos mismos genes en lo que al cerebro concierne. La cual no es otra (Young) que la de producir la adaptación al mundo exterior, haciendo que en el sistema nervioso del octópodo o del hombre exista una «representación del ambiente». Esta representación, en tanto es gobernada por los

genes, no pasa de un *bosquejo* que, mediante las relaciones transaccionales [haurraren eta inguruaren, batez ere amaren artean] que ocurren *gracias a la inmadurez cerebral*, se va *afinando* y perfeccionando cada vez más. La maduración del sistema nervioso sirve a una más adecuada «internalización del mundo exterior», a una mejor *representación en el cerebro del mundo en torno*. Hemos de ver que *ésta es la forma de funcionar el cerebro* (Pribram) *creando representaciones del mundo, tanto del mundo-de-fuera como del mundo-de-dentro...*

Ya vimos que la inmadurez del sistema nervioso precisa de estímulos, sin los cuales las neuronas se atrofian y empobrecen en sustancias químicas fundamentales, enzimas y DNA. No es que el recién nacido inválido necesite «apoyo» o «cariño», sino que ha de concebirse como *un emisor de mensajes* mediante los cuales trata de incorporar a las estructuras nerviosas aquellos últimos y refinados dispositivos que van a permitirle la máxima adaptación al mundo en torno. Esto se realiza por la incorporación no ya de la madre sino de un conexo mucho más complejo. Formado, por un lado, por pautas educativas, sociales, tradiciones colectivas, esto es *tiempo* o *historia* convertidos en «realidad cultural»; por el otro, representado por el juego de aproximación amorosa y de alejamiento que permite el desarrollo de la autonomía e independencia del sujeto como una «mismidad» (31).

Beraz, haseran besterik pentsarazten bada ere, gizona aberetzat hartzeak ez du esan nahi, gizona jaio orduko funtzionamendua oso-osorik predeterminatuta dakarren makineria denik. Ez eta biologiaren aldetik ere: odol zirkulazioak, sistema bejetatibuak, haurtzaroko esperentzietatik dependitzen dute. («Girorik» gabeko haurra hil egingo litzateke). Are gehiago errea-

(31) Id., 174-175.

4. registrar los acontecimientos que (teniendo en cuenta la gama de *performances* específicas) son significativos, agruparlos en clases, según sus analogías; asociar estas clases según las relaciones (de coincidencia o de sucesión) de los acontecimientos que las constituyen; enriquecer, refinar y diversificar los programas innatos incluyendo estas experiencias;
5. imaginar, es decir *representar* y *simular* acontecimientos exteriores, o programas de acción del mismo animal».

Eta Monod-ek berak honela adierazten du zerebroaren eginkizunen sozaltasuna, historikotasuna:

En un sentido muy importante, los grandes empiristas del siglo XVIII no se equivocaban sin embargo. Es perfectamente verdadero que todo, en los seres vivos, viene de la experiencia, comprendida la innatidad genética, sea ésta la del comportamiento estereotípico de las abejas o la de los cuadros innatos del conocimiento humano. Pero no de la experiencia actual, renovada por cada individuo, en cada generación: de la acumulada por la ascendencia entera de la especie en curso de la evolución. Sólo esta experiencia extraída al azar, sólo estas tentativas innumerables, corregidas por la selección, podían, como de otro órgano, hacer del sistema nervioso central un sistema adaptado a su función particular. Para el cerebro: dar del mundo sensible una presentación adecuada a las *performances* de la especie, suministrar el cuadro que permita clasificar eficazmente los datos en sí mismos inutilizables de la experiencia inmediata e incluso, en el hombre, simular subjetivamente la experiencia para anticipar los resultados y preparar la acción (34).

Beraz, zuzen ulertzen badut, ez zait iruditzen gizartearen aldakuntza bilatzen duena honelako teoriari muzin egin beharrean aurkitzen denik, eta derrigor Pavlov-Skinner joerari atxeki behar zaionik. Haurraren desarroiloa eta gizartearen eragipena odol zirkulazioaren antzera dabilta. Eta ez da ikusten ezer aldatu ezi-nezkorik. Aitzitik, eragipenak egiazki inportantzia kapitala duela dirudi.

Ez dago ukatu beharrik *La programación cuasi-genética de las primeras etapas de la vida* delakoa (35). Leninek esanak esan, onartu beharrekoa dirudi Piaget-enak ere:

...ningún conocimiento, ni siquiera el perceptivo, constituye una simple copia de la realidad, porque supone siempre un proceso de *asimilación* a estructuras anteriores.

Gehiago ere:

La confirmación por la neurofisiología de la realidad del «círculo figural», de von Weizsaecker nos lleva a aceptar que el individuo está, constantemente, *configurando, produciendo su mundo exterior*. La «realidad» es algo que *se construye* por el organismo, mediante la confluencia de la doble actividad motora-sensorial con los sentimientos del ser vivo (estado de alerta o de sueño, depresión, vigilancia, etc. (36).

Edo eta berdin:

Esto lleva a pensar que la percepción es, esencialmente, un fenómeno «motor». Esto es, *no el resultado pasivo de una información que entra en el cerebro sino el reflejo de las pautas de respuesta instigadas en este cerebro por esta información* (37).

(35) ROF CARBALLO, aip. lib., 377.

(36) Id., 359.

(37) Id., 354.

Adibide nabarmen bat igelaren «ikustea» da. Igelak euli bat (puntu beltz bat) ikus lezake hegan, baina ez geldi. Beraz, igelak harrapa lezake hegan dabilen euli bat, baina ez geldi dagoen bat. Honen azalpena elektrofisiologikoa da: puntu beltz geldia begisarean inprimatzen da, baina ez da zerebrora *transmitzen*, eramaten. Nerbio sistimak mogimenduan dagoenari bakarrik antzematen dio, eta geldi dagoena, begian «hartuta» ere, ez du ikusten.

Alabaina, gizonak ez dirudi inondik ere funtsean eginda, bukatuta, eginkizun guztiak egiteko pronto jaiotzen den makineriarik, berriro esateko eta azpimarkatzeko. Hori bai, «proiektoan» jaiotzen da, eta proiekto hori ezagutu eta errespetatu beharra daduka, gizona aldatu nahiz meioratu nahi duenak. Debekaturik gelditzen zaiguna, utopia merke eta gaiztoak dira; ez esperantzak.

Es de antemano absolutamente inverosímil que una realidad tan importante como la que se desvela en el encuentro psicoanalítico sólo tenga una expresión: la verbal. Forzosamente ha de traducirse en fenómenos físico-químicos, biológicos, bioquímicos. Habitualmente se recurre con excesiva facilidad —incluso por el propio Freud— a pensar en una «base constitucional» o hereditaria. Pero no se pregunta con claridad qué cosa es ésta de la *constitución*, confundiendo con ella *lo dado genéticamente de una vez para siempre*. Precisamente la experiencia a la que nos ha conducido el método psicoanalítico es totalmente opuesta a este criterio. No hay *constitución* con la que se nace sino que el ser vivo *se constituye*, es decir, *se va constituyendo* poco a poco, en la interacción con las personas tutelares y con el medio ambiente. Es muy probable que en esta *relación transaccional* se produzcan importantes fenómenos biológicos y no sólo en la esfera psíquica. Esta ha sido mi tesis fundamental en los últimos años. De igual manera que se es-

establece una constitución inmunitaria en las primeras semanas de la vida extrauterina y en las últimas de la intrauterina; de la misma forma que se establece una constitución endocrina por acciones reverberantes de las hormonas sexuales sobre los centros de la eminencia media en el hipotálamo; por el mismo mecanismo por el que, probablemente, se activan en el curso de las primeras experiencias de la vida *genes de desarrollo*, también se producen en estructuras básicas del cerebro, en el rinencéfalo, y en sus conexiones con la corteza cerebral, una *programación básica, circuitos cibernéticos* fundamentales sobre los que descansa la vida psíquica ulterior. Lo que en estas programaciones sea estructural o dinámico, funcional, irreversible o reversible, es cosa que ha de aclarar la investigación futura (38).

Munduaren eta gizonaren etorkizunaz kezkatzen denak ez daduka problema hauetaz biziki kezkatu beste erremediorik, jeneralean esku artean darabilzkgigun arloetatik franko urruti gelditzen bazaizkigu ere. Bestela hodeietan ibiliko gara, mundua handik gobernatu nahiez bezala. Haurra, kostitutibuki, izaki irekia bada (irekitasun absolutukoa ez bada ere), ez ote dago neurri handi batetan gure esku hura nola burutuko den ikustea? Bai, noski: ezkertiar orok uste du hori. Baina ekintza nahi duenak, esku batez utopiari eusten badio, besteaz behintzat beti irmo zientziari heldu behar dio. Gizonaz diharduenak lehen-lehenik gizonaren irudipen bat behar bait du. Ezagupen zuzen bat, hortakoz.

Vemos (...) dibujarse una *teoría central de la Medicina* que algún día será a ésta lo que, por ejemplo, es a la Física la teoría de la constitución de la materia. También aquí se trata de *constitución*. De cómo el hombre *se constituye* en la relación congénere, no só-

lo en el *plano de la conducta*, o en el psicológico, ni siquiera tan sólo en las estructuras más profundas y escondidas de la psique, en su subconsciente, sino también en los dispositivos de su *herencia de desarrollo* en tanto ésta se manifiesta en múltiples sistemas orgánicos, endocrino y, fundamentalmente, en el sistema nervioso (39).

Oraindik asko falta da, problema guztiok argitu direla esan ahal ukaiteko. Azterketa interdiziplinarioa, halere, gizonaren teoria bat osatzeko bidean abiatu da. Teoria orokor honek

ha de alcanzar, para ser una Teoría general de la Medicina los niveles genético, neurofisiológico, neuroendocrino, inmunológico, etc. que hemos venido apuntando. De esta suerte, nacida de la experiencia clínica, corroborada y rectificada por ella, puede servir de piedra angular de una «ciencia del hombre» (40).

De esta suerte dicha «teoría de la urdimbre constituyente» se nos presenta, para el futuro, como *ciencia fundamental* de una serie de disciplinas no sólo médicas sino también antropológicas, sociales, culturales, jurídicas, etc. Y no en último término elemento radical de toda «prospectiva» o ciencia del futuro del hombre (41).

Honez gero soziologia edo pedagogia klasikoei, oraindik bazterrak betetzen dituztenei, begiratzen badiegu, zera agiri zaigu:

1) Gizonaren portaera esplikatzeko «kausa-efekto» direktoen eskemarekin jarraitzen dutela. (Kausa honek ondorio hura dakar; honoko hau harako kausaren emaitza da).

(39) Id., 469.

(40) Id., 470.

(41) Id., Id.

Eskema honek, aldiz, ez du jadanik gehiegizko baliagarritasunik erakusten.

2) Bigarren lekuan ikusten duguna zera da: gizona baitan ez dagoela kanpoa eta barrua zientziok egin ohi izan duten bezain sinpleki eta garbi bereizterik eta ebakitzerik.

Zientziotan oraindik isil-isilik eta izkutuan zenbat presupostu (edo prejudizio!) humanista dagoen azterkatzera ez dadukagu sartzerik. Baina agirian dago, azterketon metodoa funtsean orientatzen dutenak ia beti haietxek direla. Zientziok ez dute abiarazi zituzten prejudizioak («intuizioak», esaten da!) gonfirmatu besterik egin. Marka da hori, gero; pentsa, bestela, Freud-en benetako «intuizioak», esate baterako, kritika zientifikoa aspaldion txirbilduta gelditu direla.

Zientziak garai batetan abiatzen dira, kondizio aproposak dituztelako; eta, denborak aldatu eta gero ere, lehenaldiko eskema eta presupostuekin jarraitzen dute: «autonomizatu» egiten bait dira, prozesu independente bat eramateko. Une batetan batez ere gizarte barrutik kanpora «irtenez» bezala desarroilatzen dira; gero, kanpotik gizarte barrura sartuz bezala. (Iru-di bat besterik ez da hau). Eta haseretako «ebidentziek», guztia galdu eta gero ere, eragikor segitzen dute metodueta.

Natura eta kultura, natura eta historia, *materia* eta *izpiritu* sintesi batetan lotzeko premia nabarmena da gure egunotan ere. Lehenagoko sintesiek ez dute balio; eta haiekin segitzeak ere ez du balio. Zientzien gaurko mailari dagokion sintesi bat behar dugu. Nolanahi ere, azterketa interdisciplinarioz bilatu beharko da soluzioa. Lehenengo, ordea, problema bat badagoela jakin behar da; eta problema nola dagoen ezagutu.

Eta ez nuke esango, izpirituak oraindik prest daudenik, problema honen esistentzia benetan onartzeko. J. Huxley-k marxismo filosofikoa kritikatzan du, hari *an erroneous survival from the days before the prin-*

cipler of evolution were properly understood eritziz. Monod-ek teoria animista deritza marxistari. Lorenz-ek ezker berrien jokabidea arras arbuiatu du (bere buruari Dubcekista deritzalarik), etc. Baina zer egiten da? Ia beti biotako bat: marxismoa eraso hauetatik defendau, edo eraso horiek ignoratu. Irudimen gehiegi eskatzea da, nonbait, eraso horien arrazoia erasotzaileon zientzietan bertan bilatzeko (eta ez, monotonia eta antzutasun aspergarrienez, beti haien «burgeskerian») eta zientzia haiek aprobetxatzeko, eskatzea. Agian, errealismo piska bat eskatzea gehiegi eskatzea da.